

EGAN



1-6

1972

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Págs.

JULIO URKISOREN EHUNUR-TEBURUA: Luis Haramburu-Altuna	3
USURBIL "ERRI BILDUAREN" SEIREUNGARREN URTEAN: M. Lekuona	15
EIBARKO EUSKERARI BURUZ: S. Basauri-J. San Martín	32
CALIFORNIA-ko 1893: A. Irigaray	38
GIZON BAT: S. Garmendia	44
"AGERI"-tik "IZAITE"-rat: Michel Itzaina	54
ANTZINAKO IPUINAK. PERU ETA MARIXA: Jon Martín Pertika	65
ABEREENGANAKO MAITETASUNA OKERBIDETIK ETE?: Julene de Azpeitia	71
BORDA-ZAR: Antonio Erkicia Almandoz	75
IPUINAK, GERO-IKARA: Etxeberria'tar P.	81
MIRANDE OLERKARIA HAREN IDAZ-LANAK: A. Irigaray	90
KONTU KONTARI: Bitaña	94
JAN EDANAK: A. A.	95
IKASTOLA: Xabier Gereño	103
BIBLIOGRAFIA: J. San Martín	112

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Excm. Diputación de Guipúzcoa.

DIRECTOR: Luis Michelena.

CONSEJO DE REDACCION: Angel Irigaray, Antonio Arrue y Luis Michelena.

DEPÓSITO LEGAL: SS. 289 - 1958

Impreso en Gráficas Colón, - P.º Colón, 4, S. S. - Junio, 1973

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XXXII

Enero-Diciembre, 1972

JULIO URKIXOREN EHUNURTEBURUA **EUSKALDUN BERRIA: EREDU ETA ARAU**

Gizon handia zen Urkixo eta bere lanen itzala are handiagoa nabari daiteke egun ere. Inor gutti da gure kondairaren zehar, Euskal Kulturari hainbesteko aupada eman dionik. Gaur bere ehunurteburua (jaiotzarena) ospatzean eta pentsaturik bere lanari aditzerat ematea izanen dela jatorren eta omenaldirik zinezkoena, hartara noakizue.

DEUSTUKO EUSKALDUN BERRIA

1871 ko Apirilaren 3 an jaio zen, Urkixo eta Ibarako Julio Gabriel. Gero «D. Julio» izenak Euskal Herria guztiaren zehar ezaguna izanen zena, Deustuan jaio zen. 1908 garren urteaz gero eta Carlos VII, Espainiako erregearen aginduz «Conde de Urquijo» izena zerman.

Deustuko unibersitatean jardun zuan bost urtez, eta gero Salamancakoan, 1892 ko urtean, lege gizon bezala lizenziatu zen.

Olazabalko Bizenta andereaz ezkondu zen eta Donibane Loitzunera, mugaz harat, joan ziren bizitzera. «Urkijo Baita» izan zen urte askoz Urkijo eta bere sendiaren etxea. Zeren eta gero Lehenengo Gerrate Handia etorri zen mugaz zehar hunat-harat ibiltzeko oztopo handiak zituan, Donostiarat etorri zen bizitzera.

1903 garrenean Espainiako «kortetan» diputatu izatera heldu zen, Tolosako ordezkari bezala hain zuzen. Baina Urkixok ez zuen luzaroan politika jardunetan iraun. Bera karlista zen, eta gainera erregearen inguruko eta lagun. Baina ez zion politikari amor eman. Bere gutzia eta jomuga Euskal kulturaren ikasketa zen.

Bilboko institutoan bere ikasketak egiten ari zen tenorean, Biel eta Escriche hango irakasle biongandik sortu zitzaion Urkixori hizkuntza gaietarako gutzia. Delako Escriche autatua, «Volakup», hots «esperanto-aren» gisako hizkuntza unibersalaren aldekoa zen. Urkixok arreta handiz ekin zion hizkuntza honi eta liburutxo bat ere argitaratu zuan, «Konils Volapukik» izeneko. Liburutxo hau kontu xorta bat zen.

Beraz, Urkixo linguistika gaietan gazte gaztetandik arduratuta datusagu. Baina hizkuntza unibersal baten amets egiten zuen. Nolatan, ba da, euskarara heldu zen? Nolatan Unibersalista hura Euskara zaharraren hesian finkatu zen?

Aldi hartan, Aita Arana ezagutu zuan eta gainera R.M. Azkue bere aitonaren kapelau zen. Hauek eragin zioten euskarara eta beraren eskutikan hasi zen euskara ikasten. Berehalaxe euskera ulertzeko eta irakurtzeko gai zen.

Deustuko euskaldun berri zen, Urkixo harek gogor ekin beharra izan zion eukarari, zeren bere inguruan ez zuan sobera Euskal girorik arkitzen. Bere krisia ere izan zuan eta baita euskara ikastea ere utzi zion. Baina 1905 ean Julien Vinson, euskalzale jakitunaren liburua «Essai d'une Bibliographie de la langue basque» eskuratu zuan. Hartaz gero, Urkixo Euskal kulturaren lur gaitz eta ilun hura jorratzen hasi zen. Arretaz eta erabat hasi ere.

LIBURU ZALEA, EUSKAL HERRIAREN ZEHAR

Vinsonen «bibliografia» ezagutzean liburu zaletasuna piztu zen Urkixongan. Pixkana eta geldi-geldi urteen poderioan Euskal liburutegirik hoberenetakoa izanen zen bere liburutegi hura tajutzen hasi zen. Banan banan biltzen joan zen liburuak. Euskal Herria guztian zehar ganbara zahar eta mandio ospelak aztarrikatzen hasi zen. Bera aberatsa zanez gero, eskuetara erortzen zitzaion guztia erosi eta jasoz joan zen.

Politika lanak eraginda, herriz herri zijoanean ere, bazirudien, politika atxakia besterik ez zuela, zeren han eta hemen galdezka eta bilaketan zebilen liburu zaharren atzetik.

Liburu asko bilatu zuan batez ere Azpeitia inguruan. Egun batez Zarauzko Franziskotarren etxerantz jo zuan eta han arkitu zuan

Joannes D'Echeberri, doktore labortanoaren, liburu autu. Liburu hau, galdua zela uste zuten mugaz harunztik saiatu zirenek. Vinsonek ezagutzen ez zuan zenbait liburu ere arkitu zuan. Adi bidez ARZADUN doktrinaren «princeps» deritzan edizioea ere berak arkitu zuan.

Bere saiketa iraunkorraren fruitu bezala, gure liburuetan zaharrenak eta baliotsuenak eskuratu zituan. Atsularren «GERO» ere bereganatu zuan, liburu bakar hau eskuratzeko Manterola zenaren liburutegi osoa erosi behar izan zuan. Beste bi «GERO» ere bilatu zituan: Nafarroan bat Paben bestea.

Berriain, Arzadun, Mendiburu, D'Arranbillaga... idazle zahar eta preziatuena lanak eskuratu zituan. Baina Urkixo ez zen zuhur gaizto horietakoa. Bazekian harek bere jakinduria eta bere adimena besteri, euskaldunei, zor ziela. Eta honela, etengabeko saiaketa batean lanak argitaratzen jardun zuan.

Baina ez euskaldunok eta ez Euskarak ez genduan goi mailako aldizkari bat. Euskarari buruz osatzen ziren lanak ez zuten, argitaratzeko orduan, aldizkari egokirik. Eta gainera Urkixo berak zionez, sasi jakitun asko zebilen gure artean. Imaginazioak eragindako lan askotxo argitaratzen zen, sasoi hartan, zalantza eta nahasketa sortuaz. Bestalde euskaltzale bakoitza bere alderditik zebilen, eta ez zituan bata bestearen lanak ezagutzen. Beraz, aldizkari serio baten beharra ikusi zuan Urkixok.

«REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS»

Egungo euskaldunok, Urkixori asko zor deraukagu. Baina geure zorrik handiena R.I.E.V.-en sortzailearekin daukagu.

1907 urtean, Urkixo, Donibane Loitzunen bizi zen, artean. Eta harreman estuak zituan delako Georges Laconberekin. Biak ditugu euskaltzale, jakitun, azkar eta paregabeko langile. Eta nolaz ez, bi gizon haien elkargotik zerbait handirik atera behar zuan, eta «zerbait handi» hori RIEV izan zen.

Baldintza bakarra eskatzen zuten RIEV-en idatzi ahal izateko, eta zen: jakitun izatea, baina ez txantxetakoa edo asmaketari emana, ez, jakitun kritikoa izan behar zuan, RIEV-en idatzi nahi zue-nak. Euskal kulturak akats handi bat zuan (eta du): Euskal gauzez jardutean begirada eta ikuspegi zientifiko bat ez izatea. Bere aldizkariarekin erru hau zuzendu nahiz zebilen Urkixo. Eta gehien batean lortu ere lortu zuan.

Frantzia, Alemania, Bretaina, Handia, URSS eta Euskal Herriko Euskal jakintsuak RIEV-eko orriei loturik aurkitu ziren. Gizon

hauek denek beren lan argiez su bizitan jarri zuten Urkixok eta Lacombe piztu zuten txinparta... Schuchardt, Meillet, Barandiaran, Vinson, Dogson, Baroja, Meyer-Lübke, Marr, ...eta beste hainbat gizon ospetsuren argiak bildu zituan Urkixok bere arreta bizkor harekin. Inoiz ez halako bultzada izan zuan Euskal Kulturak, eta egun ere aupada haren fruitu gordin eta indartsua hasnaur daiteke gure artean zeren handik erne bait zen egungo Kulturagintzaren indarra. Urkixoren burutazio harek sor erazi ditu gure artean, egungo zenbait saiaketa. Dela linguistika, kondaira edo dela gure kritikarako prestasuna aberastuak izan dira egun, Urkixoren bultzada haren ondorio bezala.

Urkixok, kritikalarri eta desmitogintzaile bezala, izen sonatua izan du. Behin eta berriro arduratu zen gure zenbait irudimen desegoki puskatzen. Baina desegite hartan arkitzen zuen Urkixok bere kulturagintzarako oinarria eta arnasa. Nolabait ere Urkixok RIEV-eri berezkuntza hau ezarri zion. Noski nabari direla, han, sasoi hartako kutsu eta urrats bereziak, baina funtsean zientzia soila eta teknika-ren agorra nabari daiteke Urkixoren aldizkarian. Gaur egun RIEV altxor preziatua eta miresgarria dugu euskaldunok.

* * *

Bere arduraren pean jaio, hazi eta hezi zen delako aldizkari aipatua, baina Urkixoren ez zen bakarrik hura zuzentzen arduratu, aitzitik bere lanak argitaratzen ere jardun zen. Aldizkari horretan bertan ehun eta berrogei lan argitaratu zituan: linguistikaz batzutan, bibliografiaz, soziologi edo kondairaz bestetan, baina jatorrak eta neurri estuaz osatuak beti.

Urkixo «munstro» bat da, euskaldun berri eta euskal kulturagintzaren berritzaile. Bere aberastasuna Euskal Herriaren zerbitzuan empletatu zuan. Bere bizitza oro Euskal Kulturari hats emanaz erre zuan. Azkoitiako zalduntxo haien odol ber-bera zeraman bere zainetan, sukar ber-bera bihotzean. Urkixo, orain dela ehunurteko gizona dugu; ehunurtekoa, egungoa eta betikoa. Euskal Herriko eredu eta euskaldunen arau. Urkixo euskaldun izatera heldu zen. Heldu eta gainera iraun. Deustuko euskaldun berria, haundi izan zen.

Duela berrogeita hamairu urte, 1918 garrenean hain zuzen, Oinatin bildu zen batzarraren lanak eta hitzaldiak ditut eskuetan. Bolara hartan hain premiazkoa eta gero hain emankorra izanzen zen biltzarre hartan, Euskal Herriko jakitun gehienak batu ziren eta beraien artean, Urkixo. Hizkuntzaz osatu zen taldean saiatu zen batikbat Urkixo. Honekin batera L. Eleizalde R. Olabide eta R. M. Azkuek eman zituzten beren hitzaldiak eta erakutsiak. Talde honen eraba-

kiak oso funtsezkoak izan ziren, eta egun ere esanahi eta erakutsi handikoak. Erabaki horien artean Euskaltzaindia osatzeko asmoa hartu zuten bazkideek. Baina ez noa, gaur, erabaki horietaz arduratzerara, aitzitik, Urkixok batzarre hartan esan zuan hitzaldia aurkeztera noa, zeren interesgarri deritzat bere ehunurteburua atxaki bezala hartuaz bere hitzak berresateari.

JAKINTZA ETA IRUDIMENA

XVIII garren gizaldia gailurtu arte, euskal idazleak eta jakitunak ez ziren sobera Euskara hizkuntzaz, zientziari dagokion gisara, arduratu. Zenbait literatur alor landuak izan baziran ere, gehienbatean erlijio eta katexima gaietan saiatu ziren gure idazleak. Geure idazleek Euskara gertu zuten, agian gertuegi hizkuntzaz arduratzeko.

Noski, ez dugu ahaztu behar Larramendi, Kardaberaz, Pedro de Urte eta Joannes D'Etxeberri saiatu zirela hizkuntza ikasketan eta irakaskintzan. Benetan aipagarria dugu gizon haien lana eta gogoia, zeren beraiek hasi bait ziren hasi, Euskaraz lanak eta saioak tan keratzen. Baina hauek ez zuten zientziaren neurri estuaz beren azterketa neurtzen. Apolojetika gisako lanak osatzen zituzten gehienetan. Eta jakina, apolojetikarako irudimenari ere eskua botatzen zioten, eta sarrienik irudimen soilaz jarduten zuten. (Gero ere, euskaldunok beti izanen gara irudimenari emanak.)

XIX garren gizaldian eta batez ere G. Humboldt-ek Euskal Herrian zehar egin zituan bidaiaz gero, euskarari buruzko lanak ugalduz eta jatorrasunean helduz joan ziren. Astarloa, Mogel, eta Errok ere izan zuten, euskararen ikaskuntzaren berbizte honetan zer ikusirik. Baina artean, batez ere gutarrak, irudimena buruon gainezka zuten lehen-euskerologo hauek. Halaz ere, berauk euskarari eman zioten izena haundia izan zen, eta handik Europako jakitun asko euskerari begira jarri ziren. Gero etorriko zen Schuchardt, Van Heys, Dogson eta beste zenbait jakintsu, euskarari buruz lan kritikoak eta zientzia arauz tajutuak osatzen jardunen zutenak.

Humboldti jarraituaz gehientsuenek «Iberismo» aldetik bilatzen zuten euskararen jatorria eta xedea. Iberismoaren aldekoek uste zuten ez Euskararen azterketak argi asko eman zezakean Espainiako aintzin denboraz, Iberiaz hain zuzen.

IBERISMOA ZELA-TA

Urteen poderioan eta Prusiako jakintsu eta euskaltzale haren urratsari jarraituaz Schuchardt eta Uhlenbeck-k Iberismoaren aldeko tesia are urrutiago eta tinkoago eraman zuten, Euskal deklinazioa eta

Iberoa aurrez-aurre ifiniatz eta aztertuaz. Berauk ziotenez zenbait izen akitano eta iberok, euskal kutsu nabarbera zuten.

Campion eta Luchaire ere Iberismoaren aldekoak ziren eta batez ere bigarrena astiro eta sakonki saiatu zen arazo honetaz. Vinson eta Van Eys-ek, berriz, biziro kontra jardun zuten delako Iberismo tesi autatuaren aurka.

Eztabaida hau sortu zutenak atzerriarrak izan ziren batikbat, baina gure artean berehalaxe errotu zen, eta aldekoak eta kontrakoak nabarberdu ere, klarki nabarberdu ziren. Argi dakusagu egun eztabaida harek zer nolako garrantzia eta ondorioak zituan, XIX garren gizaldiko azken urteetan Euskal Herrian pizten ari zen Ideologia berriarekiko. Eta hau nolabait ere Urkixok argi zekusan.

S. Arana Goiri Iberismoaren kontrakoa bezala agertu zen. Berau linguistika gaietan jantzia zanez, Iberismoaren kontrako zenbait arrazoi erabili zuen. Lehen geure idazle zaharrez hitzegitean esanik dut, agian gertuegi zirela euskararen aurrez, jator eta objetiboki hartaz idazteko. Halaber diot geure egungo zenbait idazlez ere, zeren ez bai dute hauek, ere, aztertzen ari diran hizkuntzaren aurrez behar hainbat tarte eta bitarte hartzen. Orduan gertatzen dena zera da: Zientziatik hasi eta irudimenera edo agian ideologiara iragaten direla.

Eleizalde jaunak ere bide hortatik aurrera ekin zuan eta iberoen izatea (arrazza, hizkuntza, eta erresuma) ukatzeareaino heldu zen; iberok errealitate jeografiko direla eta ez errealitate etnografiko esanaz. Menendez Pelayo ez zen lur leun honetan sartu ere. Schuchardt-en gerizpean gorde zen.

ZENBAIT «CELTA»-ZALE

Aristotelesek, egun bizi balitz ez zuen ez, agian, esanen «Gizona abere politiko dela», aitzitik esanen zuan «Gizona abere euskaldun» dela. Hain gara politika eiteari emanak! (Agian zorionekoa dugu hau.) Stalin berari ere linguistikarekin politika egitea laket zitzaion, baina Stalin ttipi gelditzen da zenbait euskaldunen aurrez, zeren begira zer zion J. Perochegui jaunak: «Borbon deitura, euskal deitura da, eta hain zuzen ere Buru-on esan nahi du».

Gisa hontako arlotekeria askotxo entzuten zen Euskal Herrian, duela oraindik gutti, eta handiagorik ere esan zen; beti ere irudimena arau eta jokabide bezala harturik.

Celta-zaleek esaten zuten beren hizkuntza, hizkuntza oren ama-sabel eta zilborra zen. Picard, Lefebre eta beste zenbaitek asmatu zuten asmakizun hau XVI garren gizaldian. Voltairek bere irri-zoroz juzkatuak izan arren, gero ere izan zituan asmakizun honek

bere jarraitzaileak, eta La Tour D'Auvergne izan zen hauetan be-
roenetakoa. (Astarloak ezagutzen zituan hauen lanak.)

Zenbait euskaldunek XVIII garren eta XIX garrenaren haseran
celta-zaleen asmakizuna bere egin zuten, eta arrezkero, Euskara zela
hizkuntza ororen ama esaten jardun zuten. Oraindik atzo asmakizun
hauek ba zituzten beren aldekoak; begira zer zion 1917 an «EUS-
KALZALE» aldizkariak: «Egia ete da Adam eta Ebak atsegin ba-
ratzean euskeraz egiten ebela? Entzun in dot eta: Zeruan bertan be
danak euskereari ekiten deutsela. Baina olako esanak, barregeiak
baño ez dira...».

Euskararen amatza unibersala aldarrikatzen zutenak horietakoak
ziren: Larramendi, Astarloa, Perochegui eta abar. Baina guztira ere
Julian Churruca, Trafalgar-ko Churruka haren anaia, izan zen gauzak
urrutien eraman zituena. Euskarari «Aitarek ahotik ertendako itun
betikoa» deritza. Churrucak zionez, Euskera beste diren hizkuntzak
Kain-en gaiztakeriatik sortuak omen dira, eta gizonen gaitz guztiak
berriro euskarara bihurtzean desegingo omen dira. (Egia esan, eus-
kaldunez hau esatea ez zen hain oker handia izanen, baina gizon orok
euskara irakasten jardun behar badu...)

Urkixok aise ondo zekian zer nolatan zebiltzan euskarari buruz
bere sasoiak euskaraz osatzen ziran lanak, eta zuzen eta klarki zeku-
san euskeraren egoera gaitza. Egoera haren ondorioak bota zituan
eta proposamen franko ere egin zuan. Haren desiretatik batzuk egun
bete dira, baina gehienak orduan bezain desira gorritan dirante
egun ere.

EUSKARARI BURUZ PROPOSAMENAK

1918an Urkixok bi akats ikusten zituan batikbat Euskal Linguis-
tikaren alorrean; batetik euskararen berri izateko, atzerritarrek zuten
eragozpena, eta bestetik euskaldunok gai hontan genduen heziketa
urria.

Atzerritarren eragozpena gailentzeko sortu zuan Urkixok RIEV
aldizkaria, eta gehienbatean lortu zuan eragozpen honen soluzioa.
Baina Euskaldunok linguistika gaietan genduen eskasia, zertxo batean
osatu izan bada ere, oraindik asko da hontaz egin behar duguna.
Mitxelena, Laffite, Lafont... eta beste norbait ere ba dugu. Baina
oraindio ere asko saiatu beharrean gara alderdi hontatik.

Urkixok egin zituan proposamenetik gehienak bere hartan, pro-
posamen eta desirkunde soilean gelditu dira. Atzoko arazoak dira
egungoak, eta hontara bildu daitezke Urkixoren epeta haiek:

1. Euskal Unibersitate bat sortu. Ikasleentzat laguntzak eratuaz,

astiro baina zuzen gertatuaz, biharko Unibersitatearen irakasle izanen lirakeenak sortuz joanen ginake.

2. Batasuna lortu, batikbat ortografia aldetik. Gogora datozkit urte haietan S. Altubek idatzi zituan hitzak: «Euskeraren herioa ikusi nahi ez ba dugu, egin daigun, baina laister, beronen erailtzaileok egin duena. Batu gaitezen euskaldun oro, hizkeraz ezin ba da idazkeraz...».

3. Euskal kulturaz batzarreak gertatu.

4. «Atlas» linguistiko bat osatu.

Hauk ziren Oinatiko batzarrean Urkixok egin zituan proposamenak. Eta guti gora behera hauk dira egungo arazoak eta epetak ere.

Bere hitzaldiaren aurkezpena burutzean hontaz jabetzen gara: Urkixok urrutira, oso urrutira ikusten zuela. Bera finka gaitza zen mementoko polemiketan, areago zijoan beti Euskal kulturaren muga zabala miatuaz. Horra zergatik berrogeita hamar urte pasa eta gero, Urkixo egungo den.

Erakutsi jatorra eman zeukun bere exemplu iraunkorraz; Irudimen eta asmakizunetatik, zientzia egiteko tenorean, aldentzea. Ideologiak zer esanik gutti du zientziagintzan. Ea noiz! abere euskaldunok, abere zientifiko trokatzen garen.

* * *

Euskararen geroaz arduratzean, 1920 garrenean ez zuan Urkixok geure hizkuntzaren arazoa eta egoera gaitza hesi apartekoan ifintzen. Aitzitik, Euskararen gaitza aztertzean bere ikuspegia areago zabalduaz, Europako beste zenbait hizkuntzaren egoera ere aipatzen zuan. Urkixoren baitan gaitz bakarra eta berdina zen Bretoi, Oc, Euskarak eta beren gisako hizkuntzak zuten gaitza. Gaitz horri «ezin bizia» zeritzan Urkixok.

1920 ko urte muga, Urkixok kontraesan larri bat zekusan Europako linguistika alorrean. Batetik, herrien arteko lokarrien estutzea eta unibersalista ideien haize bolara. Eta bestetik Herri tipienetan ere nabari zen hizkuntzarekiko begirunea eta preziaztea. Rusia eta Austriako Imperioak apurtu ziren eta erresuma bakoitzak bere hizkuntzari arreta handiz oso egiten zion.

Baina Urkixok European zehar hasnautzen zuan Kontradizio hura bera, bere barnean zeraman. Urkixoren barrena erdibiturik zen unibersalista eta euskaltzale zen alderditik. «Volapük», hizkuntza unibersala landu eta euskaraz hain iraunkorki borrokatu ziren biak, gizon bakarra osatzen zuten: Urkixo. Urkixoren jokaera eta saiaera asko aztertzean, ez genezake ahaztu bere gutizia bikoitza.

XX mendeko lehen urteetan zientziak izan zuan aurrerapideaz kutsaturik zen zenbait europar. Eta oraindik gertuegi ziren romantizismoaren egunak. Arrazoi bi hauk, zer ikusi handia izan zuten Urkixo unibersalista trokatzean. Zeren Urkixo bere garaiko gizonen arketipo dugu, eta bere jenerazinoko kontradizio orenen agerpide.

Lehenengo gerrate handia bukatzean eta Russian sobietarrak boterera igoaz gero, Europako hizkuntzen ikuspegia, eraz, nabarmenki aldatu zen. Zela romantizismoaren urratsa, zela marxismoaren berrietasuna, unibersalista ideiak sakonik errotu ziren. Eta «Esperanto» eta bere gisako beste zenbait hizkuntzaren hipotesiak, ez ziren orain bezain amets eta hipotesi soil. Baina nazionalismoen garaia ere heldurik zen eta Alemaniak, Italiak e. a.-ek «chauvinismoa» gehigarri zuten.

Beraz, Urkixok bere egin zuan, European zehar hizkuntzaz sortutako arazoa. Eta arduratuz bide zijoan linguistika gaietan, bi ideologi mota hauek eraginik.

Asko nekatu zen Urkixo delako «Volapük» hizkuntza unibersalaren alde. Eta hizkuntza hau lantzen zuten europar aintzindariekin izan zuan harremanik. Baina Urkixo gizon praktiko zen eta berehala jabetu zen hizkuntza haren ardurak ez zuela funtsik. Urkixok, hildo bereizi eta konkreto bat behar zuan, eta euskarari aurkitu zuan bere ezin egonaren atsedean. Euskarari, aurkitu zuan bere gose eta egarrien osagarria. Euskarak, Urkixo, errotu egin zuan. Eta nola bait ere Urkixok, Euskara bere hesi hertsiatikan at jarri zuan. Euskara deserrotu egin zuan. Urkixok, leihoa zabaldu zuan, gure euskara zaharrena zenbait misterio eta asmakizun xeble astinduaz.

EUSKARA ZIBILIZAZIO BIDE

Europako hizkuntzen egoera aztertzean Urkixok A. Meillet-en mai-sugoa onartzen zuan. Eta Europako zenbait hizkuntzari, zibilizazio bide zirenei, so egin eta gero galdera hau egiten zuan: Hizkuntza hauen aurrez, zein da Euskararen tokia?

Iberiako antzin denboretako lekuko bakarra zeritzan Euskarari. Urkixok dionez, guti gora behera, egungo Euskara hau aintzinako Euskara haren berdintsua da. Beraz Euskara, Ibero eta Akitanoen gizarte moldeen iturri pare gabekoa dugu. Erromanoen gizarte-molde erlijio, eta kultura Iberiara irixtean, erten bide bi bakarrak zituan euskarak: edo hil edo kultura berriaren arabera jokatu. Zorionez, dio Urkixok, Euskarak bere egin zituan, besteren ziren zenbait hitz, neurri eta pentsa-molde. Hitz batetan esateko, Euskara «latinizatu»

egin zen. Eta jokaera hontaz ez ditugula kulpatu behar geure arba-soak, dio Urkixok.

Lehen latinizazio hontaz gero, Erdi Aroaren mugan, Euskal Herriko zenbait lurralde, romanizatuak izan ziren; Araba batik bat eta halaber Nafarroako zenbait hauzo nagusi.

Urkixok dioenez, egun ere, Lehen Latinizazio eta bigarren romanizazio hauk Euskarakiko ekarri zuten egoeraren antzekoa sortu deraukute frantses eta gaztelania hizkuntzak. Zibilizazio bide diren bi hizkuntzen aurrez (pean) aurkitzen gara egun ere eta geure arbaso zaharren gisara jokatu beharrean gara.

Urkixoren aburuz, bilinguismo bat onartu beharrean gara euskaldunok. Baina ez dezagula pentsa, otoi, esaten derauku Urkixok, bilinguismo hau atzerapide eta euskaldun izatearen ukazio denik. Aitzitik, bilinguismoa ongari izanen da Euskararentzat.

Euskal Herrian sortu berri ziren zenbait ikastolaren aurrerapide eta lan aztertu ondoren heldu zen Urkixo ondorio honetara. Egun ere arazo berdinek kezkatzen gaituzte, euskaldunok, arazo honen gaitza are urrutiago joan bada ere. Eta nire baitari diot, ez ote den premiazkoa Urkixoren gisara, gure zenbait ekintzaren ondorioak eta erakutsiak jasotzen hasteko sasoia. Ez dut nik esanen Urkixoren pentsaera zuzena edo daitekean zuzenena denik. Baina hor dakusagu, Urkixorengan, joera jatorra eta guztiz jarraigarrria: azterketarako prestatutasuna.

EUSKARA ATZERAPIDE?

Unamunori, Salamancako bizkaitar hari, itsu eta sasi-politiko argal deritza Urkixok. Zeren Euskara, euskaldunon urkamendi eta atzerapide dela esaten duenak, «baskofobo» baizik ez dira.

Euskara atzerapide ba da, ez da, ez, Euskara kultura eta zibilizazio bideetako gai ez delako; aitzitik, euskaldunok, gureaz beste den hizkuntza batetan, kultura bideetatik abiatzen garelako omen da atzerapide Euskara. Euskararen herioa, beroni jarri dioten eta diogun hesiatikan datorke. Eta hesi hori, eskola deseuskalduna da, honela dio behintzat Urkixok.

Pio Barojak zioenez, Euskararen sintaxi eta gramatika joskera zahar eta gogorretik omen datorkio bere kultura bideetako ez-gaitasuna.

Urkixo gogor polemikatu zen P. Barojarekin, eta funtsean, honetara bildu daiteke bere arrazoi bidea: «Euskarari, ezin bizia, ez datorkio, ez, bere zahar eta sintetiko izatetik. Euskara galbidean ba doa, euskalki asko eta desberdinetan zatitua datzalako, Euskaldunok

guti garelako eta agintariei, Euskararen laguntza, ez bide zaielako ardura, doa galduz Euskara.

EUSKARAREN BATASUNA

Euskararen batasunari buruz jardun diren artean, Urkixo lehene-takoa eta aintzindari izan da. Bere egunetan euskal idazle zirenen-tzat hitz gogorrik izan zuan. Bakoitza bere alderditik zebilen eta Urkixok ezin eramana zuan berekoikeria, batik bat Euskara lantzen ari zirenen artean.

Zibilizazio eta kultur bide izateko, Euskarak duan eragozpiderik larrienetakoa, euskararen zatiketa da. Urkixok areago eraman zuan Luziano Bonaparte printzeak euskalkiei buruz hasi zuan lana. Eta klarki zekusan berak, Euskararen zatiketa zein sakon eta gaitza zen.

Urkixo ez zen ados zenbait euskal idazlerekin, berauk, batasuna bortizki eta mekanikoki sortu nahi zutenean. Utopia deritza asmo honi. Balizko eta teori mailako batasun honen aurrez, Urkixok, Euro-pako zenbait herriren esperientzia zekarren. Eta herri haietan zeku-san Urkixok, nola hizkuntza batua eta ofizial bat izan arren euskal-kiak edo «patois» desberdinak irauten zuten, hizkera mailan.

Beraz Urkixok, praktika alderdiari so eginaz onartzen zituan eus-kalkiak hitzegiteko tenorean. Baina ofizialki eta literaturari zegokio-nez hizkuntza bakarra eta batua aldarrikatzen zuan.

Lehengo gaitzak dira egungoak eta duela mende erdi bat, egun eta (zakarrago) bizpahiru urte bezala, ordungo euskaldunak ere iri-tzi desberdinak zituzten Euskararen batasunari buruz.

Polemika giro hartan Urkixok bere egin zuan jokabide hau: «Har eta landu dezagun euskalki bakar bat, eta eman dizaiogun be-rorri literatur jantzia. Gero hizkuntza literario hau, batasunerako gai eta bide izanen da. Batasun hau astiro eta gelditi lortuz joanen bada ere».

Bide hau zuan gogoko Urkixo jaunak. Baina bildur zen (eta ala fede! bazuan zeri bildur izan) berekoikeria izanen ote zen batasuna-ren oztoporik larriena.

Hain amestua zen batasun hau lortzeko, jaio berri zen Euskal-tzaindiaz ez zen Urkixo luzaz fidatu. Zeren bere aburuz, Herriaren-gan itsatsi behar zuen batasun honek. Herri honek, gorengo institu-zionen maisugoaren pean lortu behar zuen Euskararen batasuna. Eta gorengo instituzione hori, Diputazioa zen. Urkixok fede frogatua zuan, ordungo Euskal Diputazioa haietan. Gero hauek huts egingen bazien ere.

Argi zen Urkixoren ikuspegia, batasun honek izan zezakean peril eta suerte gaiztoz. Zeren zientzia eta linguistika alderditik, gisa honetako saiaerak jatorrak eta guztiz interesgarriak badira ere, Herriak ez ba dio arretaz erantzuten, praktikazko funtsik bariko asmakizun hutsa gerta daiteke. Horregatik erasten zion Urkixok, delako batasunari, perpausa hau: «Batasuna bai, baina errotua eta astiroki».

Inolaz ere Urkixok onartzen ez zuena zera zen: Hizkuntza literario bat osatuaz gero, hizkuntza hori herriari estrainio eta herriatik at izatea. «Purismoa», berez, joera bezala onartua izan bazitekean ere, purismo hori arau eta neurri bezala gaitz zela zion.

Neologismoei buruz, Urkixo aldeko zen. Eta literatur hizkuntzak, herrikoiz ziren hitzak jaso behar zituala zion. Besterik, literatura herriaren aurrez zurtz eta zilbor gabekoa izanen zen.

Arestian esana digu I. Sarasolak bere «Euskal literaturaren historia» liburuan, Urkixoren garaiko jenerazinoak, literatura zahar eta hain preziatua huts egin zuela. Bizpahiru izan ziren gure literatura zaharraren mamia dastatu zutenak, eta hauen artean, Urkixo. Bibliofiliatikan zetorkion Urkixori literatura zaharrerako gutizia, eta asko zor zion beronen ezagutzeari. Urkixok buruz hotz eta zentzunez zorrotz iraun zuan. Horregatik dugu Urkixo lehenaren gordailu eta geroaren habe. Aintzindari eta aurrerakoi izan zen, errotua eta praktiko zelako. Bere praktiko sena, gure historiaz zuan ikusmira eta ezaguera zabaletik zetorkion.

Urkixok ez zuan Euskara linguistika alorrean hesitu, eta teknikakieria agorrean ito. Urkixok, Euskararen geroaz arduratzean, Herriari egin zion so. Hona hemen bere hitzak: «Ez dugu ahaztu behar hizkuntza fenomeno sozial denik, eta gizon bakarrak guti badezake ere, Herri kontzientziatu eta batuak hizkuntzaren habiadura eta osaketa lor dezake».

Urkixoren aburuz, Euskararen batasuna ez datorke soilik euskalkien bateratzean, aitzitik euskaldunok ere batu egin behar dugu, HERRIA osatzeko. Eta herri bat menderatuko duenik ezer ez da.

LUIS HARANBURU-ALTUNA.



USURBIL "ERRI BILDUAREN" SEIREUNGARREN URTEAN

(Erriarentzat itzaldi)

Orain urte batzuek, egin zizuten itzaldi bat, zuen Eliz ederreko Torre apain galantaren irureun urte betetzea zala-ta.

Gaur beste itzaldi bat eskatu didazute, zuen Usurbil polit au «Erri Bildu» izatera iritxi zan-eko seireun urte betetzea dala-ta.

Orduko itzaldian, naasi-antxean, Usurbil'go Geologia —Usurbil'go lurraren sorrera— batez ere ikutu nuan, eta ondoren, Maisu Ibero'ren Torre bikañaz gañera, Elizaren zenbait gauza uste det ikutu nuala: zala Elizaren estiloa, zala Aldare Nagusiaren ederra etab.

Gaur, Usurbil'go Erriaz beraz —Erri Bilduaz— mintzatuko naitzazute. Nola egin zifñaten Erri Bildu, aurten seireun urte? «Erri Bildu», erderaz «Villa»?...

Ia zerbait jakingarri ta garrantzitsu esaten dizutedan.

USURBIL, ERNANI-LUR; DONOSTI-LUR; ERRI BEREZI

Gaur Usurbil, Erri berezi da; Leen, Donostia'ren puska izan zan; bañan leenago, Ernani'ren puska.

Seireun urte dira, Erri berezi zeratela; berreun bat urtez izan zifñaten Donostia'ren zati; askoz geiago —millaka urtez— Ernani'ren zati.

CORRIGENDA.—Zuzenketa bat egin bearrean gaude, gaurko itzaldi au argitaldu baño leen. Geroneko EGAN'en argitaldu genduan "Bergara, erri bilduan" oker bat jalki zitzaigun; itzaldiko fitxak erabiltzean, Elgoibar'i zegokion fitxa bat, Bergara'ri erantsi genion: Elgoibar'ko Olasotarren fitxa Bergara'ri erantsi. Ganboarren buru nagusi ziran Olasotarrak, etziran Bergara'koak, Elgoibar'koak baizik, gerora Bergara'n ere Olasotarrak otsaundiko izan ziran arren. Bego, beraz, gauza, ortan.

Ikusten dezutenez, Usurbil-inguruko egoerak, ez dira beti berdiñak izan. Izan ere, antziña-antziña, lur guzti auk, artzai-lurrak ziran. Eta artzai-garaian, Usurbil Ernani'ren lur egiten zan. Artzai-garai artan, orain «erriak» bezela, orduan «lurraldeak» ziran, lurralde luze-zabal aundiak. Inguru oetan, besteak beste, olako bi lurralde ziran, benetan lurralde aundi: bata Oyartzun —Urumea'tik Bidasoa'raño—; eta bestea Ernani —Urumea'tik Oria'raño (1).

Lurralde aien mugak, ibaitik ibaira izan oi ziran; gaur menditik mendira bezela, orduan ibaitik ibaira. Ernani-lurrak Urumea'tik Oria'raño zabaltzen eta luzatzen ziran; eta, ola, Ernani'ren barruan sartzen ziran, —gero sortuko zan Donosti-inguru guztiaz, eta, La-sarte'z gañera— baita Usurbil eta Orio ere. Dana Ernani-lur.

Lurraren izuera orrek orla iraun zuan millaka urtez —artzai-kulturak gure artean iraun zuan arte—. Gero etorri zan garai bat, Nafarroa'ko Errege Santxo «Jakintsuk», Ernani-lur artan Donostia sortu zuana, alde batetik Bayona'rekin «merkataritza», «Comercioa» indartzeko, eta bestetik Donostia'ko inguruan artiga, nekazaritza ezartzeko —nekazaritza, leengo bertako artzantzaz gañera—. 1180'gn urtetsuan gertatu bait zan ori. Eta orduan sortu zuan Errege nafar ark inguru ontan juridizio-egoera berri bat. Berak sortutako Donosti berri ura indartu bearrez, juridizio ikaragarri bat erantsi zion Donosti sortu-berriari: «Ondarribia'tik Orio'raño'koa»: ots! leen Ernani'k eta Oyartzun'ek, bion artean zuten guztia, erantsi zion berak Donostia'ri.

Juridizio izugarri artan sartzen zan, esan degun bezela, zuen Usurbil.

Orain gauza jakingarri bat tarte ortan: esan degun neurrian, Oria ibaiaren beste aldeko lurrak, etziran Ernani-lur, Zizurkil-lur baik. Beraz neurri ortan, Zubieta eta San Esteban, etziran Ernani-lur, etziran Usurbil-lur, gero noizpait Usurbil'go egin baziran ere ez bait dakigu noiz, bear bada, arestian aipatu degun Santxo «Jakintsuk» Donostia'ko juridizio aundia zortu zuanean-edo.

Dana dala, orain seireun urte, Usurbil oraindikan Donostia'ko juridizio zan.

(1) Ikus LECUONA MANUEL: "Las Parroquias de San Sebastián - Aspectos histórico-arqueológicos": separata de "San Sebastián - Curso breve sobre la vida y milagros de una Ciudad": San Sebastián, 1964 - "Gráficas IZARRA". pág. 168. LECUONA MANUEL: "Escollas de nuestra Historiografía": separata de "Boletín de la Real Sociedad de los Amigos del País"; San Sebastián, 1971. pág. 6. LECUONA MANUEL: "La Parroquia de San Sebastián el Antiguo": Conferencia: Editorial "Gráficas IZARRA", 1963. pág. 9 et sequ.

USURBIL, KOLAZIO

Zer zan-ordea, Usurbil, Donostiaren barruan?

Gipuzkoa'ko histori-zale sonatuenetan bat dan Gorosabel'ek, bere «Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos de Guipúzcoa» deritzan liburu bikañean, Usurbil'en izaera-egoera orri, «kolazio» esaten dio: «*Usúrbil, en su origen, era una mera colación de San Sebastián*».

Ba dakit, zuetako askori pentsakizun aundi eman diola «kolazio» itz orrek, eta zer esan nai duan jakin naiean zaudetela.

Gorosabel'ek berak, «kolazio» dalako orri, iñoz «aldea» esaten dio, eta berdin, baita, «parrokia» ere, eta «barrio». Nolanai dala, Gipuzkoa'n kolazioak, erriak ziran, erri jatorrak - beren Batzarrakin, beren ondasunak (mendiak etab.) gobernatzeko, administratzeko eskubide guztiakin, ots! «administrazio-bizitza» oso-osorik zeukatela; bañan Juridizioa falta, Alkaterik ez, erritarren eskubideak zaitzeko ta erabakitzeko, eta gaizkilleak eta lapurrak pertsegitzeko ta zigortzeko, beren Alkaterik ez. Usurbil'ek bere Alkatea, Donostia'n zuan. Beste itz batzuetan: Usurbil Donostia'ko Juridizioari erantsia egola. Ori esan nai bait du *kolazio* itzak: erri bat beste zenbaitzuekin bildua, pillatua egotea. Usurbil, Donostia'rekin. Erri-izatez, erri jator, eunka batzuek etxek osatutako erri jator; bañan Alkaterik izateko eskubiderikan gabe.

Zenbat etxek osatzen zuten Usurbil ura, Usurbil'go kolazio-erri ura?

Ez dakigu. Bakar-bakarrikan esan dezakegu, elkarrekin alderen txuen bizi ziranak osatuko zutela. Au ere bai: asiera-asieran —Donostia'ko Juridizioa Santxo «Jakintsuk» sortu baño leenago, Usurbil Ernani'ko Juridizioan bizi zanean (artzai-garaian, alegia)— ibaiaz onuzko aldekoak bakarrik sartuko zirala Usurbil artan; ots! oraingo Elizaldeko ta Usurbil Zaarrekoak bakarrik —Zubietakoak eta San Esteban'goak, ez, gerora, Donostia'ko Juridizio-garaian, edo berak ere sartu baziran ere—. Agiñaga bera, asiera artan, ez bait zan sartuko, naiz ta gero bera ere bai, bere betiko bereizkuntzak.

KOLAZIOAK GIPUZKOAN

Gipuzkoa guztian, garai artan, ez Usurbil bakarrik, erri asko ta asko —geienak— olako kolazio ziran, ots! besteren juridizioan bizi ziran auzoak, «aldeak», erri, juridizio gabeak, Alkate gabeak.

Villafranka-Ordizia-inguruan, Ordizia'ren kolazio ziran, bai Beasain, bai Isasondo, bai Legorreta, bai Gaintza, bai Zaldibia, bai Lazkano'ko zenbait etxe ere.

Segura-inguruan, berdin, Segura'ren kolazio ziran, Zegama, Zerain, Gabiria, Idiazabal, Mutiloa, Ormaiztegi, Astigarreta, Gudugarreta, Legazpia eta inoiz baita Ezkioga eta Zumarraga, eta baita Villarreal Urretxua ere.

Berdin, baita, Tolosa-inguruan, Aduna, Alkiza, Amasa, Anoeta, Belauntza, Berastegi, Zizurkil, Elduayen, Gaztelu, Ernialde, Irura, Leaburu, Lizartza ta Orexa, Tolosa'ren kolazio.

Villafranka-Ordizia-ingurukoak, Ordizia'ko juridizioan bizi ziran; eta Segurakoak, Segurakoan; eta berdin baita Tolosa'koak ere Tolosa'ko juridizioan, ots! erri Nagusi oietako Alkatearen mendean bizi ziran, eskubideak erabaki ta zaitzeko, eta lapurrak eta iltzalleak zigortzeko gaian.

Kolazio oiei inoiz esaten zaie baita «Parrokia» ere, Santuaren baten izenpean, beren asieran, beste erri asko bezela, Elizaren babesean sortu ziran señale. Oyartzun'i, adibidez, paperetan alaxe esaten zaio askotan, *Parroquia de San Esteban de Lartaun*.

Inoiz baita esaten zaie «Universidad»'ere, izen onek askotan kolazio baño beste malla bat badirudi ere; ala Errexil, eta Irun, eta Lezo, eta Zegama inoiz, eta Bergara-inguruan Uzarraga —geroko Antzuola— eta Oxirondo bera, gaur Bergara'ko barrio dana. Gauza naasitxoak bait dira guretzat gaur Unibertsidade-ta izen oiek. Nolanai dala, gauza argia, au da: kolazio-izenekoak etzutela beren juridiziorik, naiz-eta bai beren ondasunen gobernua; etzutela beren Alkatearik, Alkate jatorrik; eta beren auziak Erri Nagusi aietan —Segura'n, Tolosa'n, Ordizia'n tab.— erabaki bear izaten zituztela... Arik-eta geienak XVII Gizaldian beren Juridizioaren jabe egin ziran arte.

XVII Gizaldian.

Usurbil-ordea, gai ontan, goiztiarrago ibilli zan; XIV Gizaldian egin zan bere juridizioaren, bere erritasunaren jabe.

Etzan izan bera bakarrik. Beste askok ere oso garaiz lortu zuten eskubide ori: ala Tolosa'k 1256'an; Bergara'k 1268'an; Mondragoe'k 1260'an; Mutriku'k 1209'an Getaria'rekin; Erretereria'k 1320'an; eta ondotoz leenago Donostia'k. Donostia'k bere Fueroa —bere sorrerako Fueroa— leenagokoa bait du: 1150'etik 1190 artekoa. Fuero orren egitez, ain zuzen, gelditu bait zitzaigun Usurbil Donostia'ren Juridizioan —Ondarribia'tik asita Orio'raño luzatzen zan Donostia'ko juridizio aundian.

Nafarroa'ko Santxo «Jakintsuk» eman zion Donostia'ri, dakizuten bezela, Fuero ura. Beste Errege «Jakintsu» bat, Gaztela'ko, X Alfontso «Jakintsua» izan bait zan, Tolosa'ri ta Segura'ri ta Villafranka-Ordizia'ri mesede bera egin ziena; eta berdin baita Mondragoe'ri eta Bergara'ri ere; leenago, berriz, Alfontso VIII'ak Ondarribia'ri

eta Getaria ta Motriko'ri; geroztik, berriz, Alfontso XI'ak Errenteria'ri.

Alfontso XI onen seme, ENRIKE II, «Trastamarakoa» zeritzana, izan zan, dakizuten bezela, Usurbil'i 1371'ganean mesede bera egin ziona.

Ikustagun istanpatean orain, zein zan ENRIKE II, «Trastamarako» zeritzan Errege au.

USURBILL'EN ERREGE MESEDEGILLEA

Usurbill'en Errege mesedegillea, Enrike II izan zala esan degu.

Errege au, itz bitan esateko, Don Pedro «El cruel» esan oi zaion Erregeren ugaz-anaia zan. Bi anaiak, Alfontso XI'aren semeak ziran: Pedro, seme jatorra; Enrike, sasikoa. Biok elkarren etsai aundiak izan ziran beren bizitzan. Pedro, gizon gogorra, biotz gogorrekoa izan zan: eriotz asko egin zituan. Enrike'ren ama ere berak il zuala uste bait da. Enrike'k gorroto zion orregatik Pedro'ri; eta berdin baita, oso gorroto zioten bere mendeko askok eta askok ere. Eta gogorkeri aiengatik, Pedro baztatu-ta, 1366'gn. urtean, Kalahorra'n, Enrike, Errege aitortu zuten bere aldekoak; eta, geroztik gerra piztu zan Kastilla'n eta ingurumari guztian.

Eta, orain guri dagokigunez, Euskalerrian ba ziran Pedro'ren aldekoak; bañan baita Enrike'ren aldekoak ere, eta gerrak, gora-beera aundiak izan zituan.

Aizkenik, jakiña da Enrike'k Montiel'en burruka batean Pedro bere eskuz il zuala; eta, eriotz orren bitartez, Enrike, Erregetza-ren jabe oso gelditu zala 1369'gn. urtean. Eta geroztik Enrike II, gerratean bere alde izan zituan erri ta jendeai mesede asko egiten saiatu zan, nabarmen-nabarmen. Mesede oiengatik bait deritza Errege au «Enrike Mesede gille».

Mesede oetan bat, Usurbil'i egin ziona izan zan. Mesede orren bitartez bait du Usurbil'ek geroztik bere buruaren jabetasun, bere Juridizio; ots! Donostia'ren mendetik aterata, bere buruaren jaun ta jabe izatea.

Begira orain, nolako Idazkiaren bidez egin zien Errege ark Usurbildarrai mesede ori.

ERREGEREN ESKUTITZA

ENRIKE, Jaungoikoaren graziaz Kastilla'ko etab. Errege naizen onek... Usurbil'go San Salvador deritzan Kolazioko biztanle, bizilagun ta parrokizaleoi. Bizi zeraten etxeak, banatuak eta elkarrengandik urruti dituzutela, aditzera eman didazute; eta, beragatik Ko-

lazio ortan Erri Bildua egin nai dezutela, bere buruaren jabe izan dedin, orla, elkarren ondoan bizi izanik, Nere serbitzua obeto egin dezazuten.

Ori dala-ta, zueri mesede ta on egiteagatik, auxe erabaki det:

Zuek, «Usurbil'go San Salvador» deritzan Kolazioko biztanle, bizilagun eta parrokiak egin dezazutela, San Salvador deritzan Kolazio ortan, bere buruaren jabe izango dan Erri, berezi, bildu ta ormaduna;

eta izena, «Usurbil'go Belmonte» izan dezala (ots! «Usurbil'go Mendi eder»);

eta leendikan dituzuten muga berak izan ditzala bere muga;

eta leengo usadioak izan ditzala bere usadio;

eta ez dedilla izan, beste iñungo erriren juridizioko, bere juridizioko baizik;

eta ormaz inguratu dezazutela, nai dezutenean eta al dezutenean;

eta zuen Erri ortan ipiñi ditzazutela eta izan, zuen Alkate, ta Probestu ta Juradu ta Ixkribau ta gañerako Kargodunak, Errian konbeni edo bearko dituzuten bezela;

eta zuek, eta Kargodun oiek, eta Erriko gizon onak, eta Erriko Batzarrak, izan dezazutela zeuren eskutik zeuren Juridizioa, naiz Lege-Auzitarako, naiz Gaizkille-Auzitarako;

eta izan dezazutela, Donostia'k duan Forua bera, eta Donostia'k dituan bereizkuntza ta askatasun ta usadio on eta oitura on guztiak berdin-berdin;

eta erabilli ditzazutela guzti oiek, Donostia'n erabiltzen dituzten erarik onenean bezelaxe;

eta etzaitzeltela joan, ez Donostia'k, ez beste iñungo errik eska lezaizuteken serbitzutara, ez orain, ez gero, Nere ondoren etorri litezkean Erregeen izenean, Nik Neronek eskatuta bakar-bakarrik baizik, naiz Donostia'k, naiz zuek, egin dezaiguzutela Neri edo Nere ondoren etorri litezken Kastilla'ko edo Leon'go Erregeai, Donostia'ko Errian edo inguruko gure Errietan egitea agindua dagon gauzetan;

eta Gure Eskutitz onen bidez, edo-ta onen bir-idatzi, eskribuz egindakoaren bidez, aginduz agintzen diogu, Gipuzkoa'n daukagun «Adelantado» Nagusi dalakoari, eta berdin aren mendeko Merio guztiak, eta berdin baita Donostia'ko Justizi Jaun guztiak, eta gañerako inguruko Justizi Jaun, Alkate, Juradu, Juez. Merio, Probestu, eta gañerako, gure Erreinuko Uri eta Errietako Ofizial guztiak, Gure Eskutitz au, naiz beronen bir-idatzi, esan bezela ziñatua ikusten dutenai (agitzen diegu) begira dezaizutela, Usurbil'go Belmonteko erri-tarroi, Donostia'ko eta Donosti-inguruko erri-tarrai begiratzen dieten bezelaxe, bai Juridizioari, bai Justiziarri, bai Foru ta Oitura Onai dagozkien gauza guztietan, eta babes ta anpara zaitzatela, gaur Nik

ematen dizutedan Nere Eskutitz onen indarrez; eta ez dezatela egin berak, ezta beste iñori egiten utzi ere Gure Eskutitz onen aurka ezertxo, ez iñun, ez iñoiz, ez iñola; baizik-ta Gure Eskutitz onek iraun dezala beti, orain duan indar osoan; eta iñor, Nere Eskutitz onen aurka ezertxo ere egiten ausar baledi, izan dezala Nere aserrea eta paga dezaidala, Nere Gordairurako, Kastilla'ko milla dobla urrezko, eta ortaz gañera, pagatu zueri ere, egindako kalte guztiaren bi alako.

Eta Nere Mesede-Eskutitz au ematen dizuet, berunezko Nere silluz sillaturik.

Toro'ko Errian, Kastilla'ko Batzar Nagusietan, 1371'gn Agorrraren 11'n.

ERREGĒAK

ERREGEREN ESKUTITZA IRAKURTZEN

Aztertu dezagun, maxea dezagun orain, Erregeren Eskutitzau, Eskutitzaren itzetatik ondoren batzuek atera ditzagun.

Norbaitek pentsa lezake, egun artan Erregek emen gauza berri-berri bat sortu zuala; leenago Usurbil'ik bat-ere etzegola, alegia.

Bañan, ikusi dezuten bezela, Eskutitzak berak erantzuten dio puntu oni naiko argi. Usurbil ba zan leen ere. Egun artan Erregek bere juridizioaren jabe egin zuan. Bañan, izan, Usurbil ba zan. Eta izen bat ere ba zuan: orain duana bera: USURBIL... Erregek izen arri eraxkun bat ipiñi ziola ezik: BELMONTE: BELMONTE DE USURBIL. Eta ba zituan bere mugak ere, bere lur mugatuak; eta bere lur mugatu aietan ba zuan bere ondasun: bere errilur, bere baso, bere larre, bere ur ta iturri, eta bere bide, bere galtzada. Idazkiak berak dio ori naiko garbi; «Leendik dituzuten muga berak ditzala bere muga».

Bañan geiago oraindak; ba zituan bere Legeak ere —Usadiozko Legeak, ori bai, orduan oitzen ziran bezelakoak, alegia; bañan benetakoa Legeak—; begira nola dion Eskutitzak berak: «Leengo Usadioak ditzala bere Usadio».

Geiago oraindak: ba zenduten usurbildarrok, zeuren Eliza, gaur bezelaxe, «San Salvador» zeritzana. Ala dio Erregeren Eskutitzak: «Usurbil'go «San Salvador» deritzan Kolazioko biztanle, bizilagun eta parrokiak, egin dezatela «San Salvador» deritzan Kolazio ortan, Erri berezi, bildu ta ormaduna.» Ba zenduten, beraz, leen ere, zeuren Eliza, Eliz Parroki —ez Ermita, zenbait lekutan (Lasarte'n adibidez) zuten bezelakoa— Parroki-Eliz formala baizik.

Orra, Erregeren Eskutitzetik aterata, zer moduzko Usurbil ziña-

ten. Usurbil ark, Erri (orduko «Erri» formal) izateko, gauza bat bakkarik falta zuan, eta uraxe opa zion urte artan Eskutitz arren bidez Erregek: Juridizioa.

—Zer zan, ordea, Juridizio-kontu ori?

—Leen ere esan dizuet. Bañan itz gutxitan bir-esateko, erritarren eskubideak (*jus*) erabakitzeke, eta bakoitzarenak zaitzeko ta babes-teko agintea, al-izatea; orixe da Juridizioa (latiñez *jurisdictio*, *jus dicere*). Itz bitan, Alkaterik etzendutela. Zuen Alkatea, Donostia'n zegola; leen-leen, Donostia sortu baño leenago, Ernani'n zenduten bezela, orduan Donosti'n zendutela.

Ba zenituzten zeuren Batzarrak —eta ikusten danez, Paris-etxeko ariztian, Eliz-atzean egiten zenituzten— zuen erriko ondasunak gobernatzeko; bañan gaizkilleak eta lapurrak pertsegitzeko ta kartzelatzeko ta juzgatzeko ta zigortzeko, etzenduten eskubiderik.

Guzti ori Erregeren esku zegon, eta Erregek inguru ontan guztian Donostia'ri emanik zedukion. Orixe zan orduko emengo egoera. Etziñaten utsaren urrengo zerbait; ba zenduten zeuren izaera jator; bañan detalle ori falta: Alkatea, Juridizioa. Eta, berriz esanda ere, orixe zan aurtan seireun urte Erregek eskuratu zizuten detalla.

MILAGRO BATEN EGILLEA

Gipuzkoa'ko gañerako kolazioak XVII gizaldian logratu zuten erri berezi, beren juridizio osoaren jabe egitea: Erregeri millaka errealak ordainduaz logratu ere nola logratu zuan Usurbil'ek eskubide ori, ez XVII gizaldian, leenago, irureun urte leenago, XIV'-ean?

Norbaitek pentsa lezake tarte ortan erriko gizon aundiren batzuek ibilliko zirala: Atxegatarrak, adibidez. Atxegatar oiek, ba dakizute Usurbil'go «Aaide Nagusiak», *Patientes Mayores* zirala; Gipuzkoa guztian ezagunak, inguruko Aaide Nagusiakin «familiko» egiten ziranak; ots! Zarauz'ko «Zarauztarrakin», Iraeta'ko «Iraetatarrakin» Elgoibar'ko Olasotarrakin; Zizurkil'go San Millandarra-kin —gero biok bat egin ere bait ziran—. Ortaz gañera Atxegatar oiek San Salvador Elizaren Patroi izatera ere iritzi bait ziran.

Atxagatar oiek izan ote ziran Erregearengandik Usurbill'entzako «Erri Bildu» izateko mesede ori logratu zutenak?

Galdera onen erantzunak, ezezkoa bear du izan. Gauza jakiña da, garai artako Aaide Nagusiak Erri Bilduen etsai izan oi zirala. Ain zuzen, Erri Bilduak Gipuzkoa'n eta Bizkai'an Aaide Nagusiak gogor-egiteko sortu ziran. Atxegatarrak, beraz, etzuten lagunduko Usur-

bil'en —berak bizi ziran lurrean— beren kalterako izango zan Erri Bildurik sortzen, edo grazi ori Erregearendik logratzen.

Beste zerbait izan zan tarte ortan. Zer? nor? Itxura danez, pausu artan etzan ibilli, Errege Usurbil'i mesede egiteagatik, Donostia'ri bengadizu egiteagatik baizik.

Enrike'k bere anai Pedro'rekin izan zuan gerrate artan —gerrate luze samarra izan bait zan eta gora-beera aundikoa— Donostia beti ta beti etsai izan zitzaion Enrike'ri. Donostia'k —ta bidezko ere ala dirudi bear zuala— Gipuzkoa'ko Arma-Plaza zanez, beti ere Errege «ofizialarekin» egon bear zuan; eta Errege «ofiziala», Pedro zan. Eta gertatu ere, ala gertatu zan. Donostia'k aal zuan guztia Enrike'ren kontra egin zuan. Eta Enrike'k, Errege izatera iritxi zanean, ez bait zuan berealakoan aaztuko, Donostia'ren bere kontrako egoera ura. Eta, ain xuxen, ola azaltzen da, gerra bukatu eta andikan bi urtera, Enrike aserreak Donostia'ri Usurbil kendu ziola. Orren antzeko beste bengadizu geiago ere egin bait zituan gure Errege «Mese-degilleak» baztarretan bere kontrako zenbait erri ta Jauntxorekin, batzuei kendu ta besteai emanaz.

Gure kasuan izan zitekean usurbildarren diplomazi apurren bat tarte ortan. Usurbil'ek probetxa zezakean egoera politiko ura bere alde. Dana dala, usurbildarren diplomaziagatik, edo Erregek egun aietan Donostia'ri zion tirriagatik, kontua da, Usurbil orain seireun urte, erri berezi ta era guzitako bere buruaren jabe egiña gelditu zala, Gipuzkoa'n dozenaka erri besterik berreun urtez Tolosa'ren eta Segura'ren eta Villafranca Ordizia'ren kolazio xume jarraitzen zutelarik. Egiazko milagroa.

ARTZAI-KULTURA

Une ontan egoki izango da, Gorosabel histori-zaleari zuzenketa bat egitea: Asieran entzun diogun zerbaiten zuzenketa, ain zuzen. Go-goan dituzute aren itzak: «Usúrbil, EN SU ORIGEN, era una mera colación de San Sebastián». Itz oiek, Usurbil Donostia'ren barruan sortu zala esan nai dute...

Usurbil, bere asieran —*en su origen*— artzai-erri danez, Donostia baño askoz zaaragoa da. Donostia ba dakigu, Nafarroa'ko Santxo «Jakintsuk» 1180'gn. urte-inguruan sortu zuala. Eta sortu —leen ere esan degu— itxas-baztarreko portu izan zedin, Bayona'rekin salerosketa, komertzio, egiteko; eta orrekin batean, Donosti-inguruko lurretan leengo artzantzaz gañera, nekazaritza sartzeko. Usurbil, berriaz, bere izaera jatorrez, aspaldi-aspaldi artako urte aietan, artzai-erri zan —Arratzain ta Mendizorrotz-aldean—; merkatari-erri ta nekazari-erriak baño zaaragoa. Orregatik esan degu itzaldi onen asie-

ran, Usurbil, Donostia'ren zati izan baño leenago Ernani'ren zati izan zala —Ernani artzai-lurralde luze ta zabalaren zati... millaka ta millaka urtez.

Jakiña: guk emen diogun artzai-lur ori, ez dator iñungo papeldokumentutan. Eta orregatik ez du aitortzen, ez aipatzen ere, Gorosabel'ek. Dokumentuetan arkitzen ez duanik, ezer berak ez bait du aipatzen. Bañan guk ba dakigu, dokumentuez gañera, ba dagola errien historia aztarnatzeko ta xurgatzeko beste arrastorik eta iturririk: Etnologia, batez ere. Eta Etnologiatik dakigu —eta ondotox jakin ere— erriak nekazari baño leenago —millaka urtetan zear— artzai izanak dirala, Euskalerrria bezelako mendi-lurretan batez ere. Ortik dakigu, Donosti-plazako merkatariak baño eta Donosti-inguruko artigatako nekazariak baño ere zaaragoak dirala, Donosti-inguruko mendiarteko artzai-erriak, Usurbill'en antzeko erriak. Ori bai: Ernani'ko artzailurralde zabal ta luzearen barruan, geroko Donostilurrak berak ere asiera artan Ernani-lur izan ziran bezela. Orregatik, ain xuxen, Donostia'ren izena lenengo aldiz aipatzen dan dokumentuan, Donostia'ri «Ernani'ko Donostia» esaten bait zaio: *Sanctum Sebastianum de Hernani*.

Gauzak ola dira.

Orain, ori ere bai: batzuren-batzurentzat «Artzai-erri» izatea, gauza xixtriña dala, eta, bear bada, orretxegatik etzuala Gorosabel'ek aipatu naiko.

Bear bada, bai; bañan hitoria jator batean, xixtriñak izan, naiz aundi-ederrak izan, berdin-berdin aipatu bear dira gauzak.

Eta artzai-kontuak xixtriñak diran ala ez, ori, azterketa on bat egin gabe, ezin diteke erabaki. Artzai-erriak ba zuten beren kultura; eta oso interesgarria gañera. Euskalerrriari dagokionez, esan bait dezakegu, gure kultur zaarrik interesgarriena, artzai-garaikoa degula, bere oñarri, zuztar ta iturburua artzai-garaian duala (2).

Gizadi osoari buruz ari gerala ere, gizadiak artzaiari zor dio, ain aberastasan-iturri aundia dan artzantza bera; ots! abere iizien ezitzea, eskurakoitzea —dala ardia, dala beia, dala zaldia, dala txerria, dala olloa, dala katua, dala zakurra, dala astoa— eta artaldeak sortzea; artaldea, alegia, bere ondorengo guztiakin —dala esnearen gatzatzea, dala gaztai-egitea, dala artillea ariltzea eta illagiz galtzeta-puntua egitea etab. etab. Gizadiaren ekonomiaren garrantzi aundirako gauzak bait dira guzti oiek.

Euskal-kulturari gagozkiola, berriz, gure Folklorearen zatirik jatorrena, artzai-garaikoa degu: dala olerki errikoia, dirala doñu, dan-

(2) Ikus LECUONA MANUEL: "Añorga en la Artiga de San Sebastián". Conferencia: Imp. Arrieta. San Sebastián, 1957. pág. 7 seq.

tza, ipuiak... gure Izkuntza bera, gure Euskera, bere aditz arrigarriarekin, eta izkuntzaren barruan gure bertsolaritza... Guzti ori, artzai-garaiko Folklorearen baita degu.

Ain zuzen —eta orain Usurbil'i eta bertsolaritzari gagozkiolarik— nun arkitu liteke Euskalerrri guztian beste ballada bat, bertsolariz ain oparo ornitua dagonik, Usurbil'dik Orio'rañoko ballada baño? XIX Gizaldian, gauza jakiña da, Pello Errota aundiaren neurri-neurriko bertsolaria —askorentzat bertsolariz ere bai, baño batez ere gizatasunez bere ofizioan malla goragokoa— Artikola'ko Udarregi izan zala. Eta ez bait da Udarregi bakarrik; ballada berontakoak ziran, baita Olloki bat, eta Saikola bat, eta Errikoetxe aita, seme ta illoba, eta Errekondo, eta Benta, ta Itxaspe ta Gaztelu etab.

Guzti ori ez bait da utsaren urrengo zerbait, errien kultura neurtu nai danean. Eta guzti ori artzai-kultura jatorra da. Ezin jo liteke, beraz, kultura xixtriñetaz olako malla goreko kultura erriko bat.

Gorosabel aundiak etzuala jakin, olako kultura bat bear bezela neurtzen, ez da arritzeko gauza. Gorosabel, ezer bazan-ta, gizon juridiko bat zan, lege-gizona; orregatik aren historiak beti ere lege ta juridizio-kutsu aundia dute.

Gañera orduko Historiografiak —orain eun-da berrogei urteko Historiografiak— etzien Etnologi ta Etnografiari bat ere garrantzirik aitoritzen. Jakin ere, orduko historiografoak ia etzekiten, Etnologiarik munduan zanik ere. Barkakizun da, beraz, Gorosabel'ek artzai-garairik aipatu ere ez egitea.

Barkakizun da. Bañan gaur bego gauza ontan: Usurbil artzai-garaiko erri jatorra dala; Usurbil'en jatorria, Donostia baño zaaragoa dala; Usurbil etzala Donostia'ren barruan jαιο.

Eta jarrai dezagun aurrera.

ERREGEAK GIPUZKOAN ERRI BILDUAK SORTZEN

Erregeak ikusten ditugu Gipuzkoa'n Erri Bilduak, *Villak* sortzen, Erri Bilduen sorrerako Eskutitzak ematen, eta Eskutitzakin baitean, baita bakoitzari bere Foruak ere.

Nola egiten ziran orduan gauza auek?

Ikutu dezagun orain puntu au.

Gipuzkoak, bere Batzar Nagusien bitartez gobernatzan zuan bere burua. Bañan, ala ere, Gipuzkoa bera ez, Erregeak baizik azaltzen dira Gipuzkoa'n (eta berdin Jaunak Bizkai'an) Erri Bilduak sortzen. Zergatik Erregeak? zergatik Gipuzkoa bera ez? Nola egiten ziran orduan gauza auek?

Gipuzkoa, histori-zaleak aitortzen dutenez, bere buruaren jaundia-jabe zan orduan bere bizitzan, bere Erri-bizitzan.

Bañan errien bizitzan ba zan arlo bat, zer-egin bat, gure Gipuzkoa'k (eta berdin Bizkai'ak ere) besteren esku ipintzen zuana: gerra, Erriaren defentsarako gerra, Gerrako Ministerioa. Gerra erabakitzea, gerra deklaratzea, Gipuzkoa'k bere esku izango zuan; bañan gerra eratzea, organizatzea, gerra bera egitea, ori Gipuzkoa'k inguruko Erregeren baten esku ipintzen zuan: bein Nafarroa'ko Erregeren eskuetan, bein Kastilla'ko Erregeren eskuetan (Erregeren beraren eta gipuzkoar mutillekin egiteko) ortarako dotatzen bait zuan Gipuzkoa'k Erregea ondotxo. Bizkaiak ere berdin egiten zuan Haro'ko Jaunaren bitartez.

Ortaz gañera, Erregeren esku ipiñi oi zan orduan, baita, Justizia ere, «Justiziako Ministerioa»; ez justizi arrunta, justizi txikia —ori erri bakoitzeko Alkateak egiten zuan— Justizi aundia baizik: ots! apelaziokoa, eta gaizkille aundien ta iltzalleen kontrakoa.

Gerra ta Justizi ori, gipuzkoarrok Erregeren eskuetan ipintzen genduan; ori bai, Ministerio ortarako guk geurok aukeratutako Erregeren eskuetan zala Nafarroa'koa zala Kastilla'koa.

Bañan —gauza guztietan bezela— ibillian-ibillian eta ezarian ezarian, bi gauza oien bidez, Errege Jaunak beren eskubideak gero ta geiagotzen joan ziran, arik-eta XVIII gizaldirako lekurik geienetan Errien izaeraren jaun-da-jabe zearo izaieraño iritxi ziran arte. Espaiña'n esan bait diteke, XVIII gizaldi ori ezkerero zearo baztartuak billakatu zirala, Aragon'go ta Katalunia'ko ta Kastilla'ko Korte edo Batzar Nagusi famatu aiek, gure Euskalerrietakoak ez bezela; XVIII gizaldi ori ezkerero esan bait diteke *Real Consejo* zeritzan «Erregeren Kontzeilloak» despatxatzen zituala Erreinuko gauza guztiak, gureak ez beste, XIX gizaldi-erdira arte.

Bañan gure artean ere, bi gauza aien bitartez —Gerra ta Justiziaren bitartez— Errege Jaunak gauza asko ta asko beren eskuz egitera iritxi ziran, eta auen artean bat auxe: Erri Bilduak sortzea. Begira zer bidetik, gutxi-gora-beera.

Errien defentsa eratzeak gutxienez eskatzen zuana, Erriak ormaz, murallaz esitzea izaten zan —Erririk aundienak, alegia— eta nuncan-nuncan gatzeluak eraiki, beren Alkaideakin.

Eta, ala berean, baita Justiziak ere gauza bera eskatzen zuan: gaizkilleen kontrako kartzelak eta Auzitegiak; eta ez nun-nai, Erri Seguruetan baizik, aiek ere beren Alkaide ta Probestu ta Amabiakin.

Orra, beraz, nola Erri Bilduak egitea, Erregeren eskuetaratu zan, ezarian-ezarian eta ibillian-ibillian, Gerraren eta Justiziaren bidetik.

Neurri ortan —leen ere esan degu-ta—, Gipuzkoa'n, Nafarroa'ko Errege batek —Santxo «Jakintsu'k»— sortu zigun Donostia'ko Erri Bildua: 1180'gn urte-inguruan sortu ere.

Urrengo Gipuzkoa'ko Erri Bildua Ondarribia izan zan, Kastilla'ko

Alfontso VIII'ak sortua, 1203'gn urtean. Urrango biak Getaria ta Motriku izan ziran, aiek ere Alfontso VIII'ak sortuak, 1209'gnean.

Lau Erri auek, kostaldekoak dira —orduko Erregeak Kostari asko begirutzen zioten; andikan bait zan orduan etsai-arraiskurik aundiena—. Ortara, gure Kostaldean ba genituan lau Plaza seguru: Donostia'z gañera, Ondarribia, Getaria ta Motriku: lau Plaza portudunak, eta aietan, bi, Donostia ta Ondarribia, gazteludunak.

Lurraldeko Errian txanda, andik puska batera arte etzan iritxi. Eta lurraldeko Erri Bildu oiek, Nafarroa'ra begira egin zituzten orduko Errege kastillarrak: Tolosa, Ordizia'ko *Villafranca*, eta Segura, 1256'gn urtean; Kastilla'ko Alfontso X, «Jakintsu» zeritzanak egin bait zituan, irurak urte berean, eta irurak Nafarroa'ra begira. Eta andikan laister, Errege berak Mondragón-Arrasate, 1260'gnean; eta andikan zortzi bat urtera, Errege «Jakintsu» berak, Bergara 1268'an.

Eta, aizkenik, andikan puska batera, eun-da iru urtera, egiña da beste aien antzera Erri Bildu, zuen Usurbil: 1371'gnean. Erregea ba dakizute: bañan esan dezagun berriz ere: Enrike Trastamara'koa, beste izenez «Mesedegillea».

ATXEGATARRAK

Atxegatarrak nortzuk ziran, gutxi edo geiago jakingo dezute noski.

Atxegatarrak, Usurbil'en, geroko Sanmillandarren aurrekoak ziran: Elizako Patronatua zutenak, ots! Apaiza izendatzeko eskubidunak.

Etxea, ba dakizute nun zuten: Usurbil'go erribera-erriberan; gaur oraindik zutik dago, «Barón de Sangarrenena» deritzan Jauregi galant-ederra, leenagoko «Atxega-Torre», gero baserri biurtua, bere aldamenean daukala.

Atxaga-torrearen atze-aldean, ibai-ibaian, bein baño geiagotan burruka garratzak gertatu bait ziran, oñeztar ta gamboarren artean, eriotzak ere izateraño. Begira, nola dakartzian gertaera oiek Lope Garcia de Salazar'ek bere «Las Bienandanzas e Fortunas» deritzan liburuan, Aaide Nagusien arteko burrukak aipatzean:

«La primera homezida que hubo entre ellos, fue, que Martin Lopez de Murua, que era Mayor del Bando de Oñez valía mucho («*Balio aundiko gizona zala*», *alegia*), e levantáronse contra él todos los Gamboynos, e hobieron grandes homezidas, e pelearon en el vado de Usurbil, que es arriba de Orio, e, pasando Martin Lopez (*Murua'koa*) en su caballo, fue herido de una saeta por la cabeza, e cayó muerto del caballo en medio del vado; e, como los suyos lo

vieron muerto, echaron todos a fuir, e quedó él e otros de los suyos muertos en poder de los enemigos.»

«Vado de Usúrbil» dalako ori nun dagon zuek jakingo dezute, nik baño obeto, bañan Atxega-atzeko ibai-troxua da, iñolaz ere.

Beste leku batean onela mintzatzen da Lope Garcia de Salazar bera:

«Después desto hay memoria, que se juntaron en aquel lugar de Usúrbil, todos los dichos Bandos de Oñez e Gamboa, e que pelearon en aquel vado de Usúrbil, todo un día; e a las veces sacaban los unos e los otros del vado; e que morieron allí muchos bueños de todos; e que fue allí dexarretado Ochoa Lopez de Balda el Viejo (Ganboatarra); que se partieron con la noche, e sacáronlo los suyos por muerto, e así escapó de las dichas feidas.»

Atxegatar oiek etzirala, Usurbil Erri Bildu egitearen zale izango esan degu.

Eta, izan ere, gure Errege Enrike'ren egunetan bertan, Aaide Nagusiak, Gipuzkoa'ko zenbait paperetan, baserrietan milla gaiztakeri egiten azaltzen zaizkigu, baztarrik-bazter nai zuten lapurreta guztia egiten; eta orregatik erriak kexa ziran, eta estuera artan Erri Bilduen babes-billa zebiltzan Jauntxo aien kontrako. Ori garbi azaltzen da, besteak beste, Segura'ko eta Arrasate-Mondragoe'ko zenbait paperetan.

Begira, nola mintzatzen diran Segura'ko paperak:

«Los cabdillos de los Bandos de Gamboa e de Hoñaz... mantienen muchos escuderos andariegos et malfechores, de los quales rescibimos muchos males e agravios... Suelen tomar ganados e aves e otras cosas contra la voluntad de los dueños.»

Eta Arrasate-Mondragoe'koak oraindikan garratzago:

«Vivimos en servidumbre oscura e muy desaguisada con los males e daños e furtos e robos e fuerzas e desaguisados, que rescibimos de los Ricos Homes e Caballeros e Escuderos poderosos que viven e entran en la dicha tierra e en la comarca.»

Mondragoe-inguruko errixkak dira ola mintzatzen diranak. Eta oker aundi oien kontrako, gauza bat erabakitzen dute: guztiok Erri Bildu baten babesean jartzea. Erri Bildu ori, Arrasate-Mondragoe izango zan; eta babes ori eskatzen zutenak, an inguruko zazpi erri txiki ziran: Garagartza, Udala, Eremuzketa, Isasagaña, Gesalibar (Santa Ageda), Uribarri eta Oleaga; urtea, 1353, Gaztela'n Errege, gure Enrike'ren anai-erdi «Don Pedro el Cruel»; gauza onartzeko batzar-lekua berriz, Mondragoe'ko Eliza Nagusia. Orra Ixkribauaren Idazkia:

«Por nos salvar e defender de los dichos robos e males e desaguisados que rescibimos... conocemos e otorgamos, que entramos por

vecinos de la dicha Villa de Mondragón... para agora e para siempre jamás... que seamos del Juzgado e del Fuero e de la Jurisdicción de la dicha Villa de Mondragón.»

Ots! Mondragoe'rekin kolazio egiten zutela. Eta guzti ori, Aaide Nagusien gaiztakerietatik iges-egiteko. Ez da, beraz, arritzeko, Aaide Nagusiak, Erri Bilduen etsai izatea, otsoa artzanoraren etsai izaten dan bezela, eta lapurra Erriko Probestuaren etsai.

Ortaz gañera, gauza jakiña da, urteak joan eta urteak etorri, 1450'gnean Gipuzkoa'ko eta Bizkai'ko Aaide Nagusi askok, Gipuzkoa'ko Erri Bildurik aundienai «desapio» egin zietela: «Gauza baziran, etortzeko burrukara» alegia. Eta, ain zuzen, beste asko ta askoren artean, Atxegatar bat, Migel, izan zan desapio ori izenpetu zutenetan bat.

Atxegatarrak, Usurbil'go Elizaren Patronatoa izan zutela ere esan degu. Ez dakigu noiztandik eta nork emanda. Bear bada, gure Don Enrike Erregearen eskutik. Ain xuxen, Errege au izan zan, Oria'tar Lope Lopez bati. Arriaran'go Elizaren Patronatoa erregali egin ziona, bere anai Don Pedro'rekiko gerratean Oria orrek bera ondo serbitu zualako. Beste orrenbestegatik baita, Oñati'ko Konde Jaunari ere, ia-ia eman bait zion Arrasate-Mondragoe'ko Jaun izatea bera. Olakoxe esku-zabala ta «Emallea» izan zan Errege Jaun ura, bere serbitzari leial izan zituanakin.

Nolanai dala, Atxegatarrak Errege Jaunari esker-oneko izan bazitezkeion Elizako Patronatuagatik, etzitzazkion ain esker-oneko izango, beren lur-inguruan Usurbil Erri Bildu egin zualako.

«BELMONTE DE USURBIL» EDO KALE XAAR

Orain bukatu baño leen esan dezagun zerbait, Erregek bere Eskutitzean egiteko agindu zuan Erri Bilduaz: «Kale Xaarrez», alegia.

Ikusi dezute Erregeren Eskutitzak erriarentzat «ormak» aipatzen dituala: «Erria ormaz inguratu dezazutela, nai dezutenean eta al dezutenean».

Zer orma ziran oiek?

Zenbait lekutan, orma oiek, murallak, murail formalak izan oi ziran. Orla, gaur oraindik Ondarribia'n ikusten ditugunak, eta leen Donostia'k zituanak. Beste zenbait lekutan, muralla jatorrikan gabe, etxe elkarri erantsi-erantsien bitartez egiten zan erriaren murallatza. Ernani'n eta Erretereria'n gertatzen zan bezela. Olakoetan etxeak beren aurrea kale-aldera izaten zuten, eta atzea kanpo-aldera; eta kanpo-alde ortan aterik ez, leioak bakarrik baizik. Eta ola ere erria «*cercada*», «ormadun» izan diteke.

Zuen «Belmonte de Usurbil», azken oietakoa zan. Gaur oraindik ere gordetzen du olako izaera zerbait, etxeak alkarri erantsiak, alegia.

Erriko kaleetaz eta portaleetaz, Erregeren eskutitzak ez dio ezer. Bañan geroztikako paperak, Gorosabel'ek dionez, iru kale ta iru portale aipatzen dituzte. Zuek zeurok obeto jakingo dezute, nundik nora ziran iru kale oiek. Gaur, mutur batetik beste muturrera —ifaraldetik ego-aldera— kale bat garbi-garbi azaltzen da, ezker-eskubi etxeak dituala; orain, leengo etxe asko galduak bide dirala ezik; leen-ordea, dudarikan gabe, oso-osorik eta elkarri erantsi-erantsirik zeudela, etxeak berak erriaren defentsa gerrateetan ederki egin zezateken, atea kalera zutela, eta atzea, ate gabe, kanpora, andik inor sar etzedin.

Ba zan baita —eta oraindik sendo asko irauten du —Erriko Etxea ere, orain «Kontseju Zaar» esaten zaiona, bere kartzela ta guzti, etxe sendo, Torre-antzeko, itxuraz orain seireun urtekoa.

Portaleak, bi beintzat, kalearen bi muturretan ziran, gaur oraindik ageri bait dira Ego-aldekoaren señaleak, eta baita Ifarraldean «Portale» izeneko etxe bat ere. Ori zuek dakizute nik baño obeto. Irugarren baten aitamena ere bai bait da, Elizalde'ra begira dagon etxe batean.

Portaleetaz kanpora ageri dira baita, «Arrabal» izeneko beste etxeren batzuek ere.

Zertarako zan, ordea, guzti ori?

Erregeren Eskutitzak, bere asieran naiko argi dio. Itz gutxitan, usurbildarrak, gerra-garaietan batez ere, beren buruak Erri Bilduan seguruago defendi zituzten, eta ola Erregearen serbitzua obeto bete.

Erregeren serbitzua (*real servicio, servir al Rey*) ba dakizute zer izaten zan: gerra-garairako errien defentsak prestatu, etsaiaren kontra erriak indartu, alegia.

Serbitzu ortaz gañera, denbora berean, erriko jendearentzat gerra-garairako babesa seguratzten bait zan, emakumeentzako batez ere ete umeentzat. Itz bitan, Erri Bilduak, jende argalerentzako segurantzia ziran, eta Erregearentzako indarra, etsaiari gogor-egiteko.

Lekuz, zuen gaurko Kale Xaar ori oso egoki zegon ortarako, bixkargune erosoan, bere iru kale ta iru portalekin. Portale bakoitzak, gañera bere ondoan an izango bait zuan bere Portalondo izeneko Torrea, gabez erriko atea ixteko Kargodunaren bizi-leku.

Orra, beraz, nolako erri txukun, airoxo ta panpiña sortu zenduten usurbildarrok, orain seireun urte, Errege Jaunaren Eskutitz arren ondoren: bixkargune politean, aize-garbi-leku egokian, izan liteken bixta-biderik bikañenean. Zerbaitegatik ipiñi bait zion Erregek *Belmonte de Usurbil* izena... azkar asko galdu bait zitzaion ezik...

BUKATZEKO

Eta ez noa ezer geiago esatera.


Bañan bai, gure Diputazioko gizon bat gure artean daukagun ezkerro, «sugerentzi» txiki bat egitera: gaurko Kale Xaarrek —orain seireun urteko *Belmonte de Usurbil*'ek alegia— merezi lukeala ukitu maitekor bat; gaurko usurbildarren eta Diputazioaren eskutik, ikutu goxo, maitekor bat.

—Zer?

—Zerbait zaar-berritze, zerbait «restaurazio», naiz ango etxerik zaarrenetako batean, naiz leengo portaleetako bat berriro altxatzea, edo olako zerbait, SEIREUNGARREN URTEBETETZEAREN go-goangarri. Merezi bait luke lekuak, bere leengo historiaz eta gaurko turismoz.

Eta esan det, esan bear nuana.

LEKUONA'TAR Manuel'ek.



EIBARKO EUSKERARI BURUZ

Eibartarrak, orain dela urte gutxi arte, Toribio Etxebarriak bere idazkietan zioen bezala, 1961-ean, gauza sagaratu eta gizatiar guziak euskeraz erabiltzeko ohitura izan du, nahiz kalean, lanean edo etxean, Udaletxean eta zenbait bestelako elkargo batzutan bezala, hala sindikatoak baino lehen ziren langile elkarteetan, ohituraz beteriko zoko batean helduaz, mikrokosmos batean aire guzietara irekita.

Berak, gehitu zuen gai honetaz, euskeraren aldagaitza eta iraun ahal izatearen giltza, bere gramatika egiturarekin batean, kasu ba-koitzerako atzikiak, aditz jokoak eta esaeraren aldatu ezinezko parte bereziak direla. Guzti honek, harrigarritzko aberastasuna izanik, ia ez du kultura berrien eraginak hitzetan duen aldakuntzarik sufritu.

Honegatik iduritu zaigu herri hizkuntzaren era bereizgarri honek ere bere tokia merezi duela gure lanean, dituen bereizkuntzen berriak arinki emanez, hala literaturan euskalki honek izan duen lantzeari buruz, eta era berean literatura orokorrean herriko semeen emaitzaz.

BERE BEREIZKUNTZAK

Sarreran esan dugun bezala, euskera izan da eibartarren ohiturazko hizkuntza, behinik-behin gure garaira arte. Eibartarren euskera arrunta erderagatik zeharo mordoilotua denaren uste okerra oso zabaldua dago, azaleko hitzei bakarrik begiraturik, erromanzeetatik hartuteko hitz batzuegatik, bizitzako beharretan har-emanak aberats adierazteko ahalmen berezi bat ematen duten hitz eta aditz jokoan akaburik gabeko ugaritasunaz oharitu gabe.

Eibarko euskalki mota honi buruz, idatzitako agiriak oso berandukoak dira, zeren ez doaz XVIII-garren mendetik harat. Larramendik, bere *Corografía de Guipúzcoa*-n, 1754-garrenean idatzitako lana, euskalkiei eskaintzen dion kapituluan, Gipuzkoakoari partikularzki, eibartarren euskera bizkaitarrari erantsia seinalatzen du: «En Elgoibar y más en Eibar empieza el dialecto de Vizcaya en mucha parte *eman eutsan, egin eben, buruagaz*, etc., y corre por Placencia...»

Erdi-Aro garaian, taldeen gerratean, Akondia izan zen Oñaz eta Ganboar taldeen burruka lekua, 1390-ean, nondik sortu zen populuan zabaldu zen «Akondiako kanta», guduaren oroiz eta honela hasten zena: *Akundia, lejarra[...]ga lejarbaga*, Iburguen Katxopinek eta Lope Garzia Salazar-ek kontatzen dutenez. Eta L. Mitxelenak jasotzen du *Textos arcaicos vascos*-en 69-gn. orrialdean. Kanta hau, behar bada, izan zitekean Eibarko euskeraren testurik zaharrena, baina gorde ez danez, ez dakigu ez bere forma, ez bere egiazko funtsa.

Gaur, ezagutzen ditugun formarik zaharrenak, eibartar euskera arkaikuko joeraz, Arrateko kanta zaharren letrak dira, guregana ahoz-ahoz heldu direnak. Eibarko pertsona zaharrek gogoratzen dituzte. Eta, beretarik, zaharrenak eta interesanteenak noski *Arrateko zelai-ko / bai floridadea! / Andixik gora dago / zerura bidea...* hasten direnak. Oharrekin jasoak ditu I. Omaetxebarriak *Sobre el poema viejo de Arrate*-n, *Eibar* aldizkariaren 61 zenbakian (1963); eta Aita Donostiak 1921-ean, orduko *Zeruko Argia*-ren 32-gn. zenbakian.

Mogalek, *Konfesio eta komunio erakasteak* (1800) liburuaren hitzaurrean Larramendirenen antzerako oharrak dakarzki, baina, hitzetan, Elgoibar, Eibar, Vergara, Mondragoe eta abar, gipuzkerarekin kutsatuak direla adierazten du.

Geroago, Luis Luziano Bonaparte printzeak argitaratu zuen hizkuntza atlasean (Londres, 1863), Eibar, Bizkaiko euskalkiaren barrutian agertzen du. Eta gai horretaz jakingarria da, L. L. Bonaparte eta bere laguntzaile zen Aita Uriartekok elkarren artean izan zuten gutunezko har-emanak. Bio-bibliografika oharrez A. Juan Ruiz de Larrinagakok argitaratu zituen, *Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte* izenez Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, tomo X (1954), 231 orrialdea eta ondorengoak. Bereziki, 1859-ko maiatzaren 14-an (279 or.) eta ekainaren 18-an (281 or.), Eibarren mintzatzen zenari buruz ari da, eta Bizkaiko euskalkien artean jartzen du. Lan hau, era berean, Lehen parteko *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, I (1954), 35-106 orrialdeetan.

Andima Ibiñagabeitiakok eibartarren euskeraren laudorioz idatzi zuen artikulu maitagarri bat, *Eibar'ko euskeraren alde*, Caracas-ko *Irritzi*-n argitaratua eta *Eibar* aldizkarian 22-gn. zenbakian (1959) berriz argitaratua. Eta Sebero Altubekok Eibarren erabiltzen diren arkaismoak goraltzen ditu eta erabiltzen den gramatika sistema Fr. Bartolome Madariagakok (1768-1835) erabili zuen aditzean aurkitzen dio kidetasuna, bereziki bere *Ikaskizunak* (1816-1819) izeneko plaketan Markinako haranean erabiltzen denari Durango aldekoari baino berdintasun gehiago bilatuez. Lan hauek, *Eibartarrak*

eta euskera izenez, *Euskera*, V-gn. tomoan (1960), 61/65 orrialdeetan ikusi zuten argia.

Eta Nikolas Ormaetxea «Orixe», gehien harritu zuena, familia eran itanoka erabiltzen den aditz jokoa izan zen, batez ere emakumezkoei nokan, *Karmel* aldizkarian agertu zuen bezala (ikus, iraila-urria, 1960).

Zoritarrez antzinako idatzirik gutxi dugu. G. Mujikaren *Monografía Histórica de la Villa de Eibar*-en 209-gn. orrialdean irakurri ahal izan arren, «...sesión de 13 de octubre de 1743 se dice que se ponga en el libro de elcciones en lengua vulgar vascongada en acuerdo de la Junta particular de Tolosa sobre tabacos, y que este acuerdo se lea cada año por el secretario del Ayuntamiento antes de la elección de capitulares. Así lo ordenaba la misma Junta en el apartado 15.º de su resolución», baina dirudien ez zen bete. Urte batzuko ondoren, 1754-tik 1758-ra Pedro Cano Mucientes-ek, Gipuzkoako korrejidore zelarik, elezinoetarako erderaz eman zituen ordenanza munizipalak, Eibarko Udalak herritarrei ezagutzera emateko bertako euskerara itzuliak: *Ordenanza Munizipalak Euskeraz, Elezinuetarakoz*; eta aipatu dugun *Monografía*-n Mujikak berriz argitaratuak, 464/466 orrialdeetan, garaiko garbizalekeriaz kutsaturik, «detestable euskera» batean zeudela iruditu zitzaizkion. Ordea, idazkiaren zenbait hitz jatorren artean ditugu, gaur galduak diren batzuek ere: *idakorri*, irakurri; *irago*, pasatu; *Urtarrila*, enero; *oste-runtzian*, osteantzian, bestelakoan; *auttuba*, autua (baina eginkizun baterako hortara izendatua bezala); eta abar. *Legez*, gaur *letxe* (*legetxetik* bihurtua); *deuzena*, gaur *detsena* (*deutsena*-ren laburpena); eta abar, aurkituko ditugu. Interesanteak benetan Eibarko bizkaierazko euskalkiaren formen berezitasunak estudiatzeko.

Baina Eibarko euskalkia nola den adierazten duen estudiorik sakonena Toribio Etxebarriari zor diogu bere *Flexiones verbales de Eibar* lanagatik, *Euskera* aldizkariaren VIII-IX tomoan (1963-1964), 53/138 orrialdeetan. Era berean hitzeri buruz ere, egila beraren lanak zerbitzen digu: *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, 658 orrialdeko liburu batean, Euskaltzaindiaren *Euskera*-ren X-XI tomoa (1965-1966), 10.000 fitxa inguruko lana hornitzen duena. Beste emaitza bat, garrantzi gutxiagokoa, Eibarko burdina-langintzako hitz teknikoek, Juan San Martín-ek *Euskera* III-gn. tomoaren (1958) 141/158 orrialdeetan; IV-gn. tomoaren (1959) 127/138 orrialdeetan, eta beren gehigarri labor bat *Eibar* 50-gn. zenbakian (1962).

Eskerrak Toribio Etxebarriakok bere bizitzako azken urteetan eraman-onez egin zuen lan luze eta kementsuari, gaur herri euskerraren estudio osoa dugu, eta iturri honetara jo beharra dute ondorenean euskalki hau ezagutu nahi dutenek.

Azkenengo egoera eta aldaketeri buruz I. Laspiurrek emanak ditugu «Z. Argia»n (n.º 456, 1971-XI-28, 14 orr.) *Eibar euskalduna* izenburuz eta «Eibartarra» izenordearen pean.

LITERATURA LANTZEA

Aipatu ditugun ordenanza munizipaletaz gainera, XVIII-garren mendearen erdialdera, hamazortzigarren honen bigarren partean, Eibarrek bere seme ospetsuen arteko du Juan Antonio Mogel eta Urkitza. Gurasoak markinarrak zituen. Bere aita, Eibarren midiku zenbait urtetan eta haietako 1745-garrenean jaio zen Juan Antonio. Apaiz egin zen eta euskal literatura eta hizkuntzalarien lanetara oso-osoan eskaini zen. Gilen Humboldt-ek Euskal-Herriko gizonen artean hizkuntzalaririk bikainenetakotzat eduki zuen. Filolojia lanetarik aparte, lan sendoa du euskeraz, Gipuzkoa eta Bizkaiko literatureraz. Erlijiozkoak ditu lanik gehienak, hiztegi eta latin klasikotik egindako itzulpenak. Baina bere lan nagusia, euskal literaturaren aberastasunez betea. Justo Garatek esan zuen beragatik, *La época de Astarloa y Moguel* saiakeran: «Galdetuko balidate: Zein dala uste duzu zuk zientifiku aldetik begiratuta erderara itzultzeko euskal libururik interesanteena?, nik PERU ABARKA hautatuko nuke zalantzarik gabe...» Eta Juan Antonio Mogelen bizitza eta laneri buruz egin diren lan anitzen artean berezietakoa, euskal probintzien kronista zen Karmelo Etxegaraikok, 1925-ean, Mogeldar idazleak gaitzat zuelarik egin zuen Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia dugu. Zeren Juan Antoniok bi iloba idazle zituen, bere irakaskintza pean landuak: elkarren artean neba-arrebak ziren Juan Jose, beste zenbait lanen artean *Baserritar eskola*-ren egilea, eta Bizenta, Esopo-ren alegiak itzulirik *Ipui onak* hornidu zuena.

Juan Antonio Markinan hil zen, Jemein-go erretore zelarik, 1804-an. Eibarrek omenezko bilerak eskaini zizkion 1959-an bere bizitza eta lanen estudioekin, eta bertako hitzaldi eta gaztigapenek *Euskera*, V-gn. tomoan (1960), eta bertatik egin zen liburu apartean ikusi zuten argia.

Bizente Agirre Gisasola (1829-1907) eibartarra, midiku eta euskaltzalea, D. Ziriako, Eibarrek itzal handia gordetzen dion beste midiku ospetsu honen aita. Ez dugu ezagutzen euskeraz idatzi zuenik, baina euskalari bezala kolaboratu zuen *Euskal-Erria*-n, 1882 eta 1887 tartean, Jose de Guisasola izenordearen pean, eta saiakera lanekin liburu bat osatu zuen, *Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural y el problema de la palabra* (Eibar, 1898). Pilatu zituen materialen artean Eibarko aditz eta hitzei buruzkoak nabari

ditzakegu. Luis Luziano Bonaparte-rekin har-emanak izan zituen. Biblioteka aberats eta herbesteko zenbait hizkuntzalariren gutun artxibu baten jabe zen. Biblioteka eta artxibu horretatik ez zen ezer salbatu azken gerrateko erretzatik.

Romualdo Galdos Baertel (1885-1953), eibartar jesuita eta poli-glota, euskerazko letrei kementsu ekin zion, baina bere testuak eibartar era eta esaeraz beterik ba daude ere eta eibartarra zen guztiari begirapen handia izan, euskal literaturako era orokorra erabili zuen. Historia gaietaz idatzi zuen Eusko-Ikaskuntza aldizkariko orrietan, eta beste zenbait aldizkaritan euskeraz eta erderaz. Euskerazkoetan, beste zenbait lanen artean, *David'en abestiak*, *Jesus aurraren lenengo itzaldia*, *Ezkontza* eta abar aipa ditzakegu, beren artetik berezigarriena noski *Garikoitz-en bizitza* (1923), Etxeberri-renean oinharriturik gipuzkeraz jarria.

Torbio Etxebarria Ibarbia (1887-1968), formazioz autodidakta, eibartarren euskera gehien landu izan duena. 1965-ean, Euskaltzaindiak, bere laguntzaileen arteko hartu zuen, lehen aipatu ditugun aditz joko eta hiztegi lanegatik. Hauetatik at, beste zenbait lanen egilea dugu bai erderaz eta bai euskeraz. Euskeraz landu duen literatura osoa eibartar herrikoiz du. *Euzko-gogoa*, *EGAN*, *Oleri* eta *Eibar* aldizkarietan kolaboratuaz argitara zituen lehen lanak, batzuetan «Arratetiko bat» izenordez. Eta bere lan nagusia *Ibiltarixanak*. *Arrate'tikuen izketango alegiñak*, Zarautzen 1967-an argitaratua, bost partez osatzen da: I eta II-garren parteak epikoen eran dira, munduaren sorreratik hasi eta gizonaren sorkundez jaioterriaren kondaira ingurura arte, Eibarko eta Amerikako irudiz bukatzeko, zientzia, kondaira eta ele-zaharrak elkar nahasturik. III eta IV-garren partean, egia eta fantasiaz, ibilerak kontatzen ditu (hauetarik hartzen du *Ibiltarixanak* liburuaren izenburuz), gertaerak, autuak, neurri askotako bertsoz. Eta, V-garren partea, Bibliatik eta Nafarroako Margaritarren ipuietatik, itzulpenak. Lehen lau parteak bertsoz, erderazko zenbait aurkezpen eta oharrez, eta bosgarren parte hitz-lauz. Agiri ederra, egilearen gertariak, pentsaerak eta sentierak, bere biziaren eta ibileren gaindi adieraziak. Gainera, Eibarko euskalkiaren kemen ederra du. Eta, *Ondakiñak*, lan argitaratu gabea, Eibarko oroitzazko eta ibileren bertso gehiago biltzen dira, eta hitz-lauz Erdi-Aroko ipui gehiago zenbait hizkuntzetatik zuzenki itzuliak. Gehienak, jatorriz, *Ibiltarixanak*-ren paperetatik aldendurik gelditu zirenak dira. Bere-tan biltzen dira lehenago, arestian aipatu ditugun aldizkarietan, sakabanaturik argitaratu ziren lanak ere.

Beste erabiltzaile batzuek ere ba ditu Eibarko euskerak, baina hemen, hil ziren idazleekin mugatzea nahi izan dugu.

Behar bada euskera galtzeko arriskuak eraginik, baina gaur, Eiba-

rrek idazle talde ederra du, gehienak gazteak, maizenik literaturako euskera batuan idazten dutenak.

Herri literatura lantzoeren sail aipagarri bat izan ziren, antzina, ihauteri taldeak, andanaka, kantatzeko eurak euren bertsoak antolatzten zituztela, eibartar eta gipuzkera euskalkiz nahastuak, itxuraz bertsoaritzaz eraz kutsaturik. Kanta hauetarik gehienak galdu dira, eta iraun dutenen artean hobereenak bezala gogoratzen ditugu, *Eibarko erria* eta *Armero kanta*. Bertsoaritzako mota berekoak dira langile mugimentuaren *Forjariak* izeneko kantak 1911-ko oporketa handietan kantatzen zirenak. Gogora ditzagun, langile mugimentuaren eragintza aipatu dugunez, sozialismoaren lehen sarreran Eibarko euskera herrikoiz plazetan mintzatuaz, jarraitzaile biltzen jardun ziren Akilino Amuategi eta Toribio Mendizabal.

Bertsoaritzara zegoen zaletasuna argi nabari zaigu Eibarko P. Orue eta S. de Diego-ren inprimerietan joan zen mendearen azkenalditik argitaratzen ziren bertso-paperetan, Tolosako Auspoa bertso sortetan ikus genezakeanez, maiz Eibarko etxe inprimatzaileen argitasuna dutela. Hemendik noski ihauterietako taldeak beren bertsoak osatzeko era. Horrez gain, eta hau oso kontuan hartu behar dugu, ezagutzen zen, eta oraindik ba da, eroriaz badoa ere, kobla; bertsoaritzarekin erregela desberdineko bertso mota, Santa Ageda kantak eta Arrateko erromerietan entzuten diren pandero-jotzaileenak. Baina hemen ez zaigu ardura herri literatura adieraztea eta kapitulu honi bukaera ematera goaz.

Baina lehenago adierazi nahi dugu, euskeraren etorkizuna aski ilun agertzen bazaigu ere, eibartar euskalkiaren berezitasunak kondairara igaro direla esango genuke. Aipatu dugu euskeraren galzorian aurrean ba dala, berbizkunderantza, goraka datorren eragintza mugimendu bat. Baina berritze honetan euskera batu orokor baten alderako kontzientzia bat nabari da, txoko-euskeraz larregi axolatu gabe. Euskera biziko bada batasunetik izan behar bait du. Baina ez, neurri on batean hizkuntzaren funtsa diren, hitz, atzizki, esakera, eta egituraren beste zenbait partetan, Eibar eta bere inguruak euren aldetik eskain dezaketen aberastasunaz ohartu gabe. Eta berbizkunde horren agiri gisa hor ditugu: ikastolen gehitzea, adin guztietarako jendearentzat euskera ikastaroak, alfabetatze kanpaina deitzen direnak, eta abar; baina batez ere egunetik egunera gehitzen datozen idazle eta irakasle gazteak, era guztietako euskal aldizkarietan kolaboratu eta beste herri batzuetakoekin har-eman estua gordetzen dutelarik. Hobetu eta bizkortuko ahal da, Eibarko euskalkiak bere huneetik aski eskaintzen dion, euskeraren enbor orokor horren berbizkundera!

S, BASAURI eta J. SAN MARTIN.

CALIFORNIA-ko 1893

urteko Astekari eskualduna

Joan den mendean ezpeletar bulartsu batek, Goytino jaunak LOS ANGELES-en astekari bat fundatu zuen, eskuaraz dena, *California-ko Eskualherria* izenarekin.

1893 urtetik 1897 urtera iraun zuen, eta bere berri zerbait, hemen aipatu nai dugu; bai eta merezi laudorio eta oroitzapena egin nai, *Goytino* eta *Biscailuz* euskalzale bihoztuneri.

Urte guti lehenago, ESKUALDUNA astekaria Baionan atera zuen Etcheberri jaun batek, 1885 urtean. Beraz, Ameriketara sentitu zuten euskaldungoa hemen bezain laster. Los Angeles-ko paper eskualduna, berriez kanpo, hango eta hemengo eskualdunen arteko berrien gainera, ilearen (artilearen) merkatalgoen berri ematen du, zehetasun bitxi batzuekin. Komentarioak ere oso intresgarri dira, ordukoen ideien arabera; geienean konserbalarien ideiak, demokratikak sahestuz; bainan inñolaz ere, hemengo euskaldunen estiloko, orduan Europakoak, gerla izigarri bat pasatuxeak ziran, karlostarrak geienak; eta ikusmoldea ere etzen zabalegi.

Hemen Europan gutik ezagutzen dute California-ko aldizkari hori; VINSON-ek bere *Bibliographie* aundian haren aipamena ekartzen du xoil-xoila, eta guti geiago jakiten da. Beraz pitxi bat da gure artekoentzat; Iohn Bilbaok ekarri micro-film batetik kopiak atera izan dira; bata Reno-NEVADAn dago, bestea Baionako *Musée basque* delakoan eta bestea Pariseko Bibliothèque nationale-an, uste onean bagaude.

Irakurleen atsegiñerako, zati batzu eman gogo ditugu; huna orai-koan, lehen numeroko tituloa eta GOYTINO buruzagiaren agur amultsua; gure ortografiara apur bat apailatua, deus aldakuntzarik batere gabe itzetan:

CALIFORNIA-ko ESKUALHERRIA

Berriketari Eskuaduna, aguertzen dena Larunbate guziez
Lib. 1. - N.º 1. - Los Angeles, CALIF. Uztailaren 15.^a. 1893

«ESKUALDUNERI!: Egun arguitaratzen dugu, lehen aldikotz,
»berri-ketari hau, gure herritarren onetan. Bertze nazione guziek be-

»ren kazetak badituzte eta gu hainbertze garelarik hedatuak Paci-
»fico-ko kostan, ezda yustu baizik yunta gaiten denak berri-ketari ba-
»ten medioz. Gure intresak —hemen bedere— igualtsuak dire eta
»gure mintzo ederraren medioz, bat bertzearen berriak yakiten ahal
»ditugu gure lekutik iguitu gabe.

»Paper hau aguertuko da astean behin. Bihotzaren erditik erre-
»gomendatzen dugu Herritar guziera; laguntza arin batekin izanen
»dugu laster berri-ketari sano bat, eguiazki *eskualduna*, bai manerez
»eta bai sentimenduz. Gure indar guzia gure mintzo sakratutik heldu
»da. Gure Eskuara ederrari yarraikitzen guiren denboran, gure arra-
»za yonanen da edatuz eta emendatuz bazter guzietan.

»Sekulan baino geiago gure hizkuntze zaharra hari da hedatzen
»mundu izkinetan. Allemania-ko hiri nausian, Berlin-en Eskualdun
»paper bat, EUSKARA deitzen dena, aguertzen da ilabete guziez.
»Europa-sabant [Jakintsu] famatuenek' iskribatzen dute paper hortan
»eta hekien artikulua leituak dire plazerekin, erresuma guzietan.

»Ameriketan, kazeta eskualdunak sortzen ari dire —emeki bai-
»nan segurki—, Habana-ko herritarrek beren LAURAK BAT badute,
»Espainiako laur probentzietako semeen ohoretan. Baguira Califor-
»nian berean, bortz mila Eskualdun bederen. Bortzetarik batek paper
»hau harturik, CALIFORNIA-ko ESKUALHERRIA hedatuko da
»laster eta denbora laburrez berri-ketari aipatu bat izanen da.

»Hortakotz galdatzen dugu gure herritar guzien laguntza eta bo-
»rondate hona. Paper hau edatuz, gure sorleku maitea ohoratuko dugu,
»eta gure mintzo xoragarria.

»Edo hitz batez erraiteko: Eskualdunen eskuetan dugu CALI-
»FORNIA-ko ESKUALHERRIA uzten; non izanen da leku ohea-
»gokoan?—J. P. Goytino.»

Egillearen arkibidea *Los Angeles*-etan: 330-New High Street.
Barreatzaileen aurkibideak: *Los Angeles*-etan, Mr. M. Ordoqui, 300-
Aliso karrikan. - Mr. D. Larrondo, 515-New High karrika. - Id.
Mr. D. Hiriart, 312-Aliso karrika. - *San Francisco*-n: Mr. J. F. Ypa-
rragirre, 1.312-Powell karrika. - *Tehachapi*-n: Mr. J. Iribarne. -
San Diego-n: Mr. P. Etcheverry, 628/5 garren karrika.

Beste berri bitxi batzu emanen ditugu, nahiz yadaneko zahar di-
ran. Hala ere atsegin da, noizean behin, duela 80 urteko berri zenbait
irakurtzea; orduko ikusmoldea oraingoarekin konpara leike eta ondo-
rioak atera, ezen gauza berri guti gertatzen da mundu motx huntan;
nihil novum sub sole, zioten erromanoek, eta konparazione eta ber-
dinkarazetik ezta guti ikasten. Bidenabar loria da, euskara eder eta
jostakin horren iastatzea ere.

1893 urte hortan USA-n autespenak eta elezioaneak pasatu be-
riak ziran eta demokratak nagusi atera; bistan da gure GOYTINO
ezpeletarrak (ESKUALHERRIA astekariaren buruzagia) ezdituela
geiegi maite; halaz ere, etzen itsu errabiatu horietakoa; beste sail
batean, Franzian errepublikano izatea ezdela kalte baitio eta elezio-
netan errepublikano prestu on bat autatzea komeni dala.

Huna HAN HEMENKA deitu sailatik, astekariaren 1 numeroan:

«Gure administrazione *demokratak* (ezkerrak, USA-rako) ongi
»hainitz eguin behar zuen. Ioan den elekziona ieneraletan Demokra-
»tak arrangura ziren negozioak ez zirela xuxen johan, jendea pobre-
»tuz zohala, kapitalistek languilea iresten ari zutela eta faltadun ba-
»karrak, hekien arabera, Errepublikanoak.

»Martxoaren 4-an, 1893-an, Morde Grover CLEVELAND gure
»President deituak podorea eskuetan hartu du eta administrazione
»guzia, orai *Demókrata* dugu maluruski (zorigaitzez). Kanbio horrek
»ezdu deus onik ekarri. Bazter guzietan jendea arrangura da; Ban-
»koak hesten ari dire han eta hemen, komertzioa arront eroria da,
»nehork ezdu ilea (artilea) erosi nahi eta hola seguituz gure Nazio-
»nea (USA) errekarat johan da.

»*Congress*-a bilduko da heldu den Aboztuaren 7-an Washington-en
»eta pensatzen dugu legue-eguiteek zerbait on eguinen dutela. Legue
»onen beharretan gara.

»...Panama-ko eskandalak ixildu dire; izpiritu guziak, heldu di-
»ren Deputatuen elezionetaz okupatuak dire (Franzian); uda azke-
»nean Eskualherrian, gorriak eta xuriak batailatuko dire. Baxenaba-
»rren, M. Luis *Etcheverry* Mauleko deputatua, presentatuko da *Ber-*
»*doli* jaunaren kontra.»

[*Etcheverry* hori ESKUALDUNA astekari xuriaren fundazailea
izan zen.]

«Lapurdin halaber, jaun Diharassarry, Ortzazeko erretora eta
M. Harriague Hazparneko Mera borrokatuko dire.» [Diharassarry
hori eskal idazle on bat izan zen, *Maiatzeco ilabetea* deitu liburux-
ka xarmanki idatzi zuena, oker ezpanago. Hala ere, politikan buru
beroa izan zen eta saltsa maite; makurrak ere izateraiño bere buru-
zagiekin.]

Numero berean Espainiako berri bitxi batzu irakurtzen ditugu:

«ESPAINIAN.—Maiatzaren 29-an izan da Iruñian edo Pampa-
»lonan bilkura handi bat, aduanako leguen kontra. Prozesionean
»[Manifestazioan], bederen 4.000 presuna baziren, denak oiuka;
»Biba Nafarroa! Biba gure fueroak!»

«...Deputatu karlista don Campion (!), eskumikoz joa izan da
»beren lagunez, zeren izan baita Erreguinaren [Maria Cristina] bi-
»sitatez Madrillen.»

«...Don Lorenzo D... de Isla, abokat famatua, deitu dute berri-
»ki [izendatu dute] *Donostiako* alkate.»

«...Iruñian edo Pamplonan hasi dute Erotelui bat, kostako dena
»miliun bat pezeta.»

«...Parisen, Uztailaren 14-eko pesta arras tristeki pasatu da aur-
»ten. Berrikitan guertatu diren kasailek [Pariseko Poliza eta 3.000
»estudianten arteko borroka] jende zuhurra hoztu dute. Lehen aldi-
»kotz, Errepublikaren egun hortan, Parisanoek ezdute iluminazione-
»rik izan. Jendea uzkur [erabe-lotsati] zen karriketarat ateratzeko,
»beldurrez zerbait guerta. Bisai guziak [aorpegi] ilun ziren eta klarki
»agueri da Frantsesak ezdirela sobera kontent, egun hautan kapita-
»leko karriketan, Estudiantak jostatu diren manera itsusiez.»

«HAN HEMENKA.—Sukar beltza [Fiebre amarilla edo Vómito
»negro] fierki hari da Brasil-en. Santos-eko hirian, denbora apur
»hontan, 300 presuna hiltzen dire eritasun hortarik egun guziez. Gor-
»putzak ehorzteko ordez, botatzen dituzte itsasora eta baia guzia
»jende hilez estalia da. Usaina bera aski da pestearen hedatzeko.»

«Joan den ortzegunean baziren Alexandria-ko hirian 85 presuna
»kóleraz joak eta ospitaletan 40 hil dire eritasun hortarik egun har-
»tan. Gaiz beretik 5 presuna hil dire Toulon-eko hirian, egun berean.»

Bigarren numeroan GOYTINO zuzendari eta euskaldun letra-
dunaren bi bertsu bihotz altxazaile argitaratzen dira:

ESKUARA!

I

Oh eskuara maitea! azken urte hautan
Hedatzen ari zara mundu izkinetan.
Iakintsun handienek, asko lekuetan
Zaituzte irakusten beren Eskoletan.

II

Eta gu zure haurrak, zeruaz deituak
behar guinuke izan bihotz gabekoak
Behin hastiatzeko zure hitz goxoak?
Otoi beira guitzala hortarik Iinkoak.

Krime ikaragarri bat aipatuko dugu numero beretik, funtsean ikas dezagun, duela 80 urte orai baino airoskiago azaltzen zutela berri bat; eta gainerako berrietan, ikusteko, astekari realista bat egin zuela ezepletarrak urrun, Ameriketara; hango eskualdun geieneri zoazkoten gaiak emanez, eta merkatalgoaz, ileaz, baratzetako zeren prezioaz mintzatuz. Ez oraiko gisan, baserritarreri bi sos inporta zaioten gai filosofikoak emanez, gisa ilun batean eta beren nekazalgo propioen gaiak ixilduz. Unibersitariok eta intelektualek ere bere saila behar dutela, eta ez beti beiaz eta ikulluaz berbaegin; ...ados nago, bainan ez paper osoa jakindurizko artikuloz bete. Huna berria:

HERIOTZE ITSUSIA

«Ioan den larunbate goizean, Luca SCISCHI, gure hiriko italiano »batek hil du tiroka bere andrea eta guero bere burua. Luca ezkon- »dua zen duela sei ilabete eta maiz kasailatzen zen (aserretzen zen) »bere andrearekin. Egua erraiteko, ardura mozkorra zen.

»Ioan den astean, andrea franko izitua zen eta bizpahirur gaez »etxetik kanpo lo eguiten zuen, kusina (leengusina) baten etxean. »Larunbate goizean auzoek aditu zuzten hirur edo laur tiro eta be- »rehala poliziak ingurikatu zuen etxea. Ofizier bat sartu zelarik »etxean, harritu zen ikusirikan bi gorputz etzanak sukaldeko zolaren »gainean eta denak odolez estaliak. Luca-ren andreak bazuen haur »bat lehen ezkontzatik eta kreatura gaixo hura nigarrez han zagon »ahuspez amaren gorputzaren gainean.»

«Hirur urte baizik ez izanagatik, marraskaz zagon bere ama doha- »kabearen ondoan eta bixta horrek zituen, auzo guzien beguierat »nigarrak ekarri. Astelehenean ehortzi dituzte bi gorputzak. Katoli- »koak izanagatik, Iaun apezpikuak errefusatu du Hilerrri katolikoan »ehortzeko permisionea. Luca SCISCHI aspaldi gure hirian bizi zen; »bazuen fortuna eder bat. Aditu dugu, bainan ezdugu uste eguia den, »apez arnegatu bat zela. Fama hori eguia baldin bada, miserableak »tristeki du, hain ongui hasi bizia akabatu. Utz dezagun pasatzerat »Iinkoaren yustizia!»

Eman dezagun orai beste berri ariñago bat:

«DOÑA EULALIA.—Doña Eulalia, Espainiako Infanta, Estados »Unidos-etara yina zena Espainiako Erreguinaren partez [Maria Cris- »tina], itzuli da Madrillerat. Arras satisfos omen da errezebitu dugun »maneraz eta estonatu da gure Erresumaren (USA) handitasunaz eta »aberastasunaz.»

[Ospe aundiko izan zen Eulalia Infanta hori, adimendu argikoa, izpirituz liberala eta bai idazle ona ere, frantzesez. Bere *Memoires* deitu liburu famatuan, Madrilen Alfonso XIII bere ilobarekin eta haren aizpekin bereziki, Kortean izaten zituen asarrebideak kontatzen ditu libreki, gibelasmurik batere gabe; han Madrillen erdifeudal izpiritua zuten, eta Eulalia oso kurritua eta idekia zen. GOYTI-NOK kondatzen duen bidaia hortan preziski, konturatu zenean Cuba *beregain* utzi beharra zela, bakea sartzeko; eta adiarazi Gobernuari, *saltzea obe zela*, Madrillen arritu ziren eta aserretu; bainan Eulalia Infantak argi ikusi zuen.]

BESTE BERRI ILUN

«Bi guerlako untzi inglesak io dute bat bertzea Tripoliko herria- »ren aintzinean. *Victoria*, untzi *handiena* oso osoa urean galdu da »eta 450 mariñel, Amirala-rekin (Almirantea-rekin) ito dire. Bertze »untzia *Camperdown*, frango kolpatua da eta estatu txarrean. Inгла- »terra guzia doluan da. Ito den Almirantea, lord Tryron deitzen zen.»

Beste berri.—«Asian kólera fierki ari da. Meca-ko hirian, Errea- »roa-ren 25-ean, eritasun horrekin 452 presuna hil dire. Ioan den »aste-azkenean eritasun hortaz 15 presuna hil dire Toulon-en (Fran- »zian). F. de LESSEPS. Comte Ferdinand de LESSEPS, hainbertze »eskandaletan salsatu dena (Canal de Suez egin zuena, eta Panama-ko »afer zikin haietan ere omen) arras apal da. Ioan den igandean hil- »zera zohala uste zuten. Ezta mintzatzen ahal eta haur bat bezala »da: ezduela aste hau pasatuko diote midikuek.»

Beste aldi batez, jarraikiko dugu Astekari hortatik, zenbait artikulo interesgarri ematen.

A. IRIGARAY.

Gizon bat

Berrogei eta hamairu urte zeduzkan Belaundek. Urteak zeramazkien Muñoetan bizitzen. Larraungo seme zan. Gorputzez luze eta sendo. Besoak luze, hala nola animali mota batek. Eskuak haundi eta iletsu. Bizkarra zabal eta lepoa haragiz betea. Begiak aski handi, batere espresiorik gabe. Bizarra nun nahi. Gizonek gizonak, duten intelijentziaz eta diruz neurtzen badituzte ere, egia esan, Naturak ez zuen Belaunderen buruko harietara doainik asko ixuri. Ixuri ba zuen ere, hor nunbait gelditu zitzaion zentzuen eta intelijentziaren bide erdian dauden hari mehe horietan katiaturik.

Sentimenduko gizona zan Belaunde, batipat. Lanerako beti prest zegoena. Gauza berririk sumatzen ez zuena, forma berririk hartzen ez zekiena... bainan... garbi adierazten zitzaiona xuxen egiten zuen. Barnean zeraman gizatasunaren neurri betea, indarraren bidez azaltzen zuela obekienik, uste zuen. Besoetan, gerrian eta lepo zamarrean indarra eta bihotzean ondotoxo gorderik zedukan sentimendua, beste graziarik ez zuen Belaundek. Nahiago zuen bizkarrean ehun kiloko zakua karreatu, ezen ez da bere lagunak bezala berrogei kiloko zaku-toekin ibili. Ahal duenak ahal du, eta, honela uste bide zuen Belaundek, ba zala norbait munduaren aitzinean.

Berrogei eta hiru urte bete zituenean, bertako alaba Mertzerekin ezkondu zan. Mertxe honek, beste norbat naiko zukean, bainan printzerik eta markesik ez zala erortzen harek ezar sareetan ikusi zuenean, Belaunderekin ezkondu zan. Mertxe begi bakar zan, eta esan beharrik ez dago, kondekumeenak eta pritzekumeenak ikustea baino errexago egin zitzaiola Belaunderen bizkar eta lepo lodia ikustea.

Ezkontza honetan, parterik handiena Mertzek izan zuen. Begi bakar zalarik ere, ba zuen halakoxe aire dotore bat, ots, Ebaren alaba maltzurak duten airea. Ez zan horrekin Belaunde engañatu. Ez eder zanez ez itsusi, ez baitzan konturatu ere egin Belaunde, Mertzerekin ezkondu zanean. Sekula ez zuen ezkontzerik pentsatu.

Mertxe bila etorri zitzaion... Mertxek egin zuen zoriontsu... Mertxek kanbiatu zuen!

Mutiko bat ukan zuten. Hura zan «dena» Belaunderentzat. Hura eta Mertxe. Behin baino gehiagotan iduritu zitzaion, harena ez baino Mertxerena zala haur hura, berak parterik txikiena ukan ez balu bezala haren sortzean.

Haurra sortu eta urrengo sei hilabeteetan izan zan komeria frango Belaunderen etxean. Jaio eta berehala, hain txiki, hain koxkor zekusan, deusez bat ekarri zuela iduritzen baizitzaion, bainan, denboraren poderioan haurra kozkortzen zijoalarik, «hau nere arrazakoa duk» pozez zorutzen esaten zuen. Besoetan hartzen zuen, eta besterik ez baizitzaion ateratzen, zakurrek ilargiari begira egiten dituzten bezalako aiumak egiten zizkion haurrari.

Mertxe ezagutuz geroztik, Belaunderen bizitza erabat kanbiatu zan. Kanpoz agertzen ez bazuen ere, mundu berri bat sortu zan haren barrenean: maitasunarena. Ez zezakean esan zer nolakoa zan sentitzen zuen maitasun hura... ez zan fisikoa, ez zan beatzekin uki zitekeana. Zerbait arinagoa zan, beroagoa, bihotzaren zirrikitu guztiak betetzen zizkiona. Mertxe eta haurra: besterik ez zegoen Belaunderentzat. Biok egiten zuten haren mundua.

Ezkondu bitartean, mundu bat besterik ez zuen ezagutu, beti berdina: mutil zaharrarena, neguak neguari jarraitzen dan bezala, kanbiorik ukaiten ez zuena. Ezkondu eta hasi zan harentzat bigarren mundua: haurrarena eta Mertxerena. Mundu berri honek ba zuen haren barrenean kanbiamendurik, momentu oroz, puntu diferenteetatik ikusten baitzuen inguratzen zuen oro.

Bi urte pasatu ziran honelaxe. Bi urteren buruan gauza bat gertatu zitzaion oso arrigarria. Ez zezakean konprendi! Laneko nagusia Ruiz, Mertxe eta hirurak sukaldean zeuden. Ohera joan ordu zan. Emazteak deitu zuen. «Hemendik aurrera, nerekin batera ez bainan, aldamenekoaren urrena dagoen gelan egingo duzu lo.» Ez zuen deusik konprenditu. Ixil ixilik joan zan aldamenekoaren urrena zegoen koartora lo egitera. «Emazteak baduke arrazoinik, honela jokatze-ko!...» Izan ere, mesede bat eskatu zion eta nola zezaiokean uka bere emazte xarmentari? Zuen mundu berri hura ez ahal zion emazteari zor? Laneko jefe Ruiz ia arratsaldero bere etxean ikusteak, zerbait arritzen zuen, bainan han zegoen Mertxe kezka guztiak uxatzeko. «Lanetik bota ez zezan, ongi etorrikerik txeratsuen egin beharra zegoen!!!!»

Goiz batean halaz ere, zerbait galdegiteko gogoia egin zitzaion. Zerbait adierazi... Ez zitzaion ordea hitzik etortzen. Emazteak zerbait sumatu bide zuen.

—Zer duzu aurpegi triste horrekin?

—Lo egin ahal bageneza... doi doia erantzun zuen Belaundek.

—Poste bat bezala egoten zera ohean eta zure arnasa-otsez haurra esnatzen duzu.

Arrazoin osoa zukean emazteak... berea baino lehenagokoa zan noski, haurraren eta emaztearen loa... beraz...

—Konprenditzen zaitut... ondo egiten duzu...

—Zer ondo eta zer gaizki, esan zuen garrantz Mertxek. Ez zaitut maite... obekigo esan, maite zaitut, bainan nahiko nukean indarrez, garrez eta suz ez zaitut maite.

Ez zuen hitzik konprenditu Belaundek.

—Egia esango dizut. Gauza bera zera beti ez duzu misteriorik, beti zera berdin... ez duzu ilun unerik, beti dirdai bera duzu begietan... ez duzu faltarik, beti argitan bizi zera... ez zera asarretzen ez asarretzeko motiborik ematen... harrizkoa dirudizu, ez haragizko pertsona.

Nolakoa behar nuke?

Zakar eta ezti, leun eta gogor, zelai eta malkar, gozo eta garratz.

—E?

—Bazkaria batzutan gozo eta bestetan min aurkituko zenukeana. Ni neroni, batzutan itsusi eta bestetan eder aurkituko ninduzukeana. Konprenditzen ahal nauzu?

—Ez zaitut konprenditzen!...

Hitzak neurtzen jakin bai, bainan... hitzez martirizatzen zene-kikeana.

Sekula ez zuen konprenditu Belaundek, Mertxek goiz hartan esan nahiko ziokeana. «Ez duzu misteriorik, beti zera berdin!... «Ondotxo zekien bera baino azkarragoa zala emaztea, eta arrazoinik bazukeala bere kontra.

Ruiz-entzat egiten zuen lan Belaundek. Wagoiak ustutzen zituen eta kamioiak kargatzen. Ruiz hori Palencian sortua zan. Gorputzez txiki, aurpegiz borobil, lur koloreko. Begiak txiki eta bizi; bisera urdina buruan eta bibote beltz-beltxa; sudurra begitartean sartuta bezala. Munduz mundu ibillirik zala esaten zuen, bainan, agi danez, egiago zirudien, mingain gaiztoek esaten zutena: Carrion de los Condesen estazioko jefe egotu zala alegia, eta estazioko jefe batek ikas ditzakean tranpa guztiak ikasi zituenean, Euskal Errira etorri zala. Behar hainbat eta gehiago argitasunik ba zuen kaskoan, hiruzpalau euskaldun bihotz oneko, bainan zozo, bere menpean hartzeko. Beste alde, dena irri zan Ruiz hori.

Belaunderen laguneren artean, bat ba zan aparta: Isusi zeritzan. Belaundek zitzi hainbat malezia bazukean Isusik. Gizon korritua. Frantzian eta Alemanian urte anitz egina zan. Barruko sentimenduak

erabat galdu zituenean —tapaturik gelditu zitzaizkionean, hil ezpaitira sekula egiten— Euskal Errira jo zuen. Ez zuen emazterik, ez deusik. Ruiz, begiko zikina baino gutxiago maite zuen, bainan, horra! eguneroko ogia eta ardoa ematen zion, eta hor konpon! Sentimendurik gelditu ez bazitzaion ere, ba zuen maliziarik Belaundez baliatzeko.

Gutxienik uste zanean, berebiziko hitz parrastada botatzen zuen frantxesez. Entzun eta-, parrez leher egin beharrean hasten zan Belaunde. Ba zekien Belaundek noiz eta nola esan hitz horiek, ots, wagoiak erdi usturik, oraindik hamar hamabost bat zaku handi gelditzen ziranean, alegia. Ixil ixilik, ortzak parrez agiriz, den denak deskargatzen zituen Belaundek.

Behin batean, merkantziak ikaragarritzko zaku pilla ekarri zuen. Ba zan denetarik, txikirik, haundirik. Bestean bezala, txikienei lotu ondoren, oraindik haundirik gelditzen zala ikusirik, hitz parrastada bat bota zuen Isusik. Belaunde ez zan idiaren kopeta baino gehiago mugitu. Orduan ziran isekak eta parrak! Cocu!... cocu!... cocu!...

Jakinik dagoanez, ez zuen deusik konprenditu Belaundek. Egun hartan eta besteetan eta hurrengoetan gauza bera zuen aditzen: cocu!... cocu!... cocu!...

Ordubiak bost gutxi markatzen zuen estazioko erlojuak. Noizik behin behera begira, gehienetan Donostia aldera zegoen bihurtunera begiak zorrotzurik, estazioaren aurrean zegoen postetako baten kontra hamabost minutu zeramazkien Belaundek. «Jadanik hemen behar luke» esan zuen, bainan, sarri gertatzen dan bezala, beste askotan bezala egun hartan ere berandu zetorren merkantzia-trena.

Bero egiten zuen. Eguzkiak argi zirrinde luzerik igortzen zuen estazio parera. Inor gutxi ikusten zan estazio ingurumarian. Estazioa pasa eta bertan zegoen txabola baten ondoan, hiruzpalau gizaseme ikus zitezkean lurrean etzanik. Laino txuri meheek inguratzen zuten eguzkia eta minagoa egiten zuten haren sua. Estaziora ematen zuen karretera petroleoz, gasolinaz eta mantxa zikinez beteta zegoen... Brea, zenbait tokitan altxatuta. Dena zegoen hilik bezala. Bizpahiru elbi beltz tripa handi hasi ziran Belaunderen inguruan jira biraka. Bota zuen eskua lepora eta bere hartan jarraitu zan errebueltara begira, merkantzia noiz etorriko zan zai. Hiruzpalau enaera agertu ziran zeru zabalean txioka... segundo batzuz ibili eta beroa ezin jasanez, izkutatu ziran. Katez lotuta txakurra, emazteki xahar bat agertu zan. Estazioa alderik alde ibili ondoren, banku batean exeri zan eta loak hartu zuen. Geroxeago, hiru neskak azaldu ziran, arropa arinak soinean; dudarik gabe, Donostiako plaiara abian ziran.

Zerbaiten otsik entzun zan. Begiak zorroztu zituen karrilak izkututzen ziran biurgunera eta fafafa fafafa trenaren muturra ikusi zuen. Zuzendu zuen gorputza, zinturoia estutu, ukabilla itxi eta bere parera etorri zanean, merkantziak zekarzkien wagoiak kontatzen asi zan. «Bat, bi, hiru, lau... zortzi, emezortzi, hogei eta emezortzi»... Oi bezala, berak eta taju berdinez loturik zekarzkien merkantziak wagoiak. Berdin zion. Merkantziaren wagoiak egunero kontatu gabe ezin zitekean egon. Bi pausaldi egiten zituen: hogei ta emezortzigarrena kontatzen zuanean lehenengoa, eta berrogei ta hamabosgarrena kontatzen zuenean bigarrena. Handik aurrera ez zuen kontatzen segitzen. Zertarako! Wagoiak kontatu eta gero, hogei ta emezortzitik berrogei ta hamabostera zenbat zegoen kontatzen zuen. Hamazazpi!!! Igaz baino bat gutxiago! «Ixildu zan. Erlojuari begiratu zion. «Berrogei ta hamabost urte betez gero, sua eztituko zaio eta lehengoaz oroituko da. Orduan dena «nere» izango dut. «Lau» hauek bezela pasatuko dira hamazazpi horiek eta zahartzaro guztia goxoki pasatuko dugu».

—Belaunde!... Belaunde...

Nagusia deika ari zitzaion. Wagoiak utzi eta lagunengana joan zan. Estazioaren beste aldetik plaza bat bezelakoa zegoen. Retangulo egiten zuen estazioaren paretak aldamenean zegoen beste pareta batekin. Angulo batean txabola zahar bat zegoen. Han gordetzen zituzten arropak. Txabolaren ondoan eta paretaren kontra zaku ilera handia ikus zitekean. Iñori kasorik egin gabe zakuak bizkarrean artu eta Pegasora eramaten asi zan.

—Cocu!... cocu!... cocu!...

Itzuli zan eta estaziora ematen zuen atearen ondoan eskolako maixua ikusi zuen parrez. Egia esan behar da, hasiera batean hitz horiek entzunik parre egiten bazuen ere, goro eta suminagotzen zutela eta berari bakarrik ote zegozkion behin baino gehiagotan pentsatzen egondu zala. Harri eta zur jakin zuen, maixuak esanik, hitz horien esan nahia.

Etxen reliebeak gutxitan bezala nabarmentzen ziran... bertan baleudean ikusten ziran paretan aristak. Fabriketako tximinien kea, zuzenik zijoa zeruan gora.

—Cocu!... cocu!... cocu!...

Sekula ez ta, orduantxe sentitu zuen lehendabizikoz, gizon bat ankapean lehertzeko deseoa. Gelditu zan. Arnasa artu zuen. Tripak zintzurretik kanpora ateratzen balizaizkio bezela sentitu zuen ezta-rritik gora behazuna igotzen. Aspaldidanik sumatu zuen Mertxek eta Ruizek eskuartean zerabiltena... bainan, nork zer jakin behar zuen? Ruizek zukean kulparik handiena, bainan zertarako aizatu behar zuen guzti hori Isusik? Aldamenera begiratu zuen eta ikazetan zi-

kin zikin eginik Isusi ikusi zuen. Hortzak bakarrik erakusten zituen zuri. Ladrillo bat ankapean hartu eta hauts egin-da utzi zuen Belaundek.

Zerbait eztitu zanean, wagoiak kontatzekoan egiten zuen argumentua, silojismoa ateratzen zuen orain ere. «Utz dezadan berrogei eta hamabost urte bete ditzan. Ordurako barruko sua emetuko zaio, handik aurrera «Nere» beste inorena ez da izango».

Ba da munduan, norberaren bizitza, oraingoa eta gerokoa, silojismoen bidez esplikatuta nahi duenik. Bainan, ikusten denez, askotan behintzat, norbere bizitzari egin silojismuek ez bide dituzte premisak eta besteak zuzen ezarriak. «Orain arte honela izandu da, beraz, urak bide hori segituko baitu, nik pentsatu bezala gertatuko da». Askotan gertatzen da ordea, urak bere bidetik ateratzen dirala eta beste biderik hartzen dutela. Bankero batek diruari buruz silojismorik egitea eta asmatzea, errexagoa dala dirudi. Diruaren gramatika dirudunek sortua baita eta ondotoxoa ezagutzen baitute. Bainan... Gizonak, barrenean daramazkiten prolema anitz resolbitu nahirik, nolana silojismorik egitea, hori besterik da. Ez dirudi beti asmatzen danik. Beharbada, premisak ondo ezagutzen ez ditugulako da, edo ta zirkunstantziak, medioa, biziko geraneko medioa nolakoa izango dan ezagutzen ez dugulako. Izan ere, haizea bezin aldabera izan baititezke gizonaren barneko prolemak.

Ehun kiloko zakuak deskargatzen segitu zuen. Lehen ez bezala, kolpe batean jasotzen zuen zakua bizkarrera. Bi sentimendu arras diferentek zebiltzior buruan. Biak igo nahi zuten, biak zebiltzan irabazi nahiez, biak ziran katiatzen eta Belaundek ez zekien zeri lot.

Laino txuriak gero eta handiago eta beltzago ageri ziran itsaso aldetik. Txistura sortu zitzaion bihotzean. «Brillu berdina duzu begietan... misteriorik ez duzu... «Ez zuen konprenditzen. Zeruia bera aldaberago zitekeala iduritu zitzaion. «Aldatu, kanbiatu...» Operazio hori nola mamitu zitekean, ez zuten bere begiek ikusten. Negargurea etorri zitzaion, eta momentu berean gorrotoak hartu zitzaion zainak. Ruizek ondatu zuen eta bera egun oroz Ruizentzat ari zan lanean! Negar egin!... negar egitea haurkeria zitzaion... barkamena eskatzea berriz... nori eska zezaiokean barkamenik? Zer zuen txarrik egin? Gorrotoak beste aldera eragiten zion. «Kolpe batez ken dezadan erdi bidetik Ruiz, eta orduan, ni beste jaberik ez duke Mertzek. Bainan... onartuko ote zuen Mertzek?».

Lainoak hodei bihurtu ziran eta eguzkia mendien gainetik izkutatzeraz zijoan. Euri tantoak, banaka banaka hasi ziran lurrera erortzen.

Txaketa bizkarrera bota eta estazioan zeuden burdinezko habe

batzuen kontra gelditu zan. Isusi eta besteak, txabolara erretiratu ziran. Ruiz ofizinatik irtetzen ikusi zuen. Burdinezko habeari lotu zitzaion Belaunde. Ezkerra poltsikoan sartu eta iztarraren kontra zerbait egin zuen; eskubiaz, odol egin arte, estutu zuen burdina. Ez zuen ezer pentsatzen; zerbait sentitzen zuen. Begiak itxi zituen eta dena ilunpe iruditu zitzaion. Txismistaka hasi zan. Ihurtzuria zan... Goian beherean euria ari zan.

Estaziotik bosteun bat metrora zegoen Belaunderen etxea. Erriko plaza zaharrean sartu, pasatu, eta Isasi zeritzan kalean zegoen. Langile jendea bizi zan. Kalea, estu, luze eta iluna zan. Zapata konpontzaile, zurgin, narruegile, taberna ilun, bizpahiru arrandegi, harategi eta honelakoek osatzen zuten kalea. Nun nahi ikus zitekean pantaloirik, alkandorarik zintzilik, eguzkitan legortzen. Kale eskinetan ba zegoen ur zikinik, kanalean bezala bai zijoazten kale barranean zegoen putzu zikin batera itotzera. Ur zikinen kolorea, marraskiloek atzetik uzten duten arrastoa bezalakoa zan. Kafe eta olioaren usia nabaitzen zan nun nahi. Beharrik ari zan euria!

Erruz edan zuen Belaundek arratsalde hartan. Buruko hariak zerbait meheagotu egin zitzaizkiola iruditu zitzaion. Begietan, bestetan ez bezalako dirdaia sortu zitzaion. Gauzak konpontzea uste baino errexago zala iruditzen zitzaion. «Onez onean, zerbait esan banezaio Ruizi!» Ideia hori nola ez zitzaion lehenago bururatu, harritu ere egin zan. Gorrotoa ez bainan errukia bezalako zerbait sentitu zuen Rusizengana.

Etixerako bidea artu zuen. Pausoa behin baino arinagoa zuen. Urrena ikus zezanean, zerbait esango zion. «Mertxe bere emazte zan... haurra bere seme... zoriotsu bizitu ziran hura sartu arte. Hura joanez gero, lehen bezala segituko zuten bizitzen.»

Dudarik ez zegoen Belaunderentzat. «Argumentu hauek onartuko ditu Ruizek. Pakean utziko du Mertxe. Irri bat maltzurra du Ruizek, bainan ez bide da lehen kolpean ematen duen bezin maltzurra. Beraz... etxean gehiago ez sartzeko esango diot.»

Farolek argitzen zuten kalea. Tabernetan sartu atera zebillen jendea, siraz burua tapatuta. Kale barrera ganduz beterik zegoela ematen zuen. Automobil bat pasatu zan dena zipriztin. Aurpegi ezagun bat ikusi iduritu zitzaion. Dena zegoen ixilik. Pauso batzuk eman zituen. Ruizekin zegoen buruz buru. Eztarria legortu zitzaion. Huraxe zukean momenturik onena zerbait esateko. Irri egin nahi zuen, bainan ez zitzaion ezer atera. Bihotza jauzika hasi zitzaion. Ilunpeak kemen pixka bat eman bide zion eta begiak jaso zituen... Ruizenekin topo egin zuten, Ruizen begi bizi bizi eta beltz beltz haiekin. Berehalaxe jetxi zituen behera. Ruizek, biseraren azpitik irri maltzurrez begiratzen zuen. Gora ez bainan behera zijoala zerbait sentitu zuen

Belaundek. Ixilik egotea obe zukean noski. Momentu hartantxe Ruizek hartu zion aurea.

—Ikusten denez, hizketan hartzeko gogoz zaude. Berehalaxe egingo dugu, ni ere e-txe-ra bai-noa. E-txe-ra bai-noa...

Ondoeza bezalako zerbait sentitu zuen Belaundek.

—Hain zuzen, Mertxek inbitatu nau, eta zai daukat.

—Mertxek ez dakit zer eskubide duken...

—Zu besterik izango baziña, besterik izango litzake hura ere, erantzun zuen irriz, bainan garratz, eta bere bideari lotu zitzaion. Mertxeren etxean sartu zan.

Goragalea egin zitzaion Belaunderi. Bertan gelditu zan bospatsei minutuz. Ez zekien zer egin, zer pentsatu. Zer egin zezakean? Urrutiko farol baten argitan hiruzpalau errainu ikusi zituen. Buruak ez zion inora eragiten... momentu hartan instintoak eragin-da joan zan haien atzetik. Lagunartean bihotza arinduko zitzaion, edo eta gogortuko. Zerbait egitea zan kontua.

«Bertan akatuko banu! «Zintzur ondoko zaiñak puztu egin zitzaizkion. Izerdi hotza zetorkion masailletatik behera. Gorputzaren pixua ez zuen sentitzen. Lehendik zerbait edanik ba zan ere, gogozago eskatu zuen orain beste botilla bat. Ardoaren izpirituari grazia aparta aurkitu zion. Besoen pixua ez zan deus. Ehun kiloko zakua, oilo luma baitlitzan jaso zezakeala iruditu zitzaion.

Bapatean, emazteaz oroitu zan... haurraz... Ruizez. Ruiz azidente bat besterik ez zitekean. Hamabost urte haiek laister pasatuko ziran... gero dena izango zan zorion, parre, maitasun... Oraingo hau momentu txar bat besterik ez zitekean. Odola bihotzean bildu zitzaion... negargurea egin zitzaion. Bainan ez zuen negarrik egin. «Mertxe!... Mertxe!...» Baso bat ardo ustu zuen. Begiak malkoz busti zitzaizkion. Burua mahaiaren gainean utzi zuen... besoekin inguratu zuen... Zer pentsatzen zuen Belaundek? Ordurarteko gorrotoa txorakeria iduritu zitzaion. Maitasunak salbatuko zuen iñolaz ere! Hortzak estu estu egin-da, bere besoekin Mertxe bilduko bailuen bezala egin zuen. Maita zuen!... haurra!

«Et-et-et-et... Honelakorik ez nuen sekula pentsatu. Hori egin-da forma berri bat artuko dut, kanbiamendurik agertuko dut emaztearen aurrean...»

Altxatu eta kanpora atera zan.

Euria ari zan goian beheean. Noizik behin tximistek urratzen zuten zeruaren iluna. Karreteraren bapainua lurrin bihurtuta zerurat ari zan farolen argitan.

Arin zijoan etxerat. Eskuak bularrean bildurik zeramazkien. Berotasunik sentitzen zuen gorputzean. Mertxe hantxe zedukan atean zai. Horrela pentsatzen zuen Belaundek. «Maitasuna gal diteke...

bainan berriz aurkitzeko itxaropena ez diteke gal.» Orain, galdu ez bainan berriro aurkitu zuela pentsatzen zuen. Hodeirik gabeko bitzita berriro astera zijoan.

Fantasma zirudien forma itxusi bat ikusi zuen karreteraren bestealdetik. Geldi geldiz zegoen. Hortzak agiri zituen. Zugaitzaren atzean izkutatu zan.

—Cocu!... cocu!... cocu!...

Maitasun berriaren itxaropena biziagotu egin zitzaion. Ez zion kasorik egin. Isusi, maitasuna zer zan ez zekien miserable bat besterik ez zitekean. Egun hura ezkerok bukatuko ziran «cocu» guztiak.

Herriko etxeko erlojuak hamarrak jo zituen. Sukaldeko leihoan argia ikusten zan. Argi oria. «Mertxe, haurra... eta Ruiz hortxe daude... hala obe!» Poliki poliki igo nahiko zitukean eskallerak, bainan ez... bihotzak agintzen zion momentu hartan eta harek markatu bezala botatzen zuen pausoa, azkar eta bizi. Atean gelditu zan. Zer-bait entzun nahi zuen. Mertxeren boza ezta entzun zan. Aski zan! Barrura sartu zan.

Haurra lurrean zegoen eserita liburu zahar baten orrialdeak begiratzen. Ruiz mahaiean exerita eta hari begira Mertxe.

Bestetan ez bezala esan zuen garbi, «gabon!»

Mertxeri begiak zuritu zitzaizkion.

—Gabon! birresan zuen Belaundek: Irriparrez esateko ahaleginak egin zituen. Emozioak burua momentu hartantxe ilundu ziolako edo, mueka itsusi bat besterik ez zitzaion atera.

—Betiko joanik zinala uste genuen, erantzun zuen parrez Ruizek.

Umea ekarri zuen beregana, lepotik eldu zion eta emaztearen aurrean jarri zan.

—Mertxe!... Mertxe!...

Ez zan emaztearen erantzunik entzun.

—Aski sufriturik da eta utz ezazu pakean, bota zuen Ruizek.

Belauniko jarriko zan Mertxeren aurrean, malkoak ixuriko... bainan, ezzz!... hori sekula ere ez.

—Mertxe!... Mertxe!...

Aldamenera egin zuen Mertxek. Kopeta zimurtu zitzaion eta begitarte zuri zuri bihurtu. Haurra karraxika hasi zan. Ekonomikaren gaintetik jauzi egin-da su batean aldegin zuen. katu beltzak.

Pauso bat egin zuen Belaundek. Huraxe zan momentua. Parrez, bai, bainan, triste balego bezala esango zion... Esango al zion?...

—Barka na-za-zu...

Tigreek bezalatsu egin zuen jauzi Ruizek.

—Ez da barkamenik eskatu beharrik, bota zuen zinikoki. Ez diozu deusik egin. Ez zaitu maite... ez du zuregan aurkitzen ezer maitagarrik... eta kitto!

—Cocu!... cocu!... cocu!... entzun zan gau ixilean.

Eskuak erori zitzaizkion. Estomagoa goitik uholdea bezalako zerbait sentitu zuen. Begiak itsutu zitzaizkion, masaillak zuritu. Lilurak aldegin!!! Ruizen gorputza enbor igarra iduritu zitzaion. Bapatean eskua bota zuen. Lepotik eldu zion. Oinak lurrean gogor tinkatu eta indar egin zuen. «I ez aiz etxe honetako!» Ruizen lepoko ezurra karraskatu zan. Gero... lurrean odol tanta batzuk... haien ondoan hantxe zetzan hilik, zerraldo, arnasarik gabe, katu zahar baten narru zimurra bezin zimur, Ruizen gorputza.

Emazteak karraxi egin zuen... bainan... ez zuen Ruizen gorputza besarkatu. Aita!... aita!... egin zuen pozik haurrak... Belaundek, bihotzean, argi berri bat piztu zitzaiola nabaitu zuen... itxaropen berri batek artu zizkiola zainak... bainan!...

* * *

Bi guardian artean, trenean, Kastillatik barrena zijoalarik, mundu berri bat zekusala iruditzen zitzaion. Behinere ikusi ez zuen mundua zan. Mundu berria. Bainan, ez berea. Eta halaz guztiz ere esagun, erdi pozez erdi negarrez zijoala.

Giltzapean sartu zuten...

S. GARMENDIA.



"AGERI" - tik "IZAITE" - rat

Udaberria bazuan han harat eta ilun nabar hura uda beteko ilun nabar baten usainekoa zen. Mutikoeri begira iragaiten zuen denbora hura, MARKES, gure mutil zaintzaleak, luze atxemaiten zuen. Ehun bat haur, jarririk leku batean bi orenez atxikitzea ez da lan bat errexat! Beti bazen bat edo bertze, lana utzirik, zolapeko ulien kondatzen hasten zenik edo ondoko lagunari hitz bat erran gabe bortz minuta pasa ez zezakenik. Orduan behar zen uli kondatzailea lurrerat jauts-arazi, mihi zaluegia ixil-arazi.

Egun, nahiz estuda ixtante fini zen, ez zen mutikoen artean, bertze egunetan, tenore berean, hedatzen zen nardamena. Berinak haundi haundia idekiak ziren. Egunaz egin saparen ondotik atera aize xuri freskoak, berekin zakarran aments amultsu ezti batez beteua zuen estuda guzia. «Ainsi parlait Zarathoustra» Nietzsche-en liburua irakur zezaken Markes-ek. Mutilen artean bazabilan harat eta hunat, kopeta gora, ezpainak zimur... Gizon haundiek, indartsuek, arrazakoek, heiek merezi zuten bizitzea! Bainan zonbat herbail munduan! Hoiek ziren Michel Zabaleta, Pierre Olazo, Jean Argain mutil gai-xoak, beti puni, beti azken, beti zikin eta piltzar, geiago eztzizan ikus estudaren zolan behin betikotz Markes-ek ezarri tristeak. Lehen bankoetan, berari hurbil hurbila, han zituen aldez Bernard Bidegain, Jakes Zabala, Hery Garmendia mutil argi eta elegantak... azken hauientzat, Markes-ek bazuen irri ezti, solas goxo! Bazuen ere, erran dezagun, jelosgo, nahiz holako sendimendurik bazuela Arrazako mutil hauen alderat ez zuen bere buruari ere aisa aitortzen!

Bazuen ere jelosko... Nor zen eta gure Markes? Jende haundietarik ote zen? Zergatik zagon Baionako ikast-etche aberatsen hortan mutil zain? Arnegi Iparragerreko seme hau ez zen aberatsetarik, hurbiltzekorik ere. Iparragerrea han nunbait, mendi erreka erroitz batean galdu etxe txar bat zen, haurrez lurrez baino aberatsagoa. Zortzi seme alaba bazituzten haziak Iparragerrean, Markes zortzie-

tan gazteena, zortzietan eskolatu bakarra zen. Bere aita besoeta-koak, Manex, berrogoi urte hartan, Nevada-ko mendietan, galdurik, artzain zagon donado zaharrak pagatuak ziozkan eskolak, «zerbait, noispait, norbaitentzat» egin nahiz, harek ere.

Gure Arnegitarra ez zen baitezpada mutil argi hetarik, ibiliaren bortxaz iraganak zituen etsaminak, nahiz oraino bere «licence en droit» ukaiteko zertifika bat falta zuen. Hogozi ta sei urte zituen orai Markes-ek eta Manex-ek ez zion lehen bezenbat diru igortzen aski haundi zela iduritzen baitzitzaion bere bizia berak egin zezan. Gobernamentuak bere laguntza ekendua zion azken etsamina huts egin eta. Bere ixtudioak fini bide nabar, diru puxka baten irabazteko zagon Markes mutil zain. Diruak eta eskolak gure Arnegitarra zintuz betetzeko orde, urguluz ezarria zuten haunpaturik, arras bere buruaz harturik. Iduri zitzaion orai jende arrazakoen mailerat igana zela, bainan huts bat sendi zuen halere bere baitan... Bere aitama gaxoak, bere zazpi anei arreba ez eskolatuak nolaz ken gogotik? Bai jelos zen zaintzen zituen abokat ete mediku seme hauietaz. Zazpi orenak jo zituen. Orai Markes libro zen, orai joan zitaiken Baionako nexkatxa pollit eta intelektualekin filosofiaz edo nik dakita zertaz solas egiterat. Mutiko ederra zen alabainan Markes eta bazakien jaun haundi gisa beztitzen. Noiz nahi jauntzi «costume» berria, egun oroz atorra xuri pollita, goizean ttattarra bat, arratsaldean bertze bat. Bai mutiko ederra, jendekina, dirua bazuela sendiarazten zakiena. Manex-en diruarekin erosi SIMCA 1.000-a ez zena hor lekuko? Eta zer behar da geiago, Baionako lorerik ederrenen bere ganat biltzeko, ulia eztirat bezala? Iragan hamar urtean bazuen zombait panpirin enganaturik!

Libroago izaitteagatik hirian ganbara bat alokatua zuen. Oinez jina zen egun lanerat, nahiz maite zuen bere oto berri ederrean ikusia izaitea. Atera zen, mirailaren aitzinean bulta ederra egonik, elurra bezein garbi, haritz arbola bezein jaun. «Parc des sports» -etik barna itzuli haundiaren egiteko xedea hartu zuen egun. Ilun nabar hura ezta zen eta segur ederrak zitaizken, bide hori hartuz, Markes-ek ikusiko zituen hiru haritz ondoak. Barneko hutsa betetzen bezala zioten haritz hek, bere barnean zerbait edo hobeki «norbeit» iratzartzen. Ardura bide hura, nahiz luzeena, hartzten zuen gure Arnegitarrak. Iparragerriko etxe aintzinean bazin haritz bat gaitza, Markes-en aitatxiren aitatxik landatua.

Nehor haundirik ez zen gertatu Errobi zubirat artean, bainan bere haritzak, etzaterat zoan ekiaren leinuruez jauntziak, luzaz eta luzaz goxatu zituen beren ospe eztian. Bertze mundu batetako loriaz eginikako bake batean bertze aldi bat oraino ezarria, bazuan Markes. Irria eskapatu zitzaion gora gora bere ahotik aditu zituelarik

hitz hauck «Zer gerta laike nitaz, nere haritzak ez banitu?» Irria eskapatu zitzaion, bainan konprenitu ere, ximixta batean bezala, Nietzsche-ek eta andre ederrek betetzen ez zioten barneko hutsa haritz heiek betetzen ziotela, deusek ezin kenduzko barneko herstura, haritz heiek, ixtant batentzat bederen kentzen.

Orai Errobi-ko zubirat ari zen heltzen. Ibaia dirdiran zagon iguzkiak etzan aintzin ahantzirik han utzia iduri zuen zetazko birbira batean. Harat hunat zubiaren gainean bazebilan oto eta oinkari. Markes ez zen berehala ohartu «Nive» kasernako zubiaren alderdian jendea ari zela metatzen. Kaserna aintzinean, guardian zagon soldadua jina zen zubiraino, bere arma eskuan, eta dena jestu han ari zin. Hurbildu zen Markes ere eta bertzek bezala behatu urerat. Esku batez adar ondo bati lotua, burua doi doa uraren kanpoan, kurentak batetik bertzerat eremaiten ahal, aisa ezagutu zuen Urbeltzeko Mayie, Iparragerreko lehen etxeko alaba.

Zubitik begira zaudenek iduri zuten bazakitela zer egin behar zen, bainan batek ere ez zuen egiten. Zendako jauzi egin ote zuen Markes-ek? Bere lehen auzoa itotzerat ez uzteko? Eierikari abila zela hango jendeari erakusteko? Azken arrozoin hunek bazuen bere pizua, bainan funtserat eta nork daki?

Mutil gazteak aisa atera zuen Mayie eta ur bazterrerat orduko menturaz, ehun baziren, kuriosak, bi arnegitarrak inguratzen zituztenak, jakin beharrez... Mayie gaixoa, hotzez, beldurrez ikaran Markes-en besoari bi eskuz aztaparka lotua, han zagon. Gure mutil zaintzaleak konprenitu zuen deusek ez zituela esku hek laxaraziko, (Mayie-k bera ere ez zuen laxatuko, atxeman arte...) Zonbait zekunda egon zen ez jakin zer egin.

Ah! zendako bada iragana zen zubi hartarik? Hartan berean beti haunditzen ari zen jende multzoaren artean ikusi zuen Solange Delarue, nextakz elegant intelektuala; ikusi zuen ere begi kolpe berean bere jauntzi busti lohitua. Su eman baliote ere ez zuen lasterrari bortizkiago emanen! Zonbait xahar eta andre ere aurtiki zituen hain zen xixtian partitu. Hiriburua alderat ur bazterrez doan xendra hartu zuten Mayie-k bazuen aski lan ezin segituz bainan lasterka ez bazen errestan bazuan mutikoaren besoari indar guziez lotua.

Noaraino joan ote ziren ola? Hats hauntuak gazten ondo baten erroen kontra behaztopatu eta erori arte. Hata herriz jin zitzaioenean, orduan zion bakerrik lehen solasa Markes-ek eman Mayie-ri: «Hemen bederen nehork ez gaitu ikusten... Beharrik hor gertatu niz, ez zinuen luzaz atxitzen ahalko zure adarre... «Hitz horiek erraiten ez zion behatzen ere bere haur denborako lagunari. Iparragerrea ete Urbelxea auzoak ziren alabainan, Markes eta Mayie adintsuak eta tipian ardura elgarrekin jostetan arizanak. Bainan Mayie-ri behatzea,

Mayie eskoletan ez erabiliari behatzea, gogoratzea zen Arnegiko pentze, alor, baratze txar eta patarrek azpiratu, lehertu, jan laboari konkoreria... Gogoratzea zen berrogoi urtez donado eta bakar Nevada-ko desertuetan higitu Markes-en eskolen pagatzailea. Eta oroitzapen horiek Solange Delarue-k eta Bayonako Solange guziek ez zituztin jakin behar eta beraz Markes-ek ere behar zituen ahantzi.

Mayie-z zer zakien Markes-ek? Doi doia zakien Bayonan zela neskato plazatua familia batean. Nolaz eroria ote zen urerat? Hain segur urari begira jarri eta sobera ukurturik joana zen... Funtsean ez zuen inportarik eta ez zion galdatu ere... Ez, Solange heldu zitzaion gogorat, hunek ikusia zuen Mayie-rekin eskapatzen eta behar harkozen zerbait gezur aski haundi atxeman lehen bezein eder hortik ateratzeko Mayie-k tenore hartan atxeman zezazken hitz bakarrak hauxe ziren: «Markes, milesker, ba, zu izan ez bazina itoko nintzan...» eta: «Markes ez nezazula utz... burua nahasia dut... Ni-haur uzten banuzu...»

Orai iluna nunbait han eroria baitzen, gure Arnegitarrak pentsatu zuen sar zitaikela bere etxean nehork ikusi gabe. Mayie-z zer egin? konprenituko ahal zuen berak... hitzik ez zion erranen, bere bidean motz motza ezarri eta fini.

Xutitu zen Markes, xutitu zen Mayie. Mutikoa aintzinean, nexkatoa ondotik beldu ziren Markes-ek ganbara alokatzen zuen etxean aintzinerat. Bere leio perde eta pareta xuriek, bi estaiako etxe pollit hura Aldudar amerikano batzuek erosia zuten. Berak, aitamak lau haurrekin eta aitaso zaharrarekin gaineko estaian bizi ziren. Markes-i alokatzen zioten ganbara lehen estaian zen, bazen ere hor bertze familia bat.

Betbetan ihurzuri mutuska bat aditu zen. Hedoi beltz itsusi batzu heldu ziren itsas aldetik karraskan. Euria zen. Laster behar zen sartu.

Borta aintzinean geldituak ziren. Euria turrustan hasiko zuen ix-tante. Markes-ek pentsatzen zuen hor bederen utziko zuela Mayie-k... bainan ez, xakur bat iduri, Mayie hor zagon Markes-en ondoan. Eskua tinkatzerat aboatu zitzaion mutikoa: «Bihar artio» bat erranez. Ordu berean gaitzeko ximixta batek denak argitu zituen eta gure mutil zaintzaleak ikusi zuen lehen aldikotz hoinbertze bere ganik urrundu nahi zuen neska gaizoa.

Ximixtak Mayie-ren zaia gorri eta tuikota berdea ezin erranezko dirdira batean argitu zituen, deitoragarriago egiten zetuela ura tinta tinta zarioten ilen artetik beha zagon xakur jo behara. Zerbait pena piztu ote zuen behara triste horrek mutikoaren bihortzean? Dena den ez zen menturatu neskatoaren despegitzerat.

Alta behar zen handik lekutu. Norbaitek ikus zezaken han Mar-

kes. Ez zen baitezpada neska batekin norbaitek ikusteaz samurtuko, partikulazki neskatoa ederra balinbazen, bainan Mayie ez zen nehon etzena, hurbiltzekorik ere: zango sagarrak lodi, maingu puxka bat ere egiten kurritzean, paporik baterez, arpegi ilun bat, salamandra hutsa zen Mayie Markes-entzat.

Ikusiz Mayie gorri eta berdez, bizi sukar eta esperantzaren kolorez beztitua, irri tzar bat heldu zitzaion ezpainetarar. Mayie itsusia zen, egon zadila itsusi. Neska gaizoak egin zezazken indar guziak nunbait hartaz zerbait tirria edo gutizia sortarazteko ez ziren bakarrik debaldeak bainan oraino hobeki baizik ez zuten nabarmentzen Mayie-ren itsusia. Ezpainak gorri zitzala Mayie-k, ez ziren ezpain gorriak ikusten bainan tinda zen ikusten ezpainen gainean, tinda puska bat irri egingarri, zikingarri, nardagarri; ileak kizkurturik gibelerat bota zitzala «gure zalamandrak», bisaiaren erdi erdiko sudurra han zen sekulan baino haundiago eta makurrago gogorat emaiteko ile artaitzailerin mekanika pizua. Horra, gogorat heldu zen «mekanika» bat... emeak ar-aren bereganatzeko asmatu jukutria Mayie-k ezin gorde, ezin enplea... bere kontra baizik! Itsusia zen Mayie, egon zadila, ez zuen iguzki adar bat merexi; ez zuen urostasunerako dretxorik!

Euri tintak beti eta larriago, beti eta usuago lehertzen ziren errege bidean. Ximixtak usutuz zoazin eta orzantzaren zartak hartzen ari zuen mehatxu. Mayie ixilik zagon. Markes ez zen samur hoinbertze burrunbaz, hola Mayie-ren eta bere arteko ixiltasuna zerbaitek betetzen bezala baitzion.

Ba, «zalamandra» hura lapatin bat bezala sendi zuen berari lotua eta halako kolerak eta desgustuak hartu zuen nun indar egin behar ukan baitzuen gora gora ez oihi egiteko: «itsusia duk... duala bixtatik... Ba mundu huntan badituk bi izaite mota: maitatzea merezi dutenak eta ahantzi behar direnak; hok ditak xaharrak, xaharrak herioak bere detzala; hok elkorak, konkorrak... izan ditela hiri bereziak elkorrentzat, konkorrantzat... hok dituk eriak, sekulan sendatuko ez diren eriak, heien ganbaren murruek izan ditela lodi kanporat pleinurik ez dadin entzun... hok dituk jende herrestak, beren bizian diru puxka bat aldaratzeko izan ez direnak... hok munduko Mayie «zalamandra» guziak... O ¡Zuek! mundu huntako ontakinak (excrement), leku! Gizonak, «behar bezalako gizonak» bizi diten burua xut eta lurrerat begiak apaltzean ikus dezatela zerbait garbi! Zarathoustra-ren katixima ontsa ikasia zuen. Nor da funtserat eta ez dekienik katixima hori?

Neska gaizoa han berean utzirik igaiterat zolan bere ganbararat. Hartan berean ezin erranezko karraska batean su zirimola gorri batek sutan ezarri zuen bidearen bertze aldean zagon gazten ondoa, bi

gazteri ere inarrosaldi bat ona emaiten ziotela eta bat bertzearen kontra botatzen. Ai, ei bat gaitza bota zuen Mayie-k. Markes bera ikara batek hartu zuen. Senditzen zuen orai berari kontra neskatooaren gorputz beroa... «ez izi, Mayie, pasatuko da, murmurikatu zion (lehen hitz amultsua Mayie-ri erraiten zuela), eta pentsatzen zuen: «hau ere jendea... arima bat ukanki hunek ere... betikots egina hau ere... sekulan ezin suntsi... «Eta berak sobera jakin nola erran zion Mayie-ri: «Goazin ene ganbararat, han egonen gira uhar han iragan arte.

Mayie-k onartu zuen. Zer egin zezaken bertzerik? Izialdura sobera hezurretan barna sartua zuen, memento hartan ihes leku bat, ihes leku zen ber, errefusa zezan. Obazakien ba estimu ttipitan zaukala Markes-ek eta ezin bertzean zeramala bere ganbararat. Bertze orduz, egun guzietako bere hartan izan balitz, ez zuen sekulan Markes baten desarrañatzerik onartuko, bainan egun ez zen «bere» hartan. Mayie-k sinetsia zuen eta onartua esklaboen kasta-koa zela. Hala zen, ontsa zitaiken hala... (Onartua arras?...) Alabainan azkarrek uste badute heiek dutela bakarrik bizitzeko dretxoa, ainitz ahulek arrozoin emaiten diote.

Barne-bidean (couloir) egon behar izan zuek Mayie-k Markes-ek bere arropa bustiak kanbiatu arte. Ate artetik eskapatzen zen argi zirrindari begiak landatuak, han zagon barne bide beltz hartan, harrialdurak trapu egina.

Noizpait ideki zen ganbarako atea. Bazterrak zoin argi eta muntto ziren barne hartan! Argitan zen zola ezkoz. Bi trapuren gainean baizik ez zen han sartzen. Mayie-k hoinbertze dirdira ikusi zuenean gibelerat egin zuen bainan barne bideko beltzak, berak jakin gabe nola, barnerat bota zuen. Markes-ek ez zuen deus erran. Kazeta bat ezarri zuen kadera baten azpian eta jestu batez erakutsi kadera Mayirie-ri. Ixilik zagon Markes bainan sendi zuen borroka bat sortzen bere barnean: «Hau ere jendea, Eternalaren itxurarat egina... berak nahi izanik ere ezin suntsi... «Bainan azkarrago: «leku, leku, Arnegiko malda zikinen lekukoa, leku...»

Mayie jarri zen kaderaren ixkinan, nahi ukan balu bizala ahal bezein leku gutti hartu, kadera osoa, eta Markes-en ganbaran batez ere, sobera baitzen harentzat. Ez, zen purtzilarentzat kadera ixkin bat aski zen!

Han zagon beraz gure neska tristea, ttonttorturik, burua apal, bi belaunak elgarri tinki, bere arropa bustien barnean ahal bezein tipi egina. Norbait sendi zuen ondoan bere majestateaz leherturik zaukana. Lehertzen zuen ere gure Mayie zirzila ganbara haren dirdirak. Nahiz begien altxatzerat ez zen biziki menturatzen, mahiaren erdian ikus zezaken paper azpiko berde eder bat, tinta untzi batean

luma baten urre garbia, haratxago dotzena bat pipa, forma eta kolore guzietakoak, ordre gaitzean emanek.

Ez zuen Mayie-k funtserat eta gauza haundirik ikusten. Ez zena afruntu egitea barne hartako Nagusiari begien altxatzea hoin xirrin zauzkan gauzerik? Denak garbi, denak beren lekuan, Norbait haundiren hatsak baktxari emanikako lekuan... Denak beren lekuan! harmonia deusek ez nahasten... salbu gauza bat ez bere lekuan: Mayie. Ganbara hartako munduan estranjer bat zela, ordre hartarat nahasmendua ekarria zuela han ziren lekuko, zola ezkotatuan, Mayie-k sartzean, bere espartin bustiekin utzi hiruzpalauz ta alimaleak.

Orai kondatzen zituen taxa hek: bat, biga, hiru! Zoin haundiak ziren! Nola kondenatzen zuten! Kexadura batek hartuak iduritu zitzaizkon orai barne hortako gauza guziak. Pipen ordrea orai irririegingarri zen, oial zilar kolorezko balios baten azpian majestategaz gon radio posta gaitzak ahalgeak hartua iduri zuen bere tronutik erori errege baten pare. Bere hersturan, buruaren itzultzerat, menturatu zenean neska malurosa, bi taularen artean zagon liburu leerroak jo ziozkan begiak. Nagusia bizkarrez baizik ez zuen ikusi. Liburu bat hartua zuken eta Mayie-ri iduritu zitzaion entzuten zituela liburu heietan mintzo diren izpiritu aipagarriak: «Zer duk hori? Norentzat gauzak? Xerriak xerritegian uzten dituk. «Mayie-rentzat eskoletan erabili jendea bertze mundo batetako segetuetan sartua zen, jende eskolatuak hartze zuen aldare gainean ohoratzen den saildu itxurari zor zaion errespetua, liburuak sakratuak ziren, haundiago eta sakratuago.

Ez, hoinbertze gaitzetsiren artean ez zauken geiago Mayie eta eskapat zerat zoan ohoin bat bezala, etxe guzia, osto baten pare, ortzi zarta ikaragarri batek inarrosi zuenean. Orro bat aditu zen gaineko estaian, gero karraskiaska batzu: Aitatxi! Aitatxi! Aditzen ziren ateak idekitzen, jendeak eskaleretan lasterka. Etxe guzia asaldatua zen. Mayie ez zen bere lekutik higitu ahal izan. Iduritu zitzaion ez zuela geiago ez arima eta ez gorputzik «Ez» zen geiago edo izaitekotz daldara huts bat. Hain segur orai ganbara hartako samurgoa kreatzailaren eta hunen obra guziari. Mayie desordre ekarle!

Markes ere atera zen eta deneri segi joan ikusterat zer gertatzen zen gaineko estaian. Jadanik jende ainitz bazin han eta ez zen errex ganbaran sartzea. Doi doia ikusi zuen lurrean etzana, aire gaxtoak errea, Aldudar aitatxi zaharra. Ikusi ere ximixta batean Piarreño eta Txomin ttipien bisaia deseginak, hipaka nigarrez ziotela: «Aitatxi! Aitatxi! Ez gitzazula utz ez zitela hil... xauri, xauri... «Markes-i sobera zimiko haundia egin zion horren ikusteak eta bere aldian negarrez hipaka hasi zin denen aitzinean... Markes nigarrez denen

aintzinean! Bortz minuta lehenago nahiagoko zuen bortzetan bere burua, Krixto bezala, kurutzefikatzerat utzi nigar bertzen aintzi nean egin baino. Bainan ez zen geiago oxtikoa, Txomin eta Piarreñok beren aitaxi errearen aintzinean bazakoten berak barnean ahantzia zaukan zerbait sakratu iratzarturik. Nigarrez hipaka jautsi zin eta berri-zan ganbaran sartu.

Mayie ez zuen lehenbizian ikusi ere. «Aitaxi hila... sekulan geiago ez ikusiko... aitaxi lurrez estaliko... «Haur bat, bortz urteko haur bat bizala, hipaka nigarrez ari zin, ohearen gainean jarria, mihise xuriaz mateletako malkoak xukatzen zituela. Hitz berberak erranak, nigar berberak ixuriak zituen orai dela hogoi ta bat urte Iparragerreko salan, bere aitaxi hil eta.

Mayie-k, nola erran zer senditu zuen, ikusi zuenean Markes, mutiko eskolatua nigarrez Arnegiko atxo xaharrak hartzen diren bezala!

Bere gorputz asaldatua senditu zuen zerbait berri, zerbait haundiren apailatzen. Zerbait bazuen erraiteko harek ere eta senditu zuen erranen zuela. kolera saindu bat gorputz guzian hedatzen ari zitzaion eri eta zangoen puntaraino.

Markes-ek, bere hersturan, herstura haundiago baten zolatik heldu zen karrasia hau entzun zezaken: «Markes, erran behar dauzute, ifernutik atera nuzu... Nere burua botatzen nuen urerat... zuk atera nuzu...»

Jainkoak daki memento hartan barnea ilun zuen Markes-ek, bainan nundik eldu ziren ele horiek? Mayie zen mintzo eta orai bere kaderatik xutitua urbiltzen ari mutiko gaztea zagon oheari. Bi begiak sutan, eskuak aztaparka bezala krispaturik beti eta geiago oheari urbiltzen ari zen izate hura oxtiko uli malet salamandra triste hura ote zen? Markes-ek ez zakienez, gaineko estaian ikusiak bazion barnean zerbait premiatsu higiturik bainan orai beharrietarat heldu zitzaizkon eleek bazuten bertze mundu batetako oiharzuna.

«...Ifernuaren izigarria! eta harat abiatua nintzan... sartu nahi nuen esperantzarik gabeko erresuman... Nere ezin bertze eta hersturen erdian beti esperantza zerbait gelditzen zizautan... Noizpait mutik gazte zombaiten arpegia araituko zelakoan... Nere lana noizpait behar bezala eginen nuelakoan... Bakea jinen zelakoan bainan hara denbora joanki eta goizean mirailari behatzean ikusi dituzte nere lehen ile xurik. Orduan bi eskuak altxatu dituzte denbora aztaparrean arrastatu beharrez. Goizeko seiak ziren eta erloiaren orratzak nik han geldiaraziagatik iguzkia berdinean atera da eta eni iguzkiaren aterateak arratsean sartuko dela daut gogoratzen... Debrua ni baitan nukenean, egun guzian boz adoragarri bat entzun dut egun ahapetik ari: «Gaua Mayie, gaua, Iguzki etzaterik sekulan ez geiago... ure-

rat sar eta fini... betikotz fini... betiko gau ezta, ontsa lo egiten delarik hautemaiten ez den gau ezta. Ez zuen lehen aldia boz enkantadore hori entzuten nuela. Orduan ene indar guziak eman ditut egun berriz biziari lotzen. Sekulan ez bezala entseatu niz ene lanaren ontsa egiterat bainan nagusiari arnoa zerbitzatzean haren basoan bezenbat eman dut kanpoan, nehoiz ez dut egun bezenbat baxera lurrerat utzi eta hautsi! Bazkal ondoan kafearen hartzeko salan zauden nagusi etxeko andereak beren hiru haurrekin. Orditut dut beharri eman beti eta plazer geiagorekin ura erakusten zautan boz mardarikatuari.

Kako xilotik huna zer ikusidutan.

Delphine etxiko alaba ene jեսtuen egiten ari zen. Kafitera harturik maingtu egiten zuen mahiaren ingurua. Gero kafea bakotxari emaiten erdia kanporat botatzen zuen eta bakotxak erraiten zion: «Merci, ma belle Poutzouk!» Nagusiak birak, Monsieur Dumerc jaunak, neretzat orai arte hoin ona zenak irria arras gauditua zuen. Irria gauditua... Orduan konprenitu dut zer nintzan: zanpantzar huts bat... Nere indar guziak irriegingarri!

Markes orai ohearen gainean jarria zen. Ikusten zituen azkenean Mayie-ren begi ximixtaren garra zariotenak... Ikusten Mayie-ren begitarte tindatua. Bainan hoinbertze zikinen artetik ele bat heldu zen garbia adinik gabekoa... Mayie ari zen bere izaitearen «erraiten», ageri zen korropilo bat ari zitziola barnean desegiten. Sekulan Markes-ek ez senditua hoin lodi bertze bat ondoan... Indar egin behar ukan zuen ez oihu egiteko: «Bainan Mayie, zu ere bazira? Ni bat zira zu ere?»

Mutikoaren begietan irakurtu zuen Mayie-k zerbait pasatzen ari zela haren baitan ere; urbildu zen Markes-i eta belaun bat lurtean emanik hasi: «Markes, badakizia zer den malurrerako sortua izaitea? Badakizia egundaino norbeiten ganik»: maite zitut ez entzutea zer den? dantzaren joan eta nehork egundaino ez dantzarazten... O! Igande ilunabarretako trixturaren iluna! O ba! Aitamak ukan ditut eta nahiz ez aberatsak erakusten ahal zaaten ttipia nintzalarik bederen mundurat emana nindutela... Gorputzez baizik ez naute sortarazi... ez duzu uste zuk ez dela aski? Ez duzu uste zuk aitamek bi aldiz behar dituztela sortarazi beren umeak? Lehenik gorputzez eta gero edo hobeki lehenago gorputzez? Urbeltzeko paretak xuxenak dira, bainan pareta heien harriak hotzak dira, munduaren muina berotzen duen hatsa ez dute pasatzerat uzten eta barne hartan hotzak bizia niz... eta nihauren burua enoagarri zaut trein baten beha gara batean iragaiten den denbora bezala! hogoi urte huntan jinen ez zela nakien trein baten beha nago.

Zer da mundua amodiorik gabe? Beti numero berak itzulikatzen

diren zirka alimale bat. Joanden hogoi urtean ni baitan ez da deus «gertatu»! Ba... Behin, igande arrasalde batez, orai dela lau urte, nere adineko nexkato inbalido bat, hiru egunez hartaz okupatu ondoan, utzi behar ukan nuenean, eskua bortizki tinkatu zautalarik, begietarat behatu zautalarik, orduan... zerbait «gertatu» zen ene baitan... Zerbait «gertatzen» ari dela mundu huntan, badakizia noiz dutan? Orai, memento huntan, Markes... Eta ama bat edo berdin aita bat ikusten ditudalarik haur ttipi baten karesatzen beren denboraren galtzen. O! Denbora sakratua, gizonak gizonari lekukota emaiten galdu denbora!

Markes aditzen zuenaz harrিতua zagon. Ez zakona, parte bederen bere itxoria kondatzen ari Mayie-k? Zoin ziren Markes-en azken hogoi urte hautako gertakariak? Eta Mayie eskolan ez erabilia zitzaiona bere buruaz hoin egiazki mintzo? Nun ziren orai Solange Delarue-k hain ardura aipatzen ziozkan filosofo famatuak? Nun Zarathoustra haundiaren ebanjelioko egia?

Dela memento bat ahalgegarri zaukan kreatura triste hura, orai norbait bilakatua zen eta mintzo zen egundaino Markes-ek norbeit mintzatzen aditua ez zuen bezala! Norbait bazuen han aintzinean larrutua izan balitz baino larruasago. «Nehork ez maite» titulutzat zaukan liburu baten ixkiriatzeko emeia suhar batek iragan zion gorputz guzia.

Mayie, Urbeltzeko Mayie, azkenean «ikusten» zuen! Eta Mayie-ri esker sartzen ari «izaite»-aren munduan, ateratzerat zoan Solangen «ageria»-ren mundutik. Sartzen ari... lau urte zituelarik iguzkiaren goizeko lehen urre errautsezko leinuruek erakutsi «izaitea»-ren munduan! Bere haur denborako lehen urteen loria, lehen urte heien ospea han zuen berriz.

Ixtil bat gaitza ari zela hedatzen ganbaran orduan ohartu zen. Ez zuen pentsatu ere ur harek ganbara ikintzen ziola. Ur hura ere, Mayie bezala, iduritu zitzaion lehen aldikotz ikusten zuela. Eta ur hura bere ganbara dirdiratsua zikintzen zion ur hura, ona atxeman zuen, gozo, maitagarri, garbitzaile, zintzur agortuaren kontsolatzaile, eta zinez ezin bertzean baizik itotzaile. Bake haundi batek hartzerat zeramala iduritu zitzaion Markes-i.

Mayie-ren bozak orai hartua zuen karsutasun bero bero bat. «Malurosek, Markes, Jainkoa hor dute kontsolatzaile. Enetzat ez zuen iduri kontsamendu hori ere goxa nezakela. Beldurra, Jainkoaren beldurra partikulazki, badakizia, Markes, zoin den izigarria? Badakizia kofesatu eta bekatu bat ahantzi edo gaizki errandelakotz kominiatzerat ez ausartatzea nahi laikelarik juntatu bere izaite guziaz Amodioz jaterat emaiten denari? Apez batek (neretzat mundu huntan amodioaren leinuru izan den izaite bakarra!) zombait eta zombait aldiz


kontsolatu nu, soleitu, púsatu beldurrik gabe Amodioaren jaterat... Zonbatetan ez daut errepikatu mundu huntan estranjer kausitzen den bat hemen egoiterat leia dezaken solas bakarra: «Jesusekin pasio-
nean zira, Jesusekin piztuko zira.» Bainan orai bi urte Afrikarat joan zen apez saindu maite hura eta ni laxatu... Sakramenduatarik urrun-
du eta esperantza nahi ukan dut galdu behin betikotz...

Esperantza galdu behin betikotz... Erakutsi orori banintzala ni ere hil eta bederen ohart ziten banintzala ni ere! Hori da ene pasio-
nea, kanporat ez da ageri. Mundu huntako zoin maluros kategorietan ezar ni? Nere ama ez zen gizonkaria, nere aitak ez zuen edaten, kanpoz ez naiz eri... Nehoren aitzinean ez dut dretxorik maluros agertzeko...»

Nehoren aintzinean ez dretxorik maluros izaiteko... Markes-ek Mayie-ren eskua ezitia berean hartu zuen. Mayie-k orduan ahapetik murmurikatu zion: «Markes, erran behar dauzut, orai erraiten ahal dauzut, senditzen dut erraiten ahal dauzutala, nere burua urerat botaia nuen ba igande arratsaldetan pausatua nuen etsimenduaren geigo ez ikusteko, bainan geiago oraino NIHAUREN buruaren ez ikusteko! Nihaturen buruaz nuen ahalgeak nau bota urerat eta geiago ez nihaur ikusteko nintzan gorri eta berdez jauntzia, aurpegia tindaz estalia urerat abiatua...»

«Ederra zira, Mayie, ederra zira...» Markes segur zen orai Mayie-k sinetsiko zuela eta oxtion ahalgegarri zauzkan ile busti hek orai onak zeizkion... tinda joanen zen gorderik zaukan arpegi har-
tarik... Garbitzen da zikina... «ederra zira Mayie, denetan ederrena zira...» Eskuak elgarri emanik han gelditu ziren begiak begietan «IZAITEAREN» ospe eta bozkarioan azkenean sartuak elgarri behara ixil batean ziotela: Ginaizken ez «izan», GRAZIAZ gira, AMODIOZ gira... AMODIOZ...

MICHEL ITZAINA



ANTZINAKO IPUINAK

PERU ETA MARIXA

Erri txiki bateko auzotegi baten, deika dago Gergori umian ardurez: Antontxu... Malentxu... Xabiartxu... Etorri zaitzeze danok aititan ipuñak entzutera, eta danak batuta aurkitxu ziranian, asi zan aitita bertso onek esanaz:

IPUÑ IPUÑ A LA MANERA
AUNTZAK IGON DEU LABA GANERA
ONEN ADARRAN ZORROTZAK
XABIERTXUN AGORA KOROTZAK

Eta danak barre aldi bat egin da gero, asi zan aitita ipuñak kon-
tatzen».

PERU ETA MARIXA

Antxiña gure Euskal-erriko uri txiki baten, bixi ziran PERU eta MARIXA senar emaztiak. Onek guztiz pobriak ziran, eta etxe txiki zartxu baten bixi ziran, euren Peru-txu osasun gitxiko semetxu bategaz.

Gurasoak zoratuta egozan, euren seme txikiyagaz, baña azkenian alegin guztiyak eginda gero bere, osasuna zaintzen, il yakian euren mutil-polita.

Uri txiki onetako KANPO SANTUA, urrun egoan, eta Elexa nagosiyan elizkixunak eginda gero, Marixak esan eutsan Peruri: «Ba-

dakik Peru, urrun dagona uri onetako kanpo Santua, eta gaba etorri baño lenago, joan biarra daukagu Perutxuren gorputzari lurra emoten. Eta au esanda gero, urten eben senar emaztiak umetxuaren gorputza kaja baten sartuta.

Esan dodan legez, kanpo Santua urrun egoan, eta neke, neke, eginda elduziran bertara. Semetxuan gorpuari lurra emon da gero, kanpora etozala, Marixak esan eutzan Peruri. Badakit Peru, gaba ganian daukaguna, eta gure etxia emetik urrun dagoana; ekarrineik, atiori onantz (kanpo Santuko atia), juan gaitez anbet ariñen etxera.

Marixa joi en aurretik, eta bide zatibat ibilli ta gero, atzerantz begiratu ebanian, ikusi eban zelan etorren Peru, ate andibat lepoan ebal, eta pentzaurik esegoala ondo, burutik onek berbok esan eutsozan:

Zer dakak Peru? I, ez ago ondo burutik. Zegaitik ator kanpo Santuko ate zar ori lepoan artuta?; «Ara Marixa, erantzun eutzon Peruk: Zeuk ezan daustazu atia onantz ekarteko, eta emen nago zeure agindua beteta! Ez gixona erantzun eutzon Marixak, Nik esan dautzut atia isteko, eta ariñ etorteko, baña ez atia lepoan artuta ekarteko.»

Ikusirik Marixak bere Peru gixajoa, guztiz nekatuta egoala, bere ate andiyan pixuegaz, eta gaba ganian eukala, akordau eban, gaba basoan pasatzi, arbola edo sustar zabal batera igonda.

Arbola gane onetara igon da gero, biyek egozan ixilik, Peru gustiz nekatuta eta Marixa berba egiteko gogua joanda. Onetara egozala, gabeko amabiyak ingeruan, agertu zan lapur kuadrilla andi bat, eta Peru eta Marixa egozan arbola azpira etorri, eta egiñeben su andi bat, onen epeltasunian gaba pasatzeko asmuagaz.

Marixa, dardara baten egoan, eta Peruri esaten eutson ixillian: «Jaungoikoagaitik eseik zirkiñik egin auen lekutik, beztela galduak gozak!» Lapurrak asi ziran diruak kontatzen, eta onetan egozala, Peruk esan eutzon Marixari: «Marixa: au da nik daukodan txixelariye.» Eta au esanda gero, asi zan txixa zarrastada andi bat egiñen, lapurrak egozan lekura.

Onek ikusi-ebanien euren ganera jausi yaken zaparradia, zutundu ziran danok, eta gora begira jarriaz, agoa zabalik, esaneben danak batera: «Jaungoikoaren orixoa!», eta beste barik jarraitu eben euren diruak kontatzen.

Marixa larrituta egoan Peruk egiñeban astokeriagaz, eta barriro emoneutzosan beren kontseju onak: baña Perun erantzuna beste astokeri bat izantzan, eta prakak askatuta, Marixari, erantzun entzen: Marixa au da daukadan kaka larriya... eta au esanda... plisti plasta!

egiñ eban kaka lapurren ganera. Onek lengo moduan sutundurik, jarri ziran gora begira, eta agoa zabalik, esanaz... Jaungoikoaren mostazia!

Marixa asi zan ixillian Peru gogor artzen: baña au esegoan txanxtetako, bere ate zar andiya lepoan ebala, eta azkenian Marixari *nekatuta egoala* esanago eta eziñebala geyago aguantau, bota eban ate zarrau lapurren ganera, danok zuen ondoan batzarrien egozala.

Lapurrek artu-eben ikaria etzan txikiya, eta igesik joan ziran esanaz... Jaungoikoan kastigua! eta geyago etziran agertu.

Peruk eta Marixa ikusirik lapurrak an beian itxi eben aberastasuna, jatzi ziran arbola ganetik, eta asi ziran diruak zakuetan sartzen lapurrak andik urrun batuziranian, batzarra egiñeben, eta akordatu eben sugertera botatzia nor juango etesan euren arerioak zenbat zirian ikustera.

Goiz aldia eldu baño lenago, eta Peru ta Marixa lapurek egozan zutondoa egozala, eldu yaken kuadrilla atako lapur bat, an egozanak nortzuk eta zenbat zirian jakitera.

Alkaregaz konfiantza apur bat artu ta gero, bere lagun egintzan lapur onegaz, eta postura egiñik nok euken mingaña luziagoa, artaziyekas mingain puntia kendu eutzan lapurari. Au, igesi joan zan beren lagunengana, eta preguntaurik se jente egoan euren diruen, jabe eginda mingain puntian faltas, erantzun eban: Mirmilla... mirmilla... eta lapurak milmillak zirala pentsaurik an egozanak, bildurtu ziran, eta etziran atrebidu bariro joaten.

Goiz aldia etorri ta argituzanian, ikusirik iñor estorrela, Peru eta Marixa guztiz aberastuta etxeratu ziran, eta pentzau eben beste uri andibateko etxe barri bat erostia, eta bertan bixi ixatia.

Lapurren diruakas aberastu ta gero, etxia erosi eben Bitoriako ausotegi baten, eta beste erribátzuetan be erosi zeituzan beste propiedade batzuk.

Peru guztiz abille eta biergiña zan, eta oñetakoak egin, eta konpontzen ekiyezana, gero erri txikietako periyetan salgei jarteko azmuagaz.

Noizik beñian Marixak bialtzeneban beren Peru, propiedadie eukosan erriyetara. Gabon jayak etorri ziranian, oitura zan legez, errentak kobratzeko egunak ziran, eta gure Peru, Marixan aginduz, Otxandiora juateko gertu egoan.

Marixak, beti bezela emon eutzoan kontzeju onak beren Peruri esanaz, Bitoriatik eta Otxandiora, bide luzia eta itzela dauk, eta gaba etorri baño lenago eldu biarra daukok eure Marixagana. Badakik ondo lapur asko dabillua bide onetan, eta laguntazun gitxiko eta kontuz ibilteko bidiak dirala onek.

Marixan kontzeju onak artu, ta urten eban Peruk, goizian goize-
tik Otxandioko errirantz, bertan bezkaldu, lagunak agurtu, errentak
kobrau, eta gaba etorri baño lenago etxeratzeko asmuagaz.

Goiz guztia bidian egin da gero, eldu zan, gure Peru, Otxandiora:
eta bere lagun, eta erreteruak agurtu ta gero, onekas bezkaldu eban.

Negua zan, eta arratzalde laburra euken gure Peruk, denpora gi-
txiyan bier asko egiteko, eta baso erdibatzuk edanda, bere bideskun-
diari azkena emoteko, urte-eban gure Peruk Bitoria aldeko bidia
artuta.

Illun abarra san, eta Peruri etorri yakasan, burura, Marixak
emondako kontseju onak.

Ibilli aldi bat egin da gero, gau illuna etorri zanian, agertuyakon
lapurkuadrilla andi bat, eta besoak gora esanaz, eskutur biyak lotu
ta gero, txara edo berezi batera eroan eben.

Berezi onetan, lapurrak euken txabola txiki bat, eta bertan ego-
zan bera bezela lapurtu tako beste gixon eta andra batzuk. Onek
triste egozan, euren diruak lapurrari emonda, azkatzazuna nos emongo
eutzen begira, euren etxietara juateko.

Onek bezela gure Perun txandia elduzanian, errekestau eben di-
ruak kentzeko azmuagaz, baño es eutzen topau ezertxo be, eta umore
txaragaz, egozan lapurrak, Peruren pobretazuna ikusirik. Asi ziran
lapurrak gixon lapurtuari askatazuna emoten, eta banan banan, baso
bat ardao emonaz, jarten zitusten bidian euren etxiatara juateko.

Gure Perun txandia elduzanian, eta ardaorik emonbarik agurtu
ebenian, Peruk esan eutsen lapurrari: Lapur jauna! Neretzako? Es-
dago ardaorik? Lapura eta jauna erantzun eutzan onek; eta ukubi-
llegaz jo eban kapelan, eta bota eutzesan, lurrera kapela eta kape-
lapan eukezan erreteruak ordaindutako ontzako urriak.

Lapurren pozak, eseuken azkenik, Perun erreteruan ontzako
urriak an agertu ziranian; eta barre aldi bat egin da gero, es-
kindu eutzen Peruri, berari tokatzen yaken baso ardoa: baño onek
ezeukon ezer artzeko gogorik.

Gau illuna eta itzela zan, eta bide luzia eukan, ondiño, gure Pe-
ruk, etxera eltzeko. Triste joyen Marixak emondako kontzeju onakaz
gomutauas, baño ezeuken erremediorik, eta ibilli ta ibilli, eldu zan
goiz aldian, dirurik barik eta guztiz nekatuta, bere etxera.

Marixak arduretan pasau eban gau guztiya, Peru bere sazoyan
agertu etzanian, eta ikusirik zelan eldu zan gisajoa, eta jakiñik ze-
lako estutazunak pasau ta egoan, berak animatu eban esanaz: «Bizi-
ya, diru guztiyen ganetik dagoala», eta aurrerantzerakoe giñeben
alegiña trankillago bixi izateko.

Bitoriako etxiak, gitxi baña lur onak eukesan: eta asmau eben propiedadiak zaldu eta lur onek gobernatu, aurrerantzian baketzuiago bixi izateko.

Onetarako, Perutxuaren faltaz, ekarieben erriko etxetik, amalau urteko mutiltxu bat, biyer etzi, morroi bezela etxian jarraitzeko. Mutiltxu onek Antontxu euken ixena, polita eta bizkora, baña «tarta-mutua» zan.

Urte batzuk pasau ziranian, gure Antontxu mutil ederra eginda egoan: eta Peru eta Marixari lagunduaz, onek baketzu eta zabaltazun andiyegaz bizi ziran.

Gau batian, etxe onek euken basoan aurkitu ziran, zarri bezela, Otsoa eta Axerixa. Lagunak ziran eta denpora askoan alkar ikusi-barik egozan.

- Otsoa, guztiz argal egoan, eta Axerixak ikusirik beren piguria, esan eutzon gustiz errukituta. Nun ibillias Otsoa, ainbeste denporan? Guztiz argalduta ago. Gexorikegonaz? Es Axerixa! erantzun eutzan Otsoak. Nire gaxoa gozia dok; ainbat egunian ezer janbarik nayauk, eta eugana etorri nok, gau onetan, Peruri osturiko egastien bat emoten badaustak ikustera.

«Nik etxaukat esertxo be, erantzun eutzon Axerixak: baña gero etor neugas, eta neuk erakutzikoodas nun dagoan gaztai eder ta egazti batzuk.» Eta igetargiyak erluz egiten eban errekatxu batera eruan da, esan eutzon Otsoari.

«Sartuadi errekatxu orretan: edan eik dagoan urori, eta euetzako ixangodok gaztai eder eta egaztiyok.» Otsoak ikuzirik igetargiyaren ertusa, bene benetan gaztayazala ziñesturik engañatusan, eta asi zan errekatxuko urak edaten; baña eseban ikusten legortzarik, eta gitxiago gaztairik Axerixak emoten eutzoen animua gaz, egiñeban beste edanaldi bat: baña alperiko biarra zan.

Otsoaren tripia, upel andi bat bezela egoan; eta ikusirik an esegoala gaztairik, urten eban errekatxutik, eta bidian urik jausi estakiyon, axerixak tapotza jarri otzen otsoari atzeko zuloan.

Goiz aldia zan, eta Peru eta Marixa beren morroyagaz, zoloan garixa ereiten asita egozan.

Axerixak baekiyon Peru eta Marixan etxian goxari ona gertauta ego ala, eta Otsoari berari jaraitzeko esanaz, eldu ziran Peru eta Marixa bierrien egozan solora, eta atzeko tapotza Otsoari kendu, eta asi zan garraxika esanaz... Peru eta Marixa... urek daroa gariye!... Peru eta Marixa urek daroa gariye!...

Onek ikusi —ebenian euren gari— asiyak, urak eroyasela, Antontxu morroyeri dei eginde, makilla bana artu eta emoneutzesen Otsoari azurak bigundu artian, makillada gogorrak.

Au jaso zan artian, Axerixak baekiyan nora joan armosua jaten, eta Peru eta Marixan etxian gertuta euken armusua jan, da igesik joanzan bere Otso laguna azurrek apurturik itxia.

Peru eta Marixa, euren morroyagaz, etxeratu ziranian zeozer jateko azmuagaz, aurkitu ziran armuzurik barik, eta Axerixa andik urrun egoan, denporaz igez eginda.

Antontxu ospitaletik ekarri eben mutil txikiya, mutill andi bat egin da egoan, baña onek ezeuken poz andirik aurrerantzian etxe onetan jarraitzeko.

Marixa, Andra ona eta errukitzua zan, baña Peru san zekena eta morroyegaz etzan ezerbere errukitzua, eta egunian errieltxu biko alogeragaz euken.

Gure Antontxu morroya, ardao zalia zan, baña etxian esotzen emoten ardaorik, eta euken alogeragaz etxakan eltzen dirurik.

Goiz batian Marixa elexatik etorrela, esan eutzan morroyak Marixari beren tartamutu berbetiagaz: Marixa: Ni esineike onetara bixi! alogera jasoten espadosu, neure burua botakot oxiiñera, eta au esanagaz joantzian erreka aldera, Marixak estu ta larri jarraitzen eutzola.

Oxiñera elduzianian, Marixa negarbaten egoan esanaz...: Ai Antontxu, esik egin olako astokeririk; eu eta neu biyok kondematuko gozak: erieltxu bat jasokoaut egunako alogera, «Es Marixa erantzun eutzan Antontxuk, eta asi zan jakia kentzen beren burua oxiiñera botatzeko.

Ai Jaungoiko maitia! ziñoan Marixak morroya prakak kentzen asi zanian beren burua oxiiñera botatzeko. Pesetatxubat jasokoaut (bitartian erantzi eta uretan zartu zanian, Marixa negar baten egoan esanaz: Sei erieltxu emongoedas eta etor legorrera!).

Es Marixa erantzun eutzan barriro morroyak, eta ura espanetara elduyakanian, erantzun eutzen Marixari: Bai Marixa (espanetan eskua eukala) ona artian ura... baña emetik (agoa señalatuta) ardoa!, esanaz urten eban uretatik.

Marixan pozak ezeuken azkenik, eta morroyagaz bakiak eginda, bizi ziran aurrerantzian ondo eta baketzu.

*Eta alan bazan
Zartu deitela kalabazan,
eta urtendeixela
Bituriko plasan.*

JON MARTIN PERTIKA.

Abereenganako Maitetasuna

Okerbidetik ete?

Nere aurretioko lanean esan nuan, urte askotan zutik, eta tinko iraun duala, guk ikasi gendun Pedagogia'ko egi batek: «Abereakiñ ankerra zan notiña, berdiñ-berdiñ gaiztoa eta ankerra izango dala pertzonakiñ ere». Orregaitik ume eri txikitatik erakutzi bear zaiotela gure inguruko abereai miñik ez ematen, jun dijuan, eta etorri dato- rren txakur edo katuari, arrika ez egiten, txorikume gaxoai euren ka- bietan pakean utzitzen, eta geure etxeetako txakur, katu edo orrelako abereari, bear duten janaria eman eta ondo artu. Gauza abek umeeri erakusteak garrantzi audia du, bestela aunditzen diranean ankerrak izango dira pertzonakiñ ere.

Egi au gaiñera, uste askotan, Pedagogía saillean, Arquímedes, Pitágoras edo orrelako Helade'tar jakintsuen esaerak beziñ egiaztat euki degu. Pedagogía'ko axioma bat izan da. Edo gutxienez teorema bat, ondo oiñarriritua eta demostratua.

France'ko santu aundi Paul'tar Bingen (Saint Vincent de Paul)ek, Maitetasunaren Alabak (Les filles de la Charité) izeneko lekaimeak sortu zituanean, Gaxotegietan gaxoak zaitzeko, umezurtzak jaso eta asitzeko; oiñazea, negarra, gosea, ta ludi onetako beste ezbear guz- tietara beuren maitetasuna eramateko, lekaime-etxe oyetan neskakxak sartzeko, baldintza bat auxe zan: *Ez zeitela arakiñen alaba izan.*

Eta begira zergaitik.

Ogibide orretako gizonak (arakiñak alegia) abereen iltegiatan (mataderos) txekorrak, idiak, txerriak eta abar illtzen, soñekoak eta eskuak odolez zikiñduta ibilli bear izaten zutelako, bildur zan gizon oyek, biotz gogordunak izango zirala euren ogibidea zalakoz, eta gizon oyen alabak izan zitezkeala ere (biotz gogorrek alegia) odoletik ekarri zezateakelako.

Eta Paul'tar Bingen deunak, Maitetasuna (Caridadea) zabaltzeko, biotz bigun eta beraak bear zitun.

Abereentzat, neurritik kanporako maitetasunak ere ikusi ditut, erbestean egon naizanean.

Ezagutu nuan andre aberats bat aur gabea, eta gaiñera aurrik ez zuala nai esaten zuana. Txakur txiki bat beti berekiñ erabilli oi zuan, eta noizean beñ, bere altzoan artu eta esaten zion:

—Errazu. Nor da zure amatxo?

Eta txakurtxoak, intziri bigunakiñ aurpegia laztantzen zion.

—Bai, bai, neu naiz! Ondo dakizu zuk zure ama nor dan.

—Maite al nazu?

Eta txakurtxoak orduan, len baiño intziri luzeago ta bigunagoa.

—Bai, bai, baidakit maite nazuna. Bai.

Irakurleak pentza lezake nai duana.

Erri artan bertan ikusi nuan egun batean beribill eder bat, barruan lau lagunekiñ. Atzeko jarlekuan, jaun bat eta andre bat, gazteak oraindik, eta aurrean, txoferren ondoan, neskame gazte bat, mantal zuria, eta buruan beste gauza zuri bat zualarik, etxe aberatsetako umezaiñak bezela.

Baiña altzoan, txakur beltz itxusi bat zekarren, aur bat bezelaxe igortziaz eta laztanduaz.

Ni, egurastoki artako jarleku batean exerita nengoan, eta nere parean ziranean, beribilla gelditu egiñ zan, eta etxeko andreak esan zion «aurzaiñari». «Monique, erakutsi egiozu itxasoa, Totó'ri.»

Eta «aurzaiñak» txakurra jaso ta leyoen aurrean ipiñirik esaten zion «Regardez, Totó, voila la mer».

Baiña, nunbait, Toto'k itxasoa ikusteko gogo gutxi, eta ez zion begiratu nai. Eta etxekoandreak, onez-onean, ume bati bezelaxe: «Soyez sage mon petit amour, regardez la mer».

Neuk, neure begiakaz, ikusi ez ba'nuan ez nuan siñistuko...

Asieran erabilli detan ariari jarraituaz erakutzi on aundi bat daukan gertaera bat esatera noa.

Estadu Batuetako Lendakaria zan Abraham Lincoln jauna, egun batean, bere bi —edo— iru Ministro'rekiñ zaldidun kotxean zijoa-larik, estanke aundi baten ondotik zijoazela txerri mordo bat ikusi zuten uretan busti aldi bat artzen, eta euretako bat ia-ia ittoan, urertzera eldu eziñik.

Au ikusi zuanean, Lincoln jaunak, zaldigurdia gelditzeko agindu zuan, eta beriala irten kanpora, urertzera urreratu, eta txarri kottaua, bizirik atera zuan legorrera, bere soñeko erropak naikoa bustirik.

Bideari berriz ekiñ ziotenean, Ministro batek esan zion: «Estadu

Batuetako Lendakari batek, ez zuan bere burua, txerri bat salbatzearren, orrela beeratu bear».

Eta Lincoln'ek erantzun zion: Ez dut egitada au, txerri bat salbatzearren egiñ. Amérika eta bere Lendakaria'ri, ez zayote txerri bategaitik ardurarik. Baña nik ez dut lan au egiñ txerri bati bizia ematiarren, txerri bat salbatzearren, neure biotza ankerkeritik salbatzearren baizik. Txerri gaxuen estutasuna ikusi arren ittutzen utzi ba'nion, nere biotza ankertzeko arrixkuan jartzen nuan, eta orixe ez nuan nai. Nik, biotz biguna nai dut, sentipen onez betea, oraiñ arte bezela.

Lincoln, Amerika'ko Lendakari jaunak, bere gogo ta biotza errukiz beteak izan ez ba'zitian, ez zan bear-bada, «War of secession» eko gudan, Estadu Batuetako beltzen alde izango.

* * *

Baiña gaur egunean, ainbeste urtetan egitzat euki ditugun iritzi oyen aurka, beste iritzi batzuek altxa dira, eta beste egitada batzuek ikusten ditugu, eta irakurtzen ditugu izparingietan, errebistetan, eta abar.

Gauza onetzaz au diote askok eta askok; Abereen adizkide aundienak diran erriak, eurak ditugu pertzonakiñ biotz-gogorrangoak, krimen aundiagoak eta ankerkeri aundiagoak egiten dituztenak, batez ere Europa Iparraldeko errietan.

Iritzi abek onen garratz zabaldu baiño len, esaera batzuek erten ziran eta moda aundia iritzi zuten. Ara bat, ludi guziari bira emandakoa eta danok entzun edo irakurri duguna: «Zenbat eta obeto ezagutzen dutan neure txakurra, ainbat eta gorroto geyago artzen diot gizonari.»

Esaera au, Bernard Shaw'ena dala diote batzuk, Nere aizpa batek, Lisboa'ko txakur illerrian irakurri zuan lenengoz, eta zearo izututa gelditu, birao aundi bat iruditut zitzayon bada.

Nere adizkide batek berriz, lenagotik, Paris'eko txakur-illerrian auxe irakurri zuan:

«Nik, neure txakurra dagon lekura juan nai dut.»

Benetan izugarria au ere, eta ez birao txikiagoa.

Nola artu du gizonaren maitetasunak oker-bide au? Zergaitik?

Abereak orrenbeste maite dituztenak, eta beuren txakur edo katuen arimak nun ete dauden jakiñ nai duten gizon eta emakume oyek, euren ondora juan nai izateraño, ez dira geyenetan etxeokoakiñ eta senideekin ondo konpontzen, bakarrik bizi nai izaten dute. Txakurraikiñ bai, jakiña!

Gauza arrigarri au ez da gaur Europa Iparraldeko gaitza bakarrik, Europa Sartaldeko errietara ere asko zabaldu da.

Gure Phsikis edo arimaren gauzak ikasten dituzten psikologoak diote, gaitz orren sustrayak, pranteismo delakoaren ondorenak dirala lenengoz. Izadia gure arima ta gauza guztiak, Jaungoikoak egiñak diralako, Jaungoikotzat artzen dituztela ta.

Bakardadeak ere sortzen duala gaitz ori, eta erligiorik ezak ere bai. Arimako osasun ona daukatenak, abereak maite izan arren, geyago maite dituztela pertsonak, geure lagun urkoak eta senideak. Abek pertsona bear bezelakoak ditugu, normalak, alegia.

Oraindik urte asko ez dala irakurri nuan, Inlaterra'n ill zan jaun aberats batek, bere ondasun guztiak, lau edo zortzi txakurrentzat utsi zituala, eta bere adizkide biri, bere azkeneko nai au ondo betetzeko ardura. Ondo ordaiñduta noski.

Eta igaro berri dan azkeneko uda onetan irakurri det oroitzen ez naizan errebista batean, Persia'n dagoala katu zuri eder bat, Goglum Markus izenduna, lau urtekoa, zillarrezko ontzietan jaten duana, 8.000.000 pezta balio dituana. Bere jabearen izena Miss. Elspeth Sellar.

Gauza abek gertatzen dira geyenbat Europa Iparaldeko erri aberatsetan; gaurko uritasun edo zibilizazioan gu baiño berrogeita-amar urte aurrerago dijoazanetan diru eta jakinduriak ekarri leikezan edo asmatu leikezan gauza guztiak euren eskuetan dituztenetan; gure aldian bizimodu eroso daramanetan, eta gure aldian bizimailla goikoa dutenetan.

Eta gaiñera Kristau erligioan siñisten dute erri oyeke, Gure anai protestanteak dira.

Nola izan liteke bada, Kristo'gan siñistu, eta Bere erakutziak ontzat artzen dituzten erriak aiñ oben itxusian eroritzea?

Aberen maitetasunakiñ batera gizonarentzat despezioa, edo aberea baiño gitxiagotzat eukitzea?

Ez gaitezen geu orrelako akatzetan erori. Maitatu ditzagun abereak, txoriak, arraiñak, zugatzak, landare, lore, belar, eta Jaungoikoa'k guretzat egiñdako izaki bizi guztiak. Biziak diralako eta Jaungoikoa'k egiñak Erakutsi dagiogun gure umeci, biziak merezi duan itzal eta maitetasuna. Baiña, abereak baiño lenago dirala gure maitetasunean pertzonak, batez ere gure bear izana dutenean, Jesukristo'gan anaiarrebak geralako.

AZPEITIA'TAR JULENE.

BORDA - ZAR

Onerako edo txarrerako, herriaren elburuak ez dituzte izen berdiñak artzen, urteak zear. Atzo erlijioa ta pakea; gaur justizia ta egia... Atzo horri beteko bertsoak osatu zizkieten udaberriko arrosa gorriari, bere edertasuna azaldu naiez, besterik gabe. Orain beste aize batek iotzen gaitu; gauz bakoitzentzat arrazoi baten billa gabiltza io-ta-ke; nondik, nora, zergaitik, zertarako... Problema guztiek azaldu ta bakoitzen azterketa sendoa egiteko «psicosis» bat, zainetan sartu zaigu. Orixe; beste aize batek iotzen gaitu; ta herriak bere problemeen azterketak egitea osasungarria dala nago ni ere.

Bañan gaurkoz ez. Ez nator gaur problemarik agertzera, ezta ezereen azterpenik egitera ere. Beste asmo bat dakart; istori bat asmatu nai dut, besterik ez; begiak eta belarriak itsi, ta burua karresiz eta naigabez ustu ezin badut ere, azke, libre utzi nai nuke, berak amestu dezala istori bat... «BORDA-ZAR».

* * *

«Mendi markail baten saietsean, eguzkiak utsein ta izotzen atzarretan dagon erreka zoko batean, baserri bat arkitzen omen da. Borda-Zar. Berria ez behintzat inola ere. Nik uste Napoleonen sudur ziztoak ongi sumatu zituela. Sortaldera begira, erre kara abiatutako tellatu bizkar oker baten azpian, kokoitua. Bizpahiru aritz enbor, aran batzuk, ta iltxaur gerri mee bat inguruan. Atarian: azitegia, aska, idorpe aul bat... ta loia ugari. Bi ate eder ta sei leioko etxea zan. Hego aldetik, mats zurten antzu bat, leioraino inoiz igoko etzala etsiturik nunbait, lurrera begira.

Lau laguneko familia bizi zan Borda-Zarran. Joxe ta Roxari, senar-emazteak; Ixteben ta Luxia, seme-alabak.

—Hi, kontatu al diok aitari norekin ikusi nauken gaur karrikan?

—Ez, neska; ez adi larritu, etziñot erranen. Bañan uste diñat zer bait sumatu autela. Lehengo batean amak hitz-erdika bat bota ziñen...

—Ba zekitek Antoniokin ibiltzen naizela? Etzeok aita ona go-goan egonen...!

Berrogei-ta-hamar urte inguruan ibilliko zan Joxe. Txikia ta zorroaundikoa; txapel eder baten azpian gerizpetzen zituen bere buru soila ta asmo idorrak. Langillea omen zan, bañan beti berea egin behar izaten duten hoietik. Roxarik etzuen bere senarraren antza aundirik. Emakume garbia ta goxoa, ernea ez bazan ere. Etxe-Zelaiako alaba zan, ta giro obeagoan ezia nunbait. Semeek amaren aldera zetozin. Luxiak emerretzi urte eder zituen, ta Ixtebenek ogei-talau bat... soldaxka egin berri xamarra zuen behintzat.

Igande gaua, ta guraso-alabak afaltzen. Ixteben ez da oraindik herritik azaldu. Joxe geldikor ta zital dago. Halako batean:

—Nor dun goizean eleizako atakan hirekin zegon hura?

—Lagun bat. (*Luxiak, gorri-gorria eginta.*)

—Bai, entzun diñat aspalditxo hontan alkar ikusten duzuela. Eorrek Ikusiko dun, bañan etzaidan batere gustatzen ille aundi ijitu hura.

—Ille aundia edo ez, oso majoa da ta neri gustatzen zait, nai ez bazu ere.

—Ze majo ta ez majo; ez diñat estudiante alfer horrekin berriro ikusi nai; ba ditun mutil langilleak oraindik; hor dun «Ttuntun-Bordako» Jeronimo hire atzetik aspaldi hontan. Obe dun berriro nik ez ikusi ille aundi iguingarri horrekin!

—Jeronimo, asto artxoi aundi bat da, besterik ez. Ta Antonio ez bazaizue gustatzen, zuen kontuak atera; Frantzira ioanen gera biok, ta han bizi!!

—Frantzira? (*Ama bere senarraren alde.*) Ez dun zinkan erranen; ogei urtez zuek azitzen ari, ta orain iñun kabitu etzatelik!! Ez dun afaririk ere merezi, emagaldu zikiña!!

* * *

Bizpahiru urte pasatu dira, ta Luxia ez da Borda-Zarran bizi. Neskaren azkeneko illabeteak bere sortetxean etziran goxoak izan. Garai batez beteta zego-lako bulla zabaldu zan herrian, ta etzuen nai orduko aitaren atzaparretik iges egin. Bere gizongaia Antoniok, gauzak itxustera zijoazila igerririk, anka egin zuen herritik, eskoletako mutikoak sagar gaxiak ebastera ioan ta, nagusia datorrela sumaturik, gordetzen diran antzera. Frantzira saiatu omen zan neska, ba-

ñan gurasoen baimenik gabe ezin nunbait, ta beste bideren bat ar-
tu omen zuen. Herriko atsoak ziurki diote Erretorak franko lagun-
du ziola neskari estu-aldi hartan. Behintzat, Borda-Zarrako nagusia,
ezkerzotik iñork ez omen du Eleizan ikusi.

Sendi zauritu hartako goxotasunak akitu omen ziran. Zitalkariak
ta hitz-motzak; bazkaltzerakoan ez bazan, afaltzerakoan: sesioak, al-
kar-hizketa zorrotzak ta oiua. Roxari gau ta egun negarrez. Joxek
edariari eman omen zion; edariari ta iokuari. Gauerdi arte herriko
ostatu zokoan kartetan; dirua iokatzen asi zala ere zabaldu zan.
Herria «zaitzen» aritzen zaizkigun mingain luzeak bazuten bazka:
Luxiak ume elbarra izan zuela; etxeok ba zekitela nun zegon, ba-
ñan etzutela aitortzen; amak ixilka dirua igorritzen ziola; Joxe etxea
iaten ari zala iokuan...

Dana dala, bizpahiru urte hauen buruan, Borda-Zarrak beste
itxura bat zaukan. Ateraino bide eder bat egin zioten, ta barrutik ere
etxeari berrizte on bat eman; gainera, lanerako traktore azkar bat
erosi. Ixtebenen aspaldiko ametsa zan, bañan etzuen gauatik goizera
bereganatu aita.

—Halako bei pare ederra buztarrirako ta... orain arte egin digu-
kena gero ere eginen diuk bai!; idiak erosi zizkitek Ten-tun-Bor-
dakoak ta gu bezin gibel zabiltzak lanekin; bakarra zakit nik, orain
arte bizitzerako aiña ateri digukela traktore edo horrelako sorgin-
keririk gabe.

—Egia, bañan ez da hori kontua. Artoei bi ta hiru iorra ematen
irakatsi ziguten, bañan ikusi zendun zeonik etzuela horrek bererik.
Bizitzeko aiña aterako duzu baita atez-ate eskean, bañan ez da hori.
Beti hortan?; uda ta negu lanean ari, ta iñoiz ez herrian bizitza txar
bat erosteko dirurik.

—Zer uste duk, traktoreak lanik egin gabe emanen dikela dirua?

—Ez aita; bañan beste era batera eginen dugu lana. Orain arte
bezela, baserriak ez du etorkizunik; nik behintzat ez diot ikusten be-
rerik.

Gaur egun beste aurrerapen batzuk badira; traktoreak ta gaine-
koak. Lana egin beharko da gero ere, bañan hainbesteko karrakai-
lik gabe; zerk ematen duen geiena, hartara saiatuz; lau arto ondo
erein ta, hiru oillo aul ta bi bei antzueri begira egon gabe, landak so-
ro bota ta mea talde eder bat ezi, edo txerrikume sail bat gizendu,
edo sei-zazpi bei esnelari moldatu. Traktore batekin, batere karrai-
lik gabe, lurrak irauli, bazka mutur batzuk ekarri, esneak herrira
eraman ta pensoak ta behar dana etxeko ateraino ekarri... hori da
buruz saiatzea.

—Traktorea!; ez diat nik ukituko behintzat!; sorginkeria duk hori; alfer batzuk bizitzeko, dirua kentzeko alderdia!

Ez dakit, ondarreko konbentzitu zalako, ez eguntik egunera bere burua sendoago sumatzen zuelako, ez semea konformatu ta etxeko lanetara biltzeko (Frantzira, mendi lanetara ioango zela aipatzen asia baizan Ixteben), behintzat azkenean Joxe ere berotu zan ta erosi egin zuten traktore eder bat. Iokoan irabazitako tresna zala, ta iokoan galduko zuela aotik ortzetara erraten omen zuen Aker-Bordako sorgiñak; Erretorak ez bazuen ixillerazi, hiltzen omen du Ixtebenek merkatu illunabar batez.

* * *

Aritzak dardaratuz, hego-aizeak ostu oriak lurrera iausterazten dituen garaian, landako arto umoak burua makurturik zegozila, eiztari amorratuek usoei danba danba ari zirelarik, udazken arratsalde batez, hil ezkillak herrian.

—Borda-Zarrako Roxari hil da!

—Min-bizia omen zuen odolara.

—Familiako naigabeak hil omen dute; ez omen zuen beste gaitzik.

—Alargunak ez omen du utziko alaba etxean sartzera.

* * *

Bi laguneko sendi aula Borda-Zarran. Aita-semeak bakarrik, nola azindak zaitzeko, nola artoak biltzeko..., nola sukaldeko lanetarako.

* * *

Bazkal ondo batez, Ixteben kuluxka bat egiten ari zalarik, Joxe aran azpian irazketarako sega moko erdoi bat pikatzen. Garbi iauntzia, sasoieko gizon aurpegi luxe bat urbiltzen zaio ate ondora.

—Ixo, txiki, atoz onat!, (*nagusiak zakur zitalari...*) kaxo Patxi, arritzekoa hi hemen barna; ze karajo habil?

—Kaxo Joxetxo! Bizkor al zabiltz, bizkor?

—Nun habilla hi? Azinda txarren bat erosteko asmoakin edo...?

Ba zaukat bi illabeteko txekorra, esnez azia; ikusi nai baduk, salduko diat prezio ona eskeintzen ba diak.

—Ez, ez nator hortara; beste afera txiki batek ekartzen nau.

—Beste afera batek?, zer duk ba?

—Begira, Joxetxo; urte sailla bada traktorea erosi zenidala, ta

oraindik ez didazu erdia besterik ordaindu. Ba dakit lehen-bai-lehen ordaintzeko asmoak dituzula, bañan diruen beharrean arkitzen naiz ta...

—Ez adi larritu, mutil, ordainduko diat; azken garai hontan, bat eta bestea dala, sartu ala atera egiten dituk etxe madarikatu hontan, ta estu xamar nabillak. Etxe zahar hau moldatzeko ere azindarik oberena saldu bear izan nian; bañan txekor hori kentzean, sos pixka bat eukiko diat eskuartean.

—Barkatu, bañan ezin zaitut geiago itxoin; traktorea nerekin eramateko asmoakin etorri naiz...

—!!

—...

Ezkeroztik erreka zoko hartan ez omen zan motorren orroarik entzun. Ixteben, etxearen gain, beste tresna bat erosi beharrez asi da, ta ustegabekoa; etxea ez da Joxena. Iokoan egindako zorrak ezin ordainturik, Errotako Krespok Borda-Zarra ta bere lurak bereganatu zituela erran diote; Paperetan garbi azaltzen omen da Krespo dala danen iabe.

* * *

Negu beltza. Elurra mendiz-mendi; aize zorrotza atez-ate; neguaren zigorra leioz-leio; otza ta dardara. Negu beltza.

Borda-Zarran ez da oillarraren kukurrukurik; ez txakurraren sainga zitalik; ez kerik teillatu goiti. Atea io, ta iñor ez; Borda-Zarra utsa dago, ixilik, kokoitua. Erreka zokoan, izotza.

Ixteben Ameriketara ioan omen zan; Joxek, Borda-Zarrako nagusiak, herriko Zaharren Etxean atea io behar izan omen zuen; han dago azkeneko urte bat hontan, konkortua, bere txapel aundiaren azpian; zigarro mutur bat ezpainetan, makilla eskuartean, burua makurtua, nunbaitera begira. Ahantzi egin nai du bizi dala, bañan ezin; burua eldu zaskio Borda-Zarra, bere sukaldeko txoko goxoak, azinden izen politak, ganbarako tresna xaharrak. Gogora eldu zaskio, Luxiak lenengo Jaun-artzea egin zuen goiza, Roxari hil zan arratsaldea, iokoan baserria galdu zuen gaua...

—Altxa, Joxe! Goazen, trukean ari behar dugu; ken itzatzu burutik naigabe hoiek, bestela bizirik akituko zera!

—Zuk uste duzu ume batek holakorik egin lezakela?; bizi guztian umeak ezitzen ari, zertarako?, gero nai duten guztia egin behar dutela iartzeko; ta gogor pixka bat egiten ba diezu, arro arro

mintzatzen asten zaizkizu, oillaskoen pare, ta iges etxetik. Neri ger-tatu behar hori ere!

—Zuri, Joxe; bañan ez zuri bakarrik; ez da gaurkoa problema hori; nun-nai ta noiz-nai, etxe guztietan problema bera.

—Gaurko gazteak ez dakite gurasoen maitasuna eskertzen!

—Gezur aundia dala ez nizuke erranen, bañan gurasoen alde-tik, zer?

Uste izaten dugu gure umeak betiko haur aulak direla, ta oillo kolkak bere txitoak gordetzen dituen bezela, gorde nai ditugu eme-zortzi-emeretzi urteko gazteak, ta ohartu gabe, kalte egiten diegu. Adiña bat ezker, utzi egin behar da pixka bat umea bere erara, ikas dezala berak mundu zabal hontan ibiltzen, iñork eskutik era-man gabe; lagundu, bai; lotu ez ordea. Guk, gurasook sortu, azi ta ezi ditugu gure umeak, bañan horrek ez du erran nai umeak gureak direla, erositako tresna bazuk izanen lireken bezela... bañan, Joxe; zuk eta nik ez dugu problema hori konponduko hemendik; goa-zen, trukean ari behar dugu ta antzi ditzagun ordu batez biziaren naigabeak.

—Bai, ia gureak egindu...

ANTONIO ERKIZIA ALMANDOZ

(Lesaka-1972)



IPUINAK

GERO - IKARA

—Aita! Egun on! Lotazil onek ongi daki uzta guztia edertzen. Ugolo-alea etxebarrura sartzeko aukera gutxi izan degu. Egunak ne-guan oso motzak. Batez ere landarea bir-landatzerakoan oso beran-du ibili giñan eta ebakitzea ezin goiz izan. Itaitarako langile geiegi ez. Agureak eta amonak bakarrik soroetarako. Ondoren, orain eguz-kiak indar gutxi duanean, larrañean aleak luzarogoko aldia bear.

—Beintzat urrengo bildu-aldia arteko zer-iana ba-dezute.

—Bai zera! Ukalondoari ezin muin egin iñork eta guk ere uztak elkarrekin ezinbatu. Orko bazterretan guk añeko aukerak dituztenak asko dira. Izan ere guk dakigu ederki gero-ikara zer dan.

—Gero-ikara al diostazu? Uste dedanez eguzkipeko guztiek larri ditugu gero-ikaraz. Iñork ez iakin etorkizunak zer ekarriko di-gun.

—Gizarteko altsuen gero-ikara eta gurea ez izan orobat. Beste-tik, berriz, gero-ikara ala ezin-ikara? Zertxo asko ain zail iduritzen zaizkigula, iñola burutuko ez ditugun beldurrak ez al gaitu ikaratu eta dardaratzen? Eta gero-ikara ori ez al da izkutuko alakoxe aitor-pena? Alegia, egin bear gendukenari eltzeko alperkeria?

—Leliu! Ala izango da. Zuek tayeldarrok lur-ikarei beldur geiegi ez ezaten oituak zerate. Aundi-tikian lur-ikarak malla askotakoak. Beti ere izu gorria sortzen giza-biotzetan. Bañan lurzabalekook bes-telako ikarak ditugu orain. Eta, batez ere *geroaren* ikara. Guztiok geroak zapaltzen gaitu. Iakintsuek aldi berrien giltza beren eskuetan dutela uste dute, eta orain arteko gizonak zer izan diran ikusiz, gi-zon ospetsu oriei, guztiei gero!!, geroaren giltza ori bear bezela era-biliko ez ote-duten beldurra sartu zaie.

—Orixe bai arritzekoa!! Oso txunditzekoa ere bai!!

—Leliu! Ikara eta kezka ez dira oraingoak bakarrik. Gurean izan zan *Orixe* izeneko idazle argia. Arek Augustin deunaren Aitor-kizunak eman zizkigun euskeraz: ona gai oni buruz zer dion: «Zu, beraz, sorkarien Errege, nola darakuskiezu gizoneri, «etorkizun da-gona? irakatsi baitiezu Iragarleeri. Nola darakuskiezuz gertatzeko «ak? Zuretzat ez baita gertatzekorik. Edota gerokoetaz oraingoa di-rakaskiezu? Ez «danik ez diteke, naski, irakatsi. *Nola* au urrun da-go nere begitik; mendean nauka «eta ezin atzi dutala. (Eres. 138,6) Ba-dezaket, ordea, Zugandik, Zuk demaidazunean, nere begien argi gozo orrek. (Eres. 37,11)» (1)

—Aita! Ori puska luzea da. Eta Augustin deuna izadikoetara ez al makurtzen? Tayeldarrok Izadiari buruz bestelako iritziak ditu-gu. Emen mendi mazeletan seskadiak mardul dakusazgu. Erasoa dan-ean, seska aizearen indarrera makurtu egiten da: seska-anka batzuk aizeak ondutzen ditu, batez ere sallaren ertzean arkitzen badira. Ba-ñan seskadiaren erdi-erdian aurkitzen diranetatik austen eta beea iotzeraño erortzen diranak oso gutxi izaten dira. Ia-ia bakarrik ere ez. Eta, soroetan ugoloari beste orrenbeste gertatzen zaio. Udera-so zakarretan ere ugoloa poliki kulunkatzen da, eta ekaitzaren olda-rra emetzen danean soro gutzia len bezin eder gelditzen.

—Ongi ala ere. Muñotxo auetakoak zure begietan bizi-bizi da-ramazkizu.

—Eta Augustin deunaren aitorenz sorkarien Iaun Iainkoak delako *gero* igarleeri irakasten zien. Onela: izadikoen ioan-etorriak aien irudimenak inñarosten zituala eta izadikoetaz igarleen entzuleak ere Iainko Iauberan irakaspenez zuurrago egiten zirala.

—Beti ere Aren iarduna gizartearen onerako. Ortara, zure us-tez izadiarengandik ikasi baño ez degu...

—Gutzia ez dizut esan. Ugoloari gertatzen zaiona bere osoan ez da seskadiari gertatzen zaionaren antzera. Ugoloa burutuz gero ekaitza sortzen ba'da, aleak bere zamatxoa izan eta, aizearen zaka-rrak ugolo lastoa larregi inñarosten du eta sail osoa etzan egiten da. Ori gerta aurretik, nekazari ikasiek, ekaitzaren beldurrez, berberek txukun-txukun eratzen dute ugolo-lastoa eta orrela aizeteak bere lan txarra egiterik ez du izaten.

—Ori da! tontorrek zelaitu!!

—Oraingo altsuen eta iakintsuen eta asko-ikasien iarduna oso ulergaitz da, Aita!

—Leliu, zuk ala uste al dezu?

—Uste bakarrik ez! Are oraindik...

(1) Nikolas Ormaetxea, Agustín Gurenaren AITORKIZUNAK. Itzaropena argitaldaria, Zarauz, 1956. 323-garren orrialdean, XIX-garren puxkan.

—Leliu! Altsuak eta gôragoko gizonak ez dituzu maite...

—Guztiok bat ba'gîña gizar-tean bestelako giro ederra genduke. Olako orien geroikara zergatik da, ordea? Tontorrean ez ba'leude, eta beren aulkiak gooragi ez ba'lituzte, zeren beldur izan bear luteke? Gure basoetako seska oso apala da, guztiz eskurakoia. Seskari etekiña ez dakit zenbait eratarata ateratzen zaion. Iñoiz entzun izan dedanez, berrogei eratarata ere bai. Otorduan, seskaberrimuturrak oso onak izaten dira. Ugoloa ere era askora erabiltzen degu. Ardotarako ere bai. Bañan, ez nuke esango ugoloa seska bezin eskurakoia danik.

—Zure esana aintzakotzat artuaz gero, gizozon urkoikeria ebaki eta zeatu bearrean al gaude?

—Olako galdea neri egin aurretik, iakintsuek berek eta zerok zer irakatsi izan diguzuten gogoan izatea ez litzake batetxo oker.

—Ez det ba uste nik gero-ikara edo dalakorik orain arte aipatu izan dizudanik.

—Eta, eguzkipeko gure izatea betiko ez dala irakatsiz zer adirazi nai-izan diguzute? Eta antziña-antziñatik gizar-te osoak etorkizun ohea nai-izate ortan zer erakutsi nai digu? Oraingoek geroa illun eta txar ikusten dute. Orain arte kistarrirakaskizunetan agintzen zitzaigun bizitza ohea era bat baztertu egin digute.

Bañan, oker ibili dirala agerierian dago: kistartasunak agindu eta eskeintzen duan alaitasun ona kendu eta aren ordez beste oheagoren itxarorik ez dala miñez gero-ikara nabaitu eta iasan bear. Ori ulertzeko ez det uste urte luzez ikastekoetan ibili bearra danik.

—Zu ez al zera beti ikastekoetan ari eta egunero begiak zabalik ibiltzen.

—Ikastetik ikastekoetara alderik ba-dagola esango nizuke.

—Zuzen ari zerala dirudi. Gizonek orain-oraingoa zuzendu eta edertu eta begibetegarri eratu besterik ez dute amets. Olakoek esan ere auxe diote: *Etorkizuna, ikuskizuna*. Eta gerorako atsegingarrik ezer gertutzen ez danean, nai eta nai-ez zerbait txarraren beldur izan bear.

—Gaur-egun ez dago garai bateko olerkaririk. Orain guztiek illunkari dirala esan liteke!

—Zuen artean ere, beraz, olerkari baitiak izanak dituzte? Iku-si besterik ez da izaten zuen aurrak ain alai dabiltzanean. Oriek aurretik dakarte leenaren giro ez-tia.

—Guk bein ere ez degu erra gaiztorik izan. Gure eguratsean eta ortzian arrats guztiak gorri izan ditugu. Esakunak dirauskunez, biamonera-ko beti aize ez-titsua adirazten diguten arrats dizdiratsuak

bezela, alegia. Ortatik, geroa bein ere beltz ez ikusi guk. Iñondik ere geron biotza izan guk garbi, arrai, aratz. Gero-ikara duten guztiak tayeldarren artera etorri bear luteke, alaitasuna zer dan ikustera eta ikastera eta geron izate xume-xaloaz beren gogoak asetzera.

—Bai! Orixe asmoaren ederra! Eta zerok nora baztertu eta ioango zinateke? Ez uste izan gero, gero-ikaraz dabiltzanak amar edo ogei lagun bakarrik diranik. Sail oso aundiak dituzu. Ogei milla eta eun milla eta geiago ere bai! Orixe!! Non sartuko zenituteke? Zerok mendirago igoaz? Orrenbeste toki bai al dezute emengo ibar estutan?

—Gaizki esanda, mutillentzat ez genduke ainbeste toki. Emakumeentzat baietz uste det.

—Ori ere bai al degu?

—Ez al dakizu? Gure alaba errukarriak txipitonak bezelaxe ordoaz argiaren atzetik, antxe erre eta kiskali eta galduko diranik ez dakitela. Eta ez dabilta eguzki-argiaren atzetik. Ez eta ere zintzotasunak berak ematen duan argiaren ondoren. Bestelako ipurtargiak piztu dizkigute. Eta argi illun orien atzetik gure txoko estu auetatik iesi doaz.

—Bai; iriak beti deika ditugu-ta!!

—Bai ta! Bai ta!! Iri azietara doazela, alegia. Egunero bi sos aldean izango omen dituzten tokietara.

—Bañan, gaitz ori ludi guztiko neska gazteena dezu. Olako gaxo oriek gero-ikara zer dan ez dakite.

—Ari eta ari zerala neri ere gero-ikara sartu nai didazu, eta nere lantxoetara ioatea obe izango det. Aita, agur!!

—Zuk zere alaitasunari eutsi!! Urrena noiz ikusiko zaitut?

—Aita! Nai dezunean! Ni ez naiz urrutira ioango iesi...

ZORDUNA GOIEN

Txinatarrek aspaldiko gertakizunak idazti zaarretan poliki bilduta dituzte. Izkera berexi tximenean. Eta, ikastetxeetan ere puxka oriek erabiltzen izkuntzaren mami ezta txasta al izateko.

Antziñako garai aietan CHOW etxearen agintetzako azken alde-
ra *Ch'in, Ch'i, Ch'u, Han, Tsao, Wei* eta *Yen* etxaldeak besterik ez

ziran iaurerria osatzen zutenak. Guzti oien iaun aundi Nan-Huang'ek agintari izena besterik ez zuan. Izana oso gutxi. Eta bere eskura zuan lurralde pixka ere erdibitu egin zuan: Iparraldeko CHOW Okerrena, zatitxo orietan ere aren aginduei iñok ez iare ematen.

Bitartean Ch'in etxaldekoek indartzen asi eta Wei etxaldea purukatu egin zuten: Wei'tarrei izen ona beztu!!! Goorago esandako beste etxaldeak pozik zian. Nâspilla sortu zalarik, indartsuak bakarririk irabazian aterako.

Ontan Ch'u etxaldeko nagusi King Hsiao-li arrotzen asi zan, eta indarberritutako nagusi onek ongi ezitako bere mutillekïn beste etxalde guztiak menderatu zitzaizkeala uste zuan. Era berean Nan-Huang'en agintetza gutxi-etxi zualako Ch'in etxaldekoek oker-ibiltzeak zekarrena zer zan igarri zezatela. Eta King Hsiao-li'ren asmoa beste etxaldekoei zuzena zala iduritu. Guztien erabakia erriak iakin zezan ordezkariak bazterralde osora zabaldu zituzten, eta Nan Huang'i buruzagitza eskeiñi zioten.

Nan-Huang zaarrari, zerbait eundi egiteko gaiago zanean bertan orrenbesteko goraldirik bein ere ez zitzaion etorri izan. Eta, Ch'in etxaldekoek garbi esaten CHO'Wtarren aginte-zigorra puskatu egin nai zutela. Ala ta guztiz Nan-Huang esaten ziotena ulertzen zualarik ere biotzean kezkarik gabe ez zan. Isilik egotea egokiagoa zala zeritzaion. Eskeiñi zioten lendarikaz lengo bere izen ona askozaz dizdiratsua agertzen!!! Aukera bai ederra: bere nagusitza aintzaketzat artzera askok makurtu bearko zuten eta oraingo ontan ezkereskubikoak zuurki egiñez beiñolako ospea zutik goitar agertuko zitzaion guztiei.

Ezik, buruaustetxoa auxe izan: txanponak non zituan? Urre eta zillarririk gabe lanera eta gudara nori deitu? Bere etxeko altxortegia aspalditxotik ederki ustua zuan! Bañan, zana zala, oldez ioango liskarrera!! Etsaiak berak geiena nor zan ikusi bearko zuan!

Lenbizi txanponak bildu. Urrea metatu. Zillarrari zuri ohea atera. Txartel polittak idatziz ordezkariak eta biltzalleak iaurerriko aberatsengana bialdi zituan. Eta esateko Nan-Huang ez zebillela gezurretan, eta bakoitzak zemana bi alakotuz ordainduko zuala guda irabazten zuanean. Ta auxe arritzekoa: aberats aiek agure zaarraren mezua ontzat artu zutela!! Eta alako abegi txeratsua zekarkiotela ikusiz Nan-Huang'ek eske-txartelak erruz banatu zituan. Txintxiñaren otesera gudarako notintza aundia bildu zitzaion eta kopuruz gudaroste gizatsua osatu zuten guztien artean.

Erria beti ikuskizunerako, tximen ziteken zerbait non aurkituko. Bitartean txanpon-emaleak kezkatu: erdi-atzipeturik kendu ziz-

kiotenak ez al ziran soilki eskuz aldatu? Len delako aberatsek zi-koizkeri beltzean berenganatu zutena, orain alperrei urdalla betetze-ko... Beintzat, Nan-Huang esnegañetan zebillen. Eta burruka-zelaiera alai zioan. Nan-Huan lendik izendatutako guda-tokira eldu orduko Ch'u eta Yen etxaldekoak an zeuden zai. Eta, besteak? Alegia: Ch'i, Chao, Han eta Wei'tarren etxaldekoak? Agindu bai, aiek gudara agertuko zirala... eta batetxo lotsik gabe itza ian.

Udako egun luzeak mozten ari ziran. Udazkena eldu eta laguntzaille ziteken gudarosterik beste aiek biali ez. Ezertan zaildu gabeko bere giza-multzo ua botako al zion Nan-Huang'ek aurrean zai zeukan gudarozte etsaiari?... Arkaitza pitzatzeko arrautzak erabiltzea añaxe ziteken!!

Agintari zaarrari burura asmakizun onik ez zetorkion eta errukarriak zeregin ezin asmatu zuan. Aldi aietan oitura zanez, etsaiari arrapakiñez kendutakoz ordaindu bear akuran artutakoak. Bañan, oraingoan ustea ustel irten zitzaion. Zorrak zertaz kitatu? Lanak sortu zitzaizkion!! Bai orixe!!

Betiko ioanean egunak ikaragarritzko uxtuan zioazen. Negua bazetoren. Eguraldi buztiak. Euri eta ekaitzak. Elurra eta otza! Oso aguro, irabazle izateko asmoz pillatu zituanak eralgixe zituan. Altxorretan zillarrik ez. Urrea, berriz, askoz gutxiago. Mandiotan saguak eta txoriak azken-ondarrak iresten.

Ongi ala ere!! Adiskidetzat azaltzen zitzaizkion lau etxalde aiek etoitzar gertatu. Nan-Huang eroa aiek amildegian utzi zuten. Etsietsian bildu zituan gizonak bakoitza bere iriruntz erakarri besterik ez zuan izan.

* * *

Gudara abitu zanean, buruan amets ederrak zituala ioan zan. Beldurrik gabe. Gudariak ere pozik ziran soñeko berri-apañez. Orain, itzuleran, ia iñork ez zuan soñean zarpa zaarrak besterik. Irten ziranetik ia garbitu gabe... Nan-Huang bera buru-makur itzuli zan. Iñork ez zion begiratu ere egin.

Ondoren artzekodunek laister esnatu ziran: iauregira agertu ziralarik karraxika zor zitzaiena eskatzen. Ua ixkanbillaren ixkanbilla!! Marruak. Zemak. Salaketa lotsagarriak. Iauregia erreko ziote-la... Zer zan ua!! Agintari zaarrak ia burua galdu zuan.

Arek iauregiko osalariei laguntza eskatzen.

Osalariek elkarrekin bildu ziralarik auxe asmatu zuten: Nan-Huang'entzat etxe goi-goia eraikitzea. Bañan, oso goia!

Eta, alaxe egin zuten. Agure zaarra orain bere etxe berrian oso goein bizi zan, eta beekoen zema eta txilioak ez zituan entzuten. Etxeari izen egokia ezarri zioten: «Zordunaren goi-egoitza». Esan bearrik ez, agure maltzurak bere zorrak bein ere ez zituala ordaindu.

Ia sinistekoa ez dana, ta Nan-Huang'ek agintaritzan berrogeita emeretzi urte eman zituan. Azkenean Nan-Huang'ek bere aginte-zigorra Ch'in'darren eskuetan utzi zuan. Beiñolako zorrak Ch'in oriek astintzeko egin zituan arren. CHOW etxaldekoen agintetza onenbestez bukatu zan.

«Zorduna goien» esakuna garai zaarretan txinatarrek maiz erabiltzen zuten. Alegia, izaten dirala aberats lur-ioak, bañan axaletik beintzat beren itxurak bein ere uzten ez dituztenak. Erriak ala ere, zer gertatzen dan geiegi dakilarik, axalekoa besterik ez duten aberatsak banaka-banaka beatzez bereizten.

EGAZTIA MIÑEZ

Udaberi artako egun ua bai ederra! Argia oso! Gizakien zañetan odolak irakin berria asi.

WEI zeritzan iaurerriko agintari lena eta ango gudalburu lena, beren menpeko zenbaitekin egurastera irten ziran. Iauregian oi zuten soñeko eta iantzi estuegia aldera utzirik, zelai, aran, muño eta mendixkak zear atsegin aundiz zebiltzan.

Abitu, zalko abitu ziran eta lendik zekiten tontortxoaren oñera eldu ziranean, bakaldunak bere lagunari nor bizkorrago-izan asi bear zutela galde-egin zion.

Urteetan ez ain eldua eta gudalburua muño gaiñera bakalduna baño ariñago iritxi zan. Bestea ere gorago bildu zalarik biak parra lasai egiten zuten. Gain artatik ikuspegi polita oso! Izerdi puska atera-arren oztuko ziran beldurrik ez eta begiek asetzeko aña ba-zuten izan. Urte-aroak bere apaingarriak txito zabaldu zitularik, ez bat eta ez besteak andik ieistekorik ez aipatzen. Aruntzago, bai sortaldera bai sartaldera laño me-meetan bildurik mendiek ederrago ematen zuten.

Eguratsean egazti sail aundiak zebiltzan. Azigoak astun. Txikia-

goak urduri eta abeslari. Egaz ikasigabeko umeak ere ikusi zitezkean noizpeinka. Ontan gudaiburuak bakaldunari:

—Ikusten?

—Zer?

—Arako egaztitzat ua! Egaka motelean. Ez txistu ez txio aren eztarriak ots garbirik ez ateratzen. Baietz nik uztai utsez ua beerazi!

—Uztai utsez? Gezirik gabe? Bestek ez bezelako gaitasunak al dituzu?

—Entzun didazuna! Eta uztai utsez!! Eta zure baimenez, bakaldun iauna!!

—Adiskide! Ekin! Ekin!! Gezi gabe norbait eizean ikustea ez izaten eguneroko berri arrigarria!

Gudalburu Ken-lei'k uztai artu zuan, eta egaztiari begira gezia iaurti zuanaren otsa atera: «Tuan!!»

Bakalduna eta iarraiguan ziranak bai arrittu!! Egaztitzarrak uztai utsaren otsa entzunez alakoxe ikara izan zuan eta beste gabe ua beeraka izugarrizko uxtuan abitu zan. Eta guztiak:

—Ooo!!!... Bai arrigarria!!

—Olaikorik sinistu ere ezin sinistu liteke! Bañan, adiskide. Zer aztikeri berri sortu diguzu? Gezi gabe zuk egazia io? Beste inor ez bezelakoa zaitugu, noski!

—Ez da orrenbesterañokoa! Eta, bakaldun agurgarri!, naizen bañan askoz geiagokotzat artzen nauzu!! Egia besterik da. Gu onera agertu bañan len egaztiari norbaitek zartako txarra eman dio.

—Bañan, ez al degu ikusi egaz zebilela.

—Bere motelean ederki antz-eman zezaiokean min artua zebilela.

—Nik ez, beintzat!

—Berriz dasaizut: gogoan izan egaztiaren egaka oso aula zala. Garbi ikusi zitezkean arek osasun osoz egan askoz ere erarago egingo zuala. Ostera, aren txioak! Errukia ematen zuten: bakarrik zebillenaren ageri negargarria. Bere sailleko egaztiekin alde batera utzi zuten...

Ala ere! Ain ditute begi zorrotzak! Ikusi nau ni uztai arengantzat zuzentzen eta gero geziak iaurtikieran ateratzen duan «tuan» otsa entzunez, gezia zuzenean arengantzat ziola uste izan du.

—Zure zemak besterik gabe nola il da?

—Beldurrak erail du. Uste mokoloz berriro zulatu zutela iduritu eta orrela biotza lertu egin zaion.

* * *

Ken-lei gudalburuaren egaztiari buruzko aitorra egia izan. Ondoren ildakoa iaso zutenean odol-iario zegoan.

Gertakizun ontaz aurrera gudalburuaren izen-ona asko zabaldu zan. Alderdi guztietatik galdezka zetozen. Aiek gizonaren gaitasunak!! Alde batetik gudarako izugarri. Bestetik gizarteko gora-berak garbi aztertzen oitua.


Eta, WEI bakalderriari erasoko zionik iñon ez Keng-lei bizi zan bitartean.

Bai ta: eguraskide guztientzat egun ua txito gogoangarri gertatu!

Biltzalle: ETXEBERRIA'tar P.

KUANSHI (FORMOSA)

1972 - VIII - 29



MIRANDE olerkaria

Haren idaz lanak

Joan den Abenduaren 28-an Parisen hil zen euskal idazle aundi bat; Ion MIRANDE Aiphasorho euskalzain aski ezaguna gure artean, nahiz azken denboraldi huntan ixilik egon. Oso gazte hil da gure adiskidea, 47 urteetan: bihotz oneko zen, apala, adimendu eta oroimen aundikoa eta edozein fabore egiteko beti prest. Kultura edatuaren jabe, 8 izkuntza guttienez bazekizkian, euskara-z gainetik (eta huntan berdin nafar-lapurtarra nola giputza, bizkaitarra edo bere familiako ziberotarra); inglesa, gaztelania, frantsesa, galesa, irlandera, bretoina, alemana eta besteak oraino.

Ziberotar gurasoen semea, Parisen sortua eta bizitua; halaz ere euskaldun osoa. Aldizkari askotan idatzi izan du: EGAN, EUZKO GOGOIA, ELGAR, GUERNIKA, eta berak Peillen adiskidearekin ateratako IGELA aldizkari laburrean (7-8 numerotako aldizkari gordin eta ausarta); eta oraindik bestetan.

Nobela bat ere idatzi zuen, AUR BESOETAKOA izenduna, gaia gordinekoa.

Osasunez minbera, zainxuri-etatik bereziki, barrenkoia eta beltz aldera ixuria, ideiaz ere aparta zen Mirande gizajoa. Bere ideia berezi horiengatik etzen euskalzain bezala onartua izan, lau lagunek, euskalari gisako bere merezimendueri txoilik oharturik, aurkeztu gi-nuelarik Euskalzaindiko Batzarre batean, duela urte parrasta bat.

Uste dugu bere adiskide Peillenek, haren oroitzapenetan, bere lan ederren sorta bat eskeiniko digula. Merezi du euskalari aundia izan den gure adiskide oroituak.

Oroen artean, EGAN eta EUSKO GOGOIA-n argitaratu lan bali-os batzu aipatuko ditugu astiroago. EGAN-1955 (1-2) numeroan, UNDINA eta PARANOIA olerkiak. 1956-1- numeroan IPUIN

KHONDATZAILEA deitu kontu polita, Monro-inglesetik itzulikatirik.

EGAN bereko 1959-1-4- numeroan, *Izkuntza baten eriotza eta berpizkundeaz*, izenburua duena argitaratu zuen.

Cornwall edo Cornico eskualdearen Historia eta Reportaje luze aipagarri bat delako, eta ardura aundiko lana, hemen zehekiago azalduko dugu.

Cornwall edo Kornubia, Ingalaterrako ego-mendebaldean dagoen peninsula bat da (dio artikuluan); bere izkuntza zeltikoa, XVIII garren mende-azkenalderako arront galdua zegoen. Izkuntza jatorrian, —*Kernow*— deitzen zuten eskualde hori, eta —*Kernewek*— mintzaira bera, guk gurea —*euskara*— deitzen dugun bezala.

Arthur errege famatuaren denboran, erdi-mende astapenean, bera eta MAI BIRIBILLEKO ZALDUNAK (euskara garbiagoaz, *Maai inguruko zaldunak*, obeki legoke) kornubieraz mintzo ziren; ondetik anglo-saxonak eta danes-tarrak sartu eta lurraz jabetu ziren. Kornubia-tarrak gales-tarren ahaide urbilak dira (eta bretoinekin oraino geiago) beste zeltikoenak bezalatsu. *Tristan eta Isolda* maitale famatuen kondaira, hemengo da; eta Dramak eta misterioak —*myrakil*— ere badaude kornubi-eraz idatziak, —*Origo mundi*— *Passio Domini*—, gure Pastural batzuen gisara taxutuak.

Reforma-ren aurka altxatu ziren XVI —mendean eta garaituak eta zigortuak ere ondotik.—XVIII-gn. menderaino zuen kornubia izkuntzak iraun, eta laster galdu, metodistek (galestarrek ez bezala) inglez txoilik predikatzen zutelako Elizetan.

1777 urtean hil zen Dolly PENTRAETH, kornubieraz mintzazen aal zen atso bakarra; *Bonaparte* prinzeak hilarri bat zion, *Penzance* ondoko auzo batean eraiki, andere horri. Diotenez, eskean bizi omen zen eta erremusina-rik eman nai ez zioteneri, egundoko burro eta madarizinoak botatzen omen zieten, haiek ulartzen ez zuten izkuntza zaharrean; izpiritu minberak, ikaran utzirik.

Hainbeste traba eta kontrakarra izan ondotik, XIX gn. mendearen erditsura, Pizkunde bat ezagutu du azkenik izkuntza dohakabeak. Orditik honara, Iztegiak, komediak eta kanta zaharrak argitaratzen asiak dira; lehenean, arkeologia gisan eta ondokoak, mintzaira bizia pizteko xedetan.

JENNER izan da lehenetako mintzalari bat; oraintsu, MORTON-NANCE, eragile audienea da komediak eta iztegiak idazten, —*An balorez*— (belatxikia) bezalakoa, eta Ikasbide errez bat —*Cornish for all*— (kornik-izketa oroendako); *Caradar* deitu batek, ber-

din metodo aisebat —*Cornish simplified*— (Kornik-izketa laburzki), atera du.

Pizkunde huntan, Mirandek Bardoen batzarrak aipatzen ditu, GORSETH BYRD KERNOW elkarte bereziki, olerkari ereduak bil-tzen dituen; gales eta bretoinekin ere, hauen Biltzarretan sartzen dena. Bardo horien artean, *kornubi*-era ikasi dutenetan, gales-tar, bretoi, irlandarrik ere ikusten dira, bai eta ingles eta euskaldunak ere. Hauen artean, duela zenbait urte, gure adiskide *Mirande* bera onartua izan zen; izendapen preziatua erdiesteko irakurgai bat egin beharra da. Hortarako —*Goizean goizik jaiki nunduzun*—, zibero-kanta famatua kornubiera-ra itzulikatu zuen.

Oraingotz, eun batzu soilik mintzazen aal dira izkuntza huntan, eta Kornubia-ko jendeak inglesekin adiskide egon nai badu beti, herrizaleen lanak eta jaiak begi onez ikusten ditu. Radiotik eta Eli-zetan ere asi dira itzaldiak entzuten, eta 1934 urtetik hunara, kornu-bieraz ilabetekari bat agertzen dute —*An lef*— (Mintzoa) izena duena.

Azalpen hau luzexko joan bada, gaia ere guretako ernagarri da-lako da.

* * *

EGAN aldizkariaren 1960 (3-6) numeroan, iru artikulo argita-ratu zituen gure adiskideak; 8 orrialdetako saio polit bat, Ipuin bat eta bibliografia bat. Lehenean —*Eresi kantari*—, izena duena —*Goi-zean goizik*—, Ziberuko elexaharrari buruz, Mirandek asmamen aundiko saio barnakoi bat apailatzen du. Itzemanak dauden neskata bat eta jaun gazte baten arteko dudamudak itxuratzen ditu, kanta horrek bidea emanez (neskatxa kantaria da).

Gazteak ezkondu nai du baina neskata (Helena) eztago bero. Hunek bertsuak adiarazten dizkio, baina gazteak beste barrena ikus-ten du bersoetan; *Gabriela Lohiteguy* faltsukeriaz ari izan dela dio eta *Irigaray* senarraren lore pozoindua, hunen amoranteak igorria ez, Gabrielak baizik. Gero gorputz hila kanberan zazpi urtez *etxeki* or-dez, Gabrielak bere amorantea omen du jauregira ekartzen. Prosa eder batez ipuin korapilatsu bat osatu du Mirandek.

Numero berean —*Ipui beltzak*— izeneko 7 zirto-ateraldi kirats eta gogor, euskara errikoi batean. Irugarren artikuloa EGAN berean,

Goncourt saria dela eta, Schwartz-Bart juduaren aitzi ekiten du *Le dernier des justes* haren nobela, saristatua izan dela adiaraziz, iuduzalez josirik daudelako Franziako letradunen bilkurak.

EUZKO-GOGOIA aldizkarian, artikulo parrasta bat argitaratu zuen; 1956 urteko IIbelta-numeroan —Bi fraideak— (*An da Bhraithair*) irlandesatik xarmanki itzulikataturik, itzulpena dela nabaitu ere gabe.

Epailla numeroan bestea —*Maitharien arnoa*—, izeneko prosa-
ipuin barnakoi eta gogor bat, izkuntza errez eta argi batean. —*Larrakzen gau batez*— izeneko Olerkia —*Magdalenae dilectissimae*—
ikur edo ezaugarriarekin.

Aldizkari bereko 1957-IIbelta-numeroan —ZALDIZ ZERUAN—
izeneko Olerkia, *Stone-Jones* inglesekotik itzulikatu unai-elezar bat.
EUZKO-GOGOIA numero berean —BURUA—, izena duen V zatitako
occitan-etik euskeratu ipuin polita.

Besteek Mirande-n bizitza-alderkiak ukitu dituzten bezala, guk
haren euskal obra gogoangarriaren berri batzu azaldu nai izan ditugu,
olerkari aundi bat izan denaren oroitzapenetan.

A. IRIGARAY.

DOLUMINA

Gure lankide paristarra Domiku PEILLEN jaunak, Ion MIRAN-
DE Aiphasorho olerkari handia zonaren hilberria jakin arazten di-
gu: joanden Abenduaren 28-garrenean hilik.

Garai batez Aldizkari honen lankide jarraikia izan zenaren Pari-
seko berri samina gure irakurleeri jakin-arazten diegu. Eta bide ba-
tez, dolumin bizienak haren ahaide ondokoeri esaten.

KONTU KONTARI

AMESETAN. Txorien erantzuna eiztariei.

Igande ta jaiegunetako goizaldeetan etortzen dira eiztariak gure etxe ingurutara.

Dinbi ta danba, lorik egiten be ez deuskue itxiten, demontre urriñenguok.

Erreka-ertzeko sasitzetako txepetxak eurak be ez dabiz nasai gaur, orrek eskopetadun demoniñokumeok datozanean.

Biregarrua ilteak emon deusta atsekaberik aundiena. Goiz guztietan abestuten izan deusku, eta poztasunez bete gure biotzak, ixartze orduan.

Gure birigarrua il bear, nun eta geure etxearen lur-barruetan... Lapur gaizkilleak!

Kezkati eta erneguz ogeratu nintzan bart.

Eta zelako amesetak egin dodazan!...:

Euskalerriko txori guztiak batu dirala gure etxe-osteko altzartean. Eta eiztariak agertu diranean etxe ingurura, dan danak joan dirala abiadura ikaragarrian eiztariékana, pikuka eta erpeka.

Alakorik!...

Txori txikiak eta aundiak, danak batera inguratu ditubeez eiztariak, eta erruki barik odolez eta zauriz bete. Ango txilio eta dea-darrak!

Ixartu egin bear izan dot orrelako ameseteagaz, eta neu bere zarataka ixartu naz.

— *Zer gertatzen jatzu- galdetu deustee.*

— *Ez da ezer. Ez da ezer. Ameseta bat bakarrik.*


* * *

Ez dabee bakerik izango eiztariok, gure etxe-inguruko txoriak il artiño.

Egiazko biurtuko balitzake amesetea beingoan!...

bitaño

1972



Azkeneko illabete auetan Donostian jan-edan-gaiezko batzar eta sariketa ugari izan ditugu.

Batzar eta sariketa orietako goikoenak inoiz ere bertako *Cofradía Vasca de Gastronomía*-k joan zan azaroan antolatatu zituanak izan ziran noski.

Guk beintzat, eta esate baterako, ez degu sekulan sariketa ura bezain bikañik inon nabaitu.

Ona emen sarituak izan ziran sukaldari guzien izenak: Jean Claude de Hay, Francisco Centeno, Julián Cano, Rufino Zubigaray, Miguel Mailín, José Romero, Luis Irizar, Froilán Tomás, Julián Arzallus, Iñaki Aramberri, Francisco Castellanos, Eugenio Iarregui, Robert Etxeberri, Dominique Saint Martín, Manuel Sánchez, José Luis Varela, Pierre Ameztoy, Antonio Unanue, José Miguel Miner eta Juan Martínez.

Jaialdi aietan bi itzaldi gain-gainekoak ere izan genituen. Bat, Zaragozako legegizon José María Zaldívar Arenzana-k eman zigun, eta bestea berriz Madrideko idazle ospetsu Antonio Díaz Cañabate-k.

Azken-eguneko afariko jaki nagusienak, Vichyssoise zuku beroa, izokia ta basauntza Austria-erara izan ziran.

* * *

Donostiako *Cofradía Vasca de Gastronomía* aitatu degun ezke-ro, ezin geldituko gera ezarri gabe bere Etxean lengo ekainan España guziko Etxegilletalde batek egin zuan afariaren jaki-errenkada.

Onatx emen: antzar-gibel preskoa, xangurroa Jaizkibel-erara, txer-ranka Jose Castillo-k erre ta gertua, Idiazabalgo gazta ta Tolosako opil-goxoak. Edariak berriz auek izan ziran: Astigarragako sagardua, Getariko txakoliña, Erriojako ardo beltza ta zuria, Champaña, Armagnac, Izarra ta Pacharan.

* * *

Euskalerriarekin zer-ikusi duten jan-edan-gaiezko bi liburu eskuratu ditugu aldi ontan.

Bat, Ana Maria Calera-ren *La Cocina Vasca* da, ta bestea Luis Gil Gomez-en *Gastronomía Ribereña*.

Lenengoak Jose Maria Busca Isusi-ren itzaurre bat dakarki, ta bestea berriz Naparroako Erriberako jaki-prestaeren bilduma bat da.

Bigarren ontan berealdiko ajola ematen zaio *Tudelako orburuak* deritzaion *errezetari*.

* * *

Sukalkintzarekin eta Euskalerriarekin ere zertxobait zer-ikusi duan beste liburutxo bat ere egun auetan eskuratu degu. Bere izenburua *Sesenta recetas prácticas para la conservación y condimento de la sardina* da.

Alicanteko Udal-batzarrak argitaratu zuan liburuxka polit au, ta bere egillea legegizon Jose Guardiola Ortiz zana da.

* * *

Aurrera jarraitu baño len oartxo bat. Edota zeatzago esateko, eskaritxo bat. Gu liburu zaar-zale purrukatuak izan gera beti. Batez ere, nabarmen-samarrak baldin badira. Izan bear du, adibidez, emezortzigarren mendean Parisen argitaratutako txit ernagarri bat. Iñork beraren berri badaki, mesedez gaztiga deigula. Liburutxoaren izenburua, gutxi-gora-beera, au da: *Avis aux curés, de se trouver toujours aux noces et aux batêmes.*

* * *

Berri itun bat eman bearrean arkitzen gera. Gure adiskide on Francis Amunategui-ren eriotza.

Amunategui jaun au Frantzian jan-edan-gaiaz azkeneko urte aue-tan idazten zuten bi edo iru eskribatzallerik ezagunenetako bat zan. *La Cuisine et Vins de France, Aux Ecoutes du Monde* ta *Sud-ouest*-en sarritan idazten zuan. Gañera, bera zan *L'Art de Mets* liburu adituaren egillea.

Orain bost-bat urte emen, Donostian, egun batzuek igaro zituan, eta elkarrekin eta eskuz-esku bein baño geiagotan egokiera artan jan genuen. Jan bakarrik ez, mintzatu ere bai luzaro. Ta jan-edan-gaiaz ezezik, baita bere euskal-deitura Amunategui-ri buruz ere.

Goiko Jaunak Berekin beza.

* * *

Lenago aitaturako Beasaingo izen aundiko Jose Castillo sukaldariak, goierriar batzuek antziñan Gabonetan gertutzen zuten *Kapoi ziza oriekin* zeritzan jaki baten prestaera bialdu digu.

Errezeta ernagarri onen gaiak auek omen ziran: bi kilo t'erdiko kapoi bat, ogeita amar ziza ori, sei-bat baratzuri, sei koillarakada olio, beste sei koillarakada ardo zuri, iru koillarakada ogi-irin, amar koillarakada ur eta gatz piska bat.

Oar bat. Alegia, zizak saltsarekin serbitzatzen omen zituzten, ba-ña gertu, lendabizi, kapoiaren beraren barruan.

* * *

Orain berrogei ta amar urte il zan elgoibartar euskal-idazle jator Pedro Miguel Urruzuno-k utzi zizkigun jan-edan-gaiaz eraturako olerki errikoi atsegin bat baño geiago. Gure uste apalez bere *Ardoaren bentajak* deritzaiona, adibidez, iñoiz euskeraz ardoari buruz idatzi diran goieneko bertsoen mallan arkitzen da.

Ona beraren aapaldi pare bat:

Ara, ara:
napar ardo zarra;
zuk kentzen diguzu
urdalleko arra:
illa piztutzeko
ba dezu indarra;
edan dezagun
bada zarra, zarra
Ez, ez, bai, bai,
jai beti balitz jai!
ardoa edan eta
bizitzeko alai:
ardoak egiten
gaitu danok anai,
ardo zaleok
gera berdiñ non nai.

* * *

Emen, Donostian, joan zan urtean, Bilboko *Athletic* eta gure *Real Sociedad*-ek futboleko partidua jokatu zuten eguna zan. Eguerdi-inguruan, gu, donostiar lagun-talde bat, Bar batean ardoa edaten ari giñala, bilbotar batzuek barrura sartu zitzaizkigun. Ta guztiak, bu-llaka gañera, whisky eskatu zuten.

Edaten asi ziranean, guretar batek, irri-parrez, bilbotarrei gal-detu zien:

— Ze, ez aldezute orain *bilbainoak* Bilboko... ura edaten?
Ta bilbotar batek erantzun zion:

— Ez, orain whisky edaten degu. Bai, Bilboko... patarra.

* * *

Beiñola, Donostiako Parte zarreko Bar batean, amerikano bat, ingelesa beste izkuntzarik etzekien ipar-amerikano bat, ardoa edan eta edan ari zan. Ta, jakiña, azkenean berebiziko amorraia arrapatu zuan.

Orduan, inguruan zeuden donostiar batzuek, ingelesez mintzatzen asi ziran berarekin, ta saio luze-samar bat egin zutenean, amerikanoak galdetu zien donostiarrei:

— Barkatu, baña: ze izkuntzetan ari gera izketan?

Ta donostiar batek, txantxetan, erantzun zion:

— Euskeraz.

— Euskeraz?

— Bai, euskeraz.

Ta, *serio-serio*, ta baso-ardoa jasoaz, esan zuan ipar-amerikanoak:

— Nolako mirariak egiten dituan ardo onak!

* * *

Or dijoakizute lengo egun batean entzun genduan gazta-marka batekin eta euskaldunokin zer-ikusi pittin bat duan kontutxo polit bat.

Andereño bat omen da. Donostiarra. Gazte-eder, argi ta umoreduna. Madriden irakasle omen dago. Ta bere ikasleak —guziak neska-mutil zortzi-amar-bat urtekoak— *La vasca que ríe* deitzen omen diote...

* * *

Donostiako Conchako ondartzan, erdi-baserritar sagardo-zale batek, lengo abuztuko egun batean onela zion:

— *Aquí no hay más que «txilborras» al «aide».*

Ta, ondoren, euskeraz esan zuan:

— Gaitz-erdi, txilbor oiek, kupelak bezala zulatuta, sagardo pis-ka bat emango baluteke.

* * *

Atzo illunabarrean, mariñel gazte-bikain batek, Donostiako kaia-ko *trabena* batean onela zion:

— Ardoak indarra ematen dik, eta urak, berriz, *reuma*.

* * *

Beterri-ri. Bai, egia da joan zan iraillean Jerez de la Frontera-n ango ardo-egilleak saritu zizkidatela euskerazko bertso batzuek.

Urrezko sotoko opor bat eman zidaten saritzat, eta gañera Jerez-en igaro genuen nere emazteak eta biok aste oso bat sariketaren antolatzaileak —Domecq, González Byass, Rumasa, Sandeman, Palomino ta abar *Etxeak-gonbidatuta*.

Or dijoazkitzu, *Beterri* adiskide begiko, nere olerkitxoaren aapaldi batzuek:

MATSAREN ZUMUA

Jerez-ko Ardoari

Gauza txit on asko dira
gure mundu zaar ontan;
baña bat bakarra ere
bear bada ez
ardoak aiñakorikan.

Edan -jakintsuak zion-,
ardoak beti egin bear dala.
Ta ura...
ibaian beera dijoala.

Eskritura Sakratuek,
itzez-itzez,
ardoak alaitzen dituala
gure biotzak,
esaten digute berriz.

Euskal-poeta
jator Aita Meagher-ek,
orain berreun ta geiago urte
sortuak dira
bertso adigarri auk:
«Erroma-n ta Paris-en
Jerez-en dagoan
ardoaren usaia
daukate gogoan».

Or goien ere, zeruan,
jaiegunetan batezpe,
Jerez-ko ardo maitagarri au
seguru asko edango dute.

Dana dala ta
esanak esan,
ni iltzen naizen
egun berean,
oso gogoko
izango nuke
norbaitek, bada-ezpadan,
ipintzea, adibidez,
ezkutu ta ixilpean,
Jerez-ko ardo-
bonbillatxo bat
nere zerraldo-barnean.

Jakinzale bati. Urta arrai-izena euskal-itza ote dan ala ez? Badi-
teke ta ez diteke euskal-itza izatea.

Azkue-k itzez-itiz onela dio izen onezaz: *Cierto pez marino pa-
recido a la breca, pero mayor, vulgarmente llamado en Santander
cuco merlucero.*

Egia da Gipuzkoako itxas-erri batzuetan erabiltzen dutela
arrantzaleak urta itz au, baña ez zeatzki Azkue-k dion esanguran.

Dana dala, iñolaz ere urta arraia Andalucia-n da ezagunena. An-

go mokofiñak gañera oso gogoko dute. Jerez-en iraillean izan giñanean ere serbitzatu ziguten oturuntza batean.

Candido-k bere *La Cocina Española*-n dio urta *pargo* —*pagrus pagrus* (L.)— arraiaren antzekoa dala, baña txikixegoa ta Andaluçia-n entzute aundikoa. Are geiago: bere liburu ortan bertan, *Urta a la Roteña* deritzaion Sevilla-ko sukaldari José Rodríguez Calera-ren prestaera bat ere ezartzen du.

* * *

J. L. M.—Barkatu, adiskide, baña egia da Atal ontan orain irubat urte gure lagun Alejandro-k esaten zuana. Alegia, egungo egunean txinatarrak mundu guziko uri aundi geienetan jatetxeak idikitzen ari dirala.

Frantziako *Le Nouveau Guide Gault Millau* aldizkariaren azkeneko zenbakian esaten da gaur Parisen arkitzen dirala txinatarrak eta vietnamdarrak azkeneko urte auetan idikitako ia irureun-bat jatetxe.

Gaiñontzean, arrazoi dezu. Bai, guretzat ere gaurko txinatar sukalkintzako jakirik onenetako bat *Aate lakatua Pekingo erara* deitzen diotena da.

* * *

«Azpeitiako langille batek, Cordobako edo Jaengo aberats batek baño geiago ta obeto jaten du».—Ortega y Gasset.

* * *

«Poema batek ez du sekulan bazkari on batek aña balio».—J. Berchoux.

A. A.

IKASTOLA

(jaialdiak osotzeko antzerki laburra)

Kantaren egilea: Sabín Gereño.

Por Xabier Gereño

LEHENENGO EKITALDIA

I

(Ikastola bat. Orman, letra haunditan: «Euskal Ikastola». Behean, andereñoaren mahaia ta umeenak)

ANDEREÑO, UMEAK eta GIZONA

(ANDEREÑO, bizia, alaia, jatorra. Zutik dago.)

ANDEREÑO.—Ea, Iñaki. Zenbat dira 17 ta 15?

IÑAKI.—Ba... ba... 33.

(Beste umeak barre. Batzuek eskua jasotzen dute.)

ANDEREÑO.—Txarto esan duzu. Ea, zuk, Aitor.

AITOR.—32.

ANDEREÑO.—Ondo. Orain, zuk, Oier. Zenbat dira 24 eta...

(Atean buru bat agertzen da. Ikastolakoak haruntz begiratzen dute. Gizon gazte bat da, eskuan kartera bat dakarrela. Oso berritsua ta alaia.)

GIZONA.—Egun on, andereño ta umeak. Kontxo! Zelako ikastola polita daukazuen! Kontxo, kontxo!

ANDEREÑO.—Hori esateko besterik etorri ez bazara, esan duzu ta orain otoi, alde hemendik, lanean gaude ta.

GIZONA.—Ba, ni neu be, lanean nago.

ANDEREÑO.—Ez dirudi, ba, lanean zaudenik.

GIZONA.—Ea, umeak. Erakutsi zelako poligrafoak dituzuen. (*Era-kusten diote.*) Horrelakorik! Kaka, kaka hutsa!

ANDEREÑO.—(*Hasarre antzean.*) Kontxo ta kaka ta... zer da hizketa hori? Zer uste duzu dala hau? Tabernaren bat ala? Hau ikastola bat da, kultura etxe bat. Eta ez hemen horrelako hitzik erabili.

GIZONA.—(*Koipetsu.*) Barka, andereño. Baina nire denporetan ez zegoen euskal ikastolarik eta, beraz, nire kultura eskasa da.

ANDEREÑO.—Ea, amaitu arin. Esan behin betiko zer nahi duzun.

GIZONA.—(*Kartera zabaltzen du.*) Poligrafoak. Daudenik onenak. Berez idazten dute, berez, ortografiatzko falta barik.

ANDEREÑO.—Ba ditugu poligrafoak, eta sobran euki be.

GIZONA.—Ez diot ezetz, baina ez hauetarikoak. Ikusten duzu hau zein polita dan? Gorri gorria, zure espain ederren antzekoa. Eta zu zeu zarelako, erregalu moduan eskaintzen dautzut.

ANDEREÑO.—Erosi nahi nauzu? Ez dut nik zure erregaluen beharrik. Ale, batu guztia ta ospa, otoi, hemendik!

GIZONA.—Itxaron apur baten! Ez zaitetz hain presatia izan.

ANDEREÑO.—Hemen lanean geunden.

GIZONA.—Lanean zeundeten eta lanean gaude. Nork esan du besterik? (*Karteratik paper batzuk ateratzen ditu.*) Eta honelako blokerik? Ikusi dituzue inoiz honelako blokerik? «Txistulari» markakoak. Ikusi hemen txistulari bat.

ANDEREÑO.—Ez dugu ezer behar. Hemen, «konpleto» gaude. «Konpleto», ta zu sobran zaude. Beraz...

(Atean neska bat agertzen da.)

NESKA.—Andereño: zuzendariaren partez, etortzeko.

ANDEREÑO.—Bai, ba noa.

II

GIZONA ta UMEAK

(ANDEREÑOA joanda, umeen artean dana da zalaparta ta zarata. Batzuk, elkar joka. Beste batzuk paperez egindako bolak jaurtikitzen.)

GIZONA.—(Eskuekin txalo eginez.) Ea, mutilak. Danok isilik, ikastolan gaude ta. (UMEAK ez diote kasurik egiten. Karteratik karameloak ateratzen ditu.) Txarrean ez bada, onean. Ea, hemen ditut karameloak. Hauek jaten dituzuen bitartean, behintzat, isilik egongo zarete. (Karameloak zabaltzen ditu. UMEAK baretzen dira.) Eta orain, ea. Ikusten duzue blok hau? «Txistulari» markakoa da. Galdera bat egingo dautzuet, eta zuek erantzun. Ea, zein da blokerik onena?

UMEAK.—«Txistulari» markakoa!!!

GIZONA.—Ederto. Orain poligrafoekin.

III

GIZONA, UMEAK eta ANDEREÑOA

(Atean ANDEREÑOA agertzen da. Han geratzen da, begira. Besteak ez dira konturatzen.)

GIZONA.—Nire izena Ander da. Ea, zeintzuk dira poligraforik onenak?

UMEAK.—Ander-enak!!!

(ANDEREÑOA sartzen da.)

ANDEREÑOA.—Ederto. Ederto dakizu zuk denpora aprobe txatzen.

GIZONA.—Lanean nago. Esan dautzut lehen be lanean nengoena. (Neskari urreratuz.) Ni, oso langilea naiz, eta zu (neskari begira), zu...

ANDEREÑOA.—(Atzeruntz doa.) Kontuan hartu non gauden.

GIZONA.—Bai, bai. Ta, zer (atea seinatuz), zuzendariarekin ondo? Bronkaren bat euki duzu?

ANDEREÑOA.—Hau da hau gizona! Oraintxe bertan hemen presentatu, ta ikastolako gora-behera guztiak jakin nahi.

GIZONA.—Barkatu. Ta... poligraforik?

ANDEREÑO A.—(*Hasperen bat eginik.*) Zer erremedio! Zu bistatik kentzeagaitik, erosi beharko! Ekarrri egizuz dozena bat!

GIZONA.—Eta, blokerik?

ANDEREÑO A.—Blokeak be? Tira, atara daukazun guztia, ea amaitzen dugun.

GIZONA.—Zenbat bloke?

ANDEREÑO A.—Beste dozena bat. Eta mesedez, zoaz orain.

GIZONA.—Bueno, gaurko nahikoa da, ta banao.

ANDEREÑO A.—Zoaz, zoaz ordu onean.

GIZONA.—(*Guztia batzen du.*) Bueno, andereño. Bueno, umeak. (*Es-kuak eragirik.*) Agur, agur. (*Atean buelta ematen du.*) Eskarrik asko ta... gora euskal ikastolak!

IV

ANDEREÑO A eta UMEAK

ANDEREÑO A.—Hau bai izan dela pelmadea. Horrelakorik! Aurpegi gogorragorik! Zemento, zementoa saltzen ipini behar lituzkete horrelako gizonak. (*Jezarten da.*) Ea, umeak, goazen gurearekin. Baina aurretik, gauza bat esan behar dautzuet. Zuzendariak deitu daust eta esan datorren astean esaminak direla. Ea, ba, zelan ikasten duzen. Euskal ikastolen izena gora jaso behar dugu. Ea igazko legez aurten be lehenengoak geratzen garen. Ikasiko duzue asko?

UMEAK.—Bai, andereño!!!

ANDEREÑO A.—(*Erlojua begiratzen du.*) Ordua da. Amaitu dezagun gaurkoa abesti batekin. Ea, abestu dezagun «Ikusi mendizaleak». (*Istrumendurik badago, txistu, akordeoia, kitarra, barrutik lagundu, umeak abestuten duten bitartean. Bigarren estrofan, «hain ederra, hain polita da ta» abestu baino lehen, andereñoak ikusleei begira...*) Ea, zuek be gurekin!

(*Abestia amaitzen danean...*)

TELOIA

BIGARREN EKITALDIA

I

Lehengo ikastola berean

ANDEREÑO A ta GIZONA

(ANDEREÑO A jezarrita dago, paper batzuk aztertzen.
GIZONAK burua agertzen du.)

GIZONA.—Idoia?

(ANDEREÑO A zutik ipinten da.)

ANDEREÑO A.—Ola! Nire izena be ikasi duzu?

GIZONA.—Hori da nire ofizioa, jendeari ematea, erosi dezaten: klienteen izenak eta gustuak ezagutu, gero eurekin zertaz hitz egin jakiteko.

ANDEREÑO A.—Klienteen gustuak esan duzu? Horrek esan nahi du nire «bizitza pribatua» be aztertzen ibili zarela.

GIZONA.—Jakina ba!

ANDEREÑO A.—Horrelakorik! (*Zirikalari.*) Eta... niri buruz, zelako informazioa hartu duzu?

GIZONA.—Hori, «sekreto profesionala» da.

II

ANDEREÑO A, GIZONA ta SEÑORITA

(*Atean, andra bat agertzen da. «Señorita estúpida» delako bat.*)

SEÑORITA.—Buenos días.

ANDEREÑO A.—Egun on. Zer nahi duzu?

SEÑORITA.—Hau, kolejio bat da, ezta?

GIZONA.—(*Señoritari goitik behera nabarmenki begira.*) Bai.

SEÑORITA.—Ba, nik, alaba bat daukat eta...

GIZONA.—Zure alaba horrentzat hau baino leku hobeagorik ez duzu bilatuko.

SEÑORITA.—Hori nahi dut nik bat. Nire alabarentzat leku hobere-na. Gu, jende inportante gara.

GIZONA.—(*Burlaz.*) Bai. Hori bistan dago.

ANDEREÑO A.—Zenbat urte dauka zure alaba horrek?

SEÑORITA.—Sei urte.

ANDEREÑO A.—Ederto. Etorri leiteke. Eta, euskeraz ba daki?

SEÑORITA.—Euskeraz? Qué pregunta!

GIZONA.—Horrek, baietz esan nahi du.

SEÑORITA.—(*GIZONA despresioz begiraturik.*) Horrek ezetz esan nahi zuen.

- GIZONA.—Bueno, ba hemen ikasiko du.
- SEÑORITA.—Hemen euskera ikasiko duela?
- GIZONA.—Bai.
- SEÑORITA.—Qué atraso!
- GIZONA.—Atraso? Atrasoak gero... ez dira beti txarrak izaten. «Co-
brar los atrasos» gauza ederra izaten da. Eta, zeruan be, azke-
nak lehenengoak izango direla dinoc.
- ANDEREÑO A.—Euskera ikastea gauza ona da.
- SEÑORITA.—Uf! Pa qué sirve eso!
- GIZONA.—«Pa qué sirve» esan duzu? Horrelakorik!
- SEÑORITA.—Bai. Ni andra praktikua naiz. Nik, zeozetarako balio
duena bakarrik egiten dut. Balio ez duena, tontoentzat.
- GIZONA.—Orduan, zuk dirua irabazteko balio duena bakarrik nahi
duzu.
- SEÑORITA.—Bai. Dirua da gaur nagusi.
- GIZONA.—(Andrari urreratzen jako.) Eta, zertarako balio dute hor
belarrietan dituzun arrakadak? Zer probetxu ematen dautzute di-
rutan hor eroatearekin?
- SEÑORITA.—Dirutan... dirutan ez. Hori apainduri bat da.
- GIZONA.—Eta... neguko egun gogorretan, zergaitik agurtzen duzu
jendea «egun on» esanda? «Egun on» esan eta hotzez dardarka!
Dirurik lortzen ete duzu hortik?
- SEÑORITA.—Ez, hori esatea kortesia bat da.
- GIZONA.—Ikusten duzu? Munduan ez da guztia diruarekin neurtu
behar. Ba daude zuk aitatu dituzun APAINKETA, KORTESIA...
ta beste asko.
- SEÑORITA.—Ez pentsa zure hitzekin nahastuko nauzunik.
- GIZONA.—Hori, ba nekian zu ikusi orduko.
- SEÑORITA.—(Haserre.) Zer esan nahi duzu horrekin? Astoa naizela?
- ANDEREÑO A.—(Bakea ekarri nahian.) Parkatu. Baina zeozer esan
nahi dut. (Andrari.) Hara. Guk hemen ahal dugun ondoen era-
kusten dugu. Gure ikastola hau da gure herriari dagoen kolejio-
rik onena. Joan dan urteko esaminetan, gure umeak danen artean
lehenengoak geratu ziren. Beraz, kolejio on bat nahi baduzu, he-
men daukazu gurea.
- SEÑORITA.—Baina... euskera...
- ANDEREÑO A.—(Bizi.) Euskera ez da eragozpenik, laguntza baino.
Hara. Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, obe. Burua, adimena,
hainbat eta argiagoa.
- SEÑORITA.—Frantsesa izango balitz...
- ANDEREÑO A.—Ikasiko dute frantsesa be. Baina hasi, hasi euskeratik.
- SEÑORITA.—Eta zergaitik euskeratik?
- ANDEREÑO A.—Geurea dalako.

GIZONA.—Euskera da munduko hizkuntzarik zaharrena, ederrena.

ANDEREÑO A.—Ez horregaitik. Nik ez dakit munduko zaharrena ala ederrena dan, ezta jakin beharrik be. Euskera maite behar dugu geurea dalako, eta akabo.

SEÑORITA.—Eta zertarako...

ANDEREÑO A.—Zertarako balio duen galdetu nahi zenuen?

SEÑORITA.—(Lotsati.) Bai.

ANDEREÑO A.—Hara. Lehen ikusi duzu munduan, diruz gainera, beste gauza batzuk be kontuan hartu behar direla. Euretari ko bat, herri baten nortasuna. Hizkuntza bat, ez da bakarrik hitz egiteko tresna bat. Hori baino besterik ez balitz, onena hartu ta besteak kendu, ta kito. Baina ez, hizkuntza bat hori baino gehiago da: herri bateri bere nortasuna ematen dio. Gu euskaldunak gara euskera dugulako. Euskera galduko bagendu, ez ginateke gehiago euskaldunak izango. Baina ba dago gehiago. Hizkuntza batek kultura berezi bat sortzen du, ta biak, hizkuntza eta kultura horrek, herria moldatzen dute. Gu gara garen lakoak euskerari eskerrak. Hizkuntza batek, gure adimenean, gure barruan, guk uste dugun baino lan gehiago egiten du.

GIZONA.—Brabo, andereño! Uste nuena baino gehiago zara.

SEÑORITA.—Bueno, ba. Horrelan bada...

ANDEREÑO A.—Ez, ez dut zure alaba ona indarrez ekarri nahi. Proba bat egin zenezake. Bialdu ezazu ona, ta gauzak zelan doazen atsegin bazaizu...

SEÑORITA.—Bai, hori egingo dut. Eta noiz ekarri behar dut?

ANDEREÑO A.—Gaur bertan, nahi baduzu.

SEÑORITA.—Agur ba. Arratsaldean ekarriko dut.

ANDEREÑO A.—Agur.

III

ANDEREÑO A ta GIZONA

GIZONA.—Harrituta utzi nauzu. Ez nuen uste hain balientea zinenik.

ANDEREÑO A.—Zer uste zenuen ba? Ikastoletako andereñoak edozer ginela?

GIZONA.—Eta oraintxe hasarretu behar zara? Oraintxe, beste begi batzuekin ikusten zaitudanean?

ANDEREÑO A.—Beste begi batzuekin ikusten nauzula? Zenbat begi dituzu ba?

GIZONA.—Ez zaitex txatxarra izan. Ba dakizu zer esan nahi dudan.

ANDEREÑO A.—Bueno, hemen gaude alferrikako berriketan. Zertarako etorri zara gaur? Poligrafoak saltzera?

GIZONA.—Ikusten duzu? Zu ikustean, poligrafoak saldu behar ditudala be ahaztu egiten zait.

ANDEREÑO A.—Horretarako zentozen?

GIZONA.—Horretarako... eta zu ikustera.

ANDEREÑO A.—Bueno. Ba ikusi nauzu, ta poligraforik ez dugu behar.

GIZONA.—Ai, neska hau zein gogorra dan! (*Neskarengana urreratuz.*) Baina, gogorra baizen polita! (*Eskua bihotz gainean jarririk.*) Ai!!!

ANDEREÑO A.—Tripetako minik daukazu?

GIZONA.—Ez, apur bat goratxuago.

ANDEREÑO A.—Tunante hori!

GIZONA.—Ta, poligraforik?

ANDEREÑO A.—(*Hasperen batekin.*) Zer erremedio! Ekarri dozena bat.

GIZONA.—Eta blokerik?

ANDEREÑO A.—Kontxo, kontxo ta errekontxo. Ekarri beste dozena bat.

TELOIA

HIRUGARREN EKITALDIA

I

Ikastolan

ANDEREÑO A eta UMEAK

ANDEREÑO A.—Bueno, umeak. Berri pozgarri bat daukat zuentzat. (*Paper batzuk hartzen ditu.*) Esaminak ederto egin zenituzten. (UMEAK *txaloka dira.*) Ixilik, ixilik. Oraindino gehiago dago. Aurten be, geure ikastola lehenengoa geratu da. (UMEAK *txalo haundiagoak.*) Askok ikasi duzelako, onak izan zaretelako, geure euskal ikastolaren izena goi goian ipini duzue. Eskerrik asko. Bihotzetik, eskerrik asko.

(*Atean, gizonak burua agertzen du.*)

II

ANDEREÑO A, UMEAK eta GIZONA

GIZONA.—Sar leiteke?

ANDEREÑO A.—Berrirori zu hemen? Etxekoa zarela ematen duzu?

GIZONA.—Kontuz! Ez nator orain poligraforik saltzera.

ANDEREÑO A.—Ez duzu pentsatuko hori sinestuko dudanik!
 GIZONA.—Ba, sinestu beharko.
 ANDEREÑO A.—Ea, bota arin botatzekoa.
 GIZONA.—Zer ba! Gaur be prisaz?
 ANDEREÑO A.—Munduan gaur horrelan gabiltza. Beti prisaz.
 GIZONA.—Ba, sinestu nahiz ez sinestu, gaur zuei zorionak ematera etorri naiz, eta ez besterik. Herri guztiak daki esamintetan lehenengoak geratu zaretela.
 ANDEREÑO A.—Eskerrik asko.
 GIZONA.—(Umeai begira.) Baina, zergatik urten duzue lehenengoak? Ba dakizue zergatik?
 UMEAK.—Ez!!!
 GIZONA.—Ezetz? Ez dakizuela zergatik? «Suspenso», guztiei «suspenso». (Andereñoari.) Eta zuk bez, ez dakizu zergatik geratu diren lehenengoak?
 ANDEREÑO A.—Santa Rita-ri kandela bat ipini diozulako?
 GIZONA.—Ez andrea! Nire poligrafoakaitik! Hori, nire poligrafoakaitik. (Umeai.) Zeintzuekin egin zenduen esamina?
 UMEAK.—Ander-en poligrafoekin!!!
 GIZONA.—Ikusten duzue? Ikusten duzue zein onak diren Ander eta bere poligrafoak?
 ANDEREÑO A.—Gaurko honek ospatzea merezi du. Beraz, orain ikastolako ume guztiak merendu bat duzue.
 UMEAK.—Brabo!!!
 GIZONA.—(Andereñoari.) Eta gero, zuk eta biok, afari on bat egingo dugu elkarrekin. Konforme?
 ANDEREÑO A.—Konforme!

(UMEAK abestuten dute.)

I

Goazen, goazen guztiok
 goazen ospatzera,
 ikastolen izena
 gora jasotzera.

II

Bere ugaritzea
 hain da pozgarria,
 euskal ikastolekin
 gora geure euskera!

TELOIA

AZKENA

Bilbaon, 1970 abuztua 7.

BIBLIOGRAFIA

1972. URTEKO EUSKARAZKO LIBURUAK

- Axular. Mendea, gizona, liburua**, Luis Villasante. "Jakin". Arantzazu-Oinati.
- Behin batean**, X. Kintana. "Lur". Donostia.
- Bigarren Atalak**, Bitaña. "Kuliska sorta". Ed. Itxaropena. Zarautz.
- Biziaren erroetan**, Joan Inazio Goikoetxea "Gaztelu". Col. Premios Literarios Ciudad de Irún. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia.
- Diálogos euskéricos (Jolasak eta Berbaldijak)**, A. Pascual Iturriaga eta J. A. de Uriarte. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.
- Erlijioa hauzipean**, Elkar-lanean, J. Arregi, E. Osa, J. Azurmendi, Larresoro, J. M. Torrealday, P. Xarritton. "Jakin sorta". Arantzazu-Oinati.
- Europako ezker berria**, X. Mendiguren. "Etor". Bilbao.
- Euskaldunak Argentina'n**, Erramun Joxe Zubillaga. "Ekin" Euskal Argitaldaria. Buenos Aires.
- Euskaldunak poema ta olerki guziak (euskera-erdera)**, Nikolas Ormaetxea "Orixe". Ed. Auñamendi. Donostia.
- Euskal esku-langintza - Artesanía vasca (euskera-erderaz)**, III eta IV tomoak, Juan Garmendia Larrañaga. Ed. Auñamendi. Donostia.
- Euskal Literatura - I (XVI-XVII. mendeak)**, Joxe Erzibengoa eta Patxi Ezkiaga. "Etor" - "Kimu" saila. Bilbao.
- Euskal Literatura 72**, Elkar-lanean, G. Aresti, B. Atxaga, M. Azurmendi, J. Intxausti, L. Haranburu-Altuna, X. Kintana, A. Lertxundi, I. Sarasola, A. Urretabizkaia, A. Zelaieta. "Lur". Donostia.

- Fedearen dinamika**, Paul Tillich. "Jakín". Arantzazu-Oinati.
- Gauean oihu**, Joan Inazio Goikoetxea "Gaztelu". Col. Premios Literarios Ciudad Irún. C. A. P. de Guipúzcoa. Donostia.
- Gaztibel'tza-ren karabinak**, Izenik gabeko eskutitza. "Gure Herrria". Baiona.
- Giza zirriborroa**, Kaxildo Alkorta. "Etor". Bilbao.
- Gogoetan**, Olabeaga'tar Iñaki. San Antongo katekesia. Bilbao.
- Gora Jainkoa**, Euskalerriko Liturji batzordea. Izarra. Donostia.
- Gure Ikastola**, Elkar-lanean, J. A. Aduriz, I. Aizpurua, A. Allur, J. Ansa, S. Ayestaran, M. Errezola, C. Esteva, F. Garitano, L. Haranburu, J. Intxausti, I. Laspiur, A. Lertxundi, E. Osa, P. Pla, J. M. Satrustegi, I. Urbieta, J. Urrutia. "Jakín sorta". Arantzazu-Oinati.
- Haurtxoa: Zigoinak Paristik ekarria ote?**, Kozicharow-Sartori (Dionisio Amundarainek euskaratua). Ediciones Paulinas. Zalla (Bizkaia).
- Herrriaren lekuko**, R. Arregi. "Jakín". Arantzazu-Oinati.
- Hizkuntza eta pentsakera**, Larresoro. "Etor". Bilbao.
- Industria-herri baten azterketa**. Arrasate eta bere etorkizuna, Siadeco. "Etor", Bilbao.
- Iraultzaren hildotik**, Joseba Intxausti. "Jakín". Arantzazu-Oinati.
- Itzal gorria**, Dominique Peillen. "Kuliska-sorta". Ed. Itxaropena. Zarautz.
- Itz-Lauz**, Lizardi. "Edili". Donostia.
- Izadiaren gauza harrigarriak**, Rutherford Platt-ek moldatua Walt Disney-ren Estudioetan (S. Garmendiak euskaratua). Col. Walt Disney. Ed. Gaisa, S. L. Valencia - Donostia.
- Juan Ignacio de Iztueta** (euskara-erdaraz), Jabier Aranburu. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia.
- Kandido**, Voltaire (Ibon Sarasolak euskaratua). "Lur". Donostia.
- Kardaberaz Aitari omenaldia**. "Kardaberaz bilduma - 1". Donostia.
- Kolakowski**, J. Arregi eta J. Azurmendi. "Jakín". Arantzazu-Oinati.
- Lan hautatuak**, Joannes Etxeberri (I. Sarasolak antolatua). "Lur". Donostia.
- Lehen euskal gizona**, J. M. Barandiaran. "Lur". Donostia.
- "Maitena"** (Pastoral lírica vasca en dos actos), Etinne Decrept. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.
- Mañex Etchamendy bertsularia** (1873-1960), Piarres Lafitte. "Auspoa". Tolosa.
- Martin Fierro - Matxin Burdin**, José Hernández (Iakakortaxarena'tar Txominek euskaratua), Luis Beltran Sola-ren irudiekin. "Ekin". Buenos Aires.
- Marx eta Nazioa** (I. Bizitza eta teoria), Gotzon M. Garate. "Etor". Bilbao.
- Mitxelenaren idazlan hautatuak** (P. Altunak hautatuak eta ohar-iruzkinak). "Etor". Bilbao.
- Mundu berdearen gauza harrigarriak**, Th. Van Leeuwen (Larresorok euskaratua). Col. Walt Disney. Ed. Gaisa, S. L. Valencia - Donostia.

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS
(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR.
por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XVIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual (España) 200 »

» » (Extranjero) 250 »

EGAN: Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual: 90 »

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales
Número suelto: 30 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN

PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR.

por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XVIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual (España) 200 »

» » (Extranjero) 250 »

EGAN: Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual: 90 »

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales
Número suelto: 30 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN

